

AZTERLANAK



HERRITARREN SEGURTASUNERAKO BIDEOZAINZA EUSKADIKO EREMU PUBLIKOAN

Oinarrizko eskubideen ikuspegitik egindako
azterlana

URTARRILA, 2024

ararteko

Herriaren Defendatzailea
Defensoría del Pueblo



Lan hau [Creative Commons Aitortu 4.0 Nazioartekoa \(CC BY 4.0\) lizentziapean dago](#)



Arartekoaren argitalpenak eskuratzeko

- [web](#) gunean
- [posta elektronikoz](#) eskatuz
- aurrez aurre gure hiru bulegoetako batean, idatziz (Prado 9, 01005 Vitoria-Gasteiz) edo telefonoz (945 13 51 18)

ARARTEKOA

Itzulpena: Hori Hori S.A.L.



Aurkibidea

I. Araudiaren akronimoak eta organismoak.....	5
II. Aurkezpena.....	7
III. Azterlanaren helburua, metodologia eta arau-esparrua.....	9
III.1. Helburua.....	9
III.2. Azterlanaren metodologia eta egitura.....	10
III.3. Esparru juridikoa.....	12
III.4. Arartekoaren erabakiak gai honetan.....	17
IV. Azterlanaren emaitzak eta ebaluazioa.....	19
IV.1. Kamera kopuruari, motari eta kokapenari buruzko estatistikak.....	19
IV.1.1. Emaitzak.....	19
IV.1.2. Azterketa eta balorazioa.....	21
IV.2. Bideozaintzaren helburuak eta gaitzen duten arauak.....	26
IV.2.1. Emaitzak.....	26
IV.2.2. Azterketa eta balorazioa.....	28
IV.3. Bideozaintza baimentzeko araudia.....	30
IV.3.1. Emaitzak.....	30
IV.3.2. Azterketa eta balorazioa.....	33
IV.4. Proporzionaltasun-printzipioa.....	39
IV.5. Bideozaintzako grabazioen kudeaketa eta gordetzeko epeak.....	45
IV.5.1. Emaitzak.....	45
IV.5.2. Azterketa eta balorazioa.....	49
IV.6. Informazio-printzipioa.....	52
IV.6.1. Emaitzak.....	52
IV.6.2. Azterketa eta balorazioa.....	54
IV.7. Herritarren eskubideen erabilera eta arreta.....	57
IV.7.1. Emaitzak.....	57
IV.7.2. Azterketa eta balorazioa.....	59
IV.8. Datuen babeserako oinarrizko betebeharrak.....	62
IV.8.1. Emaitzak.....	62
IV.8.2. Azterketa eta balorazioa.....	64
IV.9. Segurtasun-neurriak.....	68
IV.9.1. Emaitzak.....	68
IV.9.2. Azterketa eta balorazioa.....	69



V. Ondorioak.....	72
V.1. Alderdi orokorrak eta arau-esparruak.....	73
V.2. Bideozaintzaren helburuak eta gaitzeko arauak.....	74
V.3. Herritarren segurtasunerako bideozaintza baimentzeko arabideari buruz.....	74
V.4. Proporzionaltasun-printzipioa.....	75
V.5. Grabazioen kudeaketa eta gordetzeko epeak.....	76
V.6. Publizitatea eta gardentasuna administrazioaren jardueraren eremuan.....	77
V.7. Herritarren eskubideen erabilera eta arreta.....	77
V.8. Datuen babeserako oinarrizko betebeharrak.....	78
V.9. Segurtasun-neurriak.....	79
VI. Gomendioak.....	80
VI.1. Alderdi orokorrak eta arau-esparrua.....	80
VI.2. Bideozaintzarekin lortu nahi diren helburuak eta gaitzen duten arauak.....	81
VI.3. Herritarren segurtasunerako bideozaintzako baimenak.....	81
VI.4. Proporzionaltasun-printzipioa.....	81
VI.5. Grabazioen kudeaketa eta gordetzeko epeak.....	82
VI.6. Publizitatea eta gardentasuna.....	82
VI.7. Herritarren eskubideen arreta.....	83
VI.8. Datu pertsonalen babesa.....	83
VI.9. Informazioaren segurtasun neurriak.....	83
VII. Eranskina: Galdetegia.....	85



I. Araudiaren akronimoak eta organismoak

Jarraian, oro har, azterlan honetan erabilitako arauak eta erreferentziak egiteko erabilitako akronimoekin aipatutako organismoak eta organoak aipatzen dira.

ARAUAK:

- 1978ko Espainiako Konstituzioa (EK).
- 2016/679 (EB) Erregelamendua, Europako Parlamentuarena eta Kontseilua-rena, 2016ko apirilaren 27koa, Datu pertsonalen tratamenduari eta datu ho-rien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa eta 95/46/EE Zuzentaraua indargabetzen duena (DBEO).
- 1/1982 Lege Organikoa, maiatzaren 5koa, Ohorerako, norberaren eta fami-liaren intimitaterako eta norberaren irudirako eskubidearen babes zibilari bu-ruzkoa (LOHP).
- 4/1997 Lege Organikoa, abuztuaren 4koa, Segurtasun Indar eta kidegoek toki publikoetan bideokamerak erabiltzea arautzen duena (LOVFCS).
- 4/2015 Lege Organikoa, martxoaren 30ekoa, Herritarren Segurtasuna Ba- bestekoa (HSBLO)
- 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5koa, Datu pertsonalak babestekoa eta eskubide digitalak bermatzekoa (DPBEDBLO).
- 7/2021 Lege Organikoa, maiatzaren 26koa, arau-hauste penalak prebeni- tzeko, detektatzeko, ikertzeko eta epaitzeko eta zigor penalak betearazteko tratatutako datu pertsonalak babestekoa (7/21 Lege Organikoa).
- 19/2013 Legea, abenduaren 9koa, gardentasunari, informazio publikoa es- kuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoa (GGOL)
- 2/2004 Legea, otsailaren 25ekoa, Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzkoa (DBEL).
- 1/2020 Legegintzako Dekretua, uztailaren 22koa, Euskal Herriko Poliziari buruzko legearen testu bategina onartzen duena (EAEPL).



- 596/1999 Errege Dekretua, apirilaren 16koa, Segurtasun Indar eta Kidegoek toki publikoetan bideokamerak erabiltzea arautzen duen abuztuaren 4ko 4/1997 Lege Organikoa garatzeko eta betearazteko Erregelamendua onartzen duena (596/1999 Errege Dekretua).
- 311/2022 Errege Dekretua, maiatzaren 3koa, Segurtasun Eskema Nazionala arautzen duena (SEN)
- 168/1998 Dekretua, uztailaren 21ekoa, Euskal Herriko Poliziak toki publikoetan bideokamerak erabiltzeko baimenen eta horien erabileraren araubidea garatzen duena (168/98 Dekretua).
- Agindua, 2011ko apirilaren 15ekoa, Herrizaingoko sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziak bideokamera finkoak instalatzeko eta erabiltzeko informazio-kartelen edukia eta diseinua ezartzen dituen.
- 1/2006 Jarraibidea, azaroaren 8koa, Datuak Babesteko Espainiako Bulegoarena, kameraren edo bideokameraren sistemen bidez zaintzeko asmoz datu pertsonalak tratatzeari buruzkoa.

ÓRGANOS Y AUTORIDADES

- Datuak Babesteko Euskal Bulegoa (DBEB)
- Datuak Babesteko Espainiako Agentzia (AEPD)
- Bideozaintza eta Askatasun Batzordea (BAB)
- Euskal Autonomia Erkidegoko Polizia Kidegoa edo Ertzaintza eta Euskal Autonomia Erkidegoko toki-erakundearen edo Udaltzaingoaren mende dauden Udaltzaingoko kidegoak edo zerbitzuak (poliziak edo EAEko poliziak)
- Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Saileko Sailburuordetza (SSB)



II. Aurkezpena

Teknologiaren garapen bizkorra eta eguneroko esparruan duen erabilera eragina izaten ari da oinarrizko eskubideak baliatzean, esate baterako, intimitaterako eta datu pertsonalak babesteko eskubidea. Bideozaintzako sistema finakoak eta gailu mugikorrek, hala nola telefono, dron eta kamerek irudiak eta soinuak har ditzakete edozein egoera publiko edo pribatutan, eta horrek besteren eskubideei eragin diezaieke. Horiek erabiltzeko, legitimazio nahikoa behar da irudi-soinuak hartzeko eta, bereziki, horiek gero Interneteko hainbat hedabide eta kanaletan eta gizarte-sareetan zabaltzeko.

Administrazio publikoek erabat parte hartzen dute teknologiaren eta, berariaz, bideozaintza-sistemen garapenean. Orobat, bideozaintza erabiltzen dutenean, guztiz bete behar dute legezotasun printzipioa, baita ere herritarren oinarrizko eskubideak eta askatasun publikoak bermatzeko araubidea.

Testuinguru horretan, herritarren segurtasunaren kontzeptua¹ berme gisa jarri da herritarrek Konstituzioan aitortu eta babestutako eskubide-askatasunak libreki baliatu ahal izateko. Poliziak² funtsezko tresna dira baliatze libre hori babesteko, delituekintzak prebenituz, pertsonak babestuz eta arriskuan dauden ondasunak kontserbatuz eta zainduz, batez ere jazarritako ekintzak toki publikoan gertatzen direnean.

Horrela, segurtasun arloan eskumena duten administrazio publikoek irudi-soinuak grabatzeko sistemak erabiltzen dituzte ondasunen eta pertsonen askatasunak hobeto babesteko eta norberaren bizia eta osotasuna zaintzeko.

Hala ere, bideozaintza arloko bermeen araubideak erronka sortu berriei egin behar die aurre, teknologia eta informatika-garapen berdingabeak agertu baitira. Gailu berri eta aurreratuak dira eta polizien jarduerarako oinarrizko printzipioekin bat eto-

¹ Herritarren Segurtasuna Babesteko Lege Organikoak honela dio bere [atarikoan](#): “La Constitución Española de 1978 asumió el concepto de seguridad ciudadana (artículo 104.1), así como el de seguridad pública (artículo 149.1.29.ª). Posteriormente, la doctrina y la jurisprudencia han venido interpretando, con matices, estos dos conceptos como sinónimos, entendiendo por tales la actividad dirigida a la protección de personas y bienes y al mantenimiento de la tranquilidad ciudadana”.

² Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Legearen testu bategina onartzen duen [1/2020 Legegitzako Dekretuaren 2.1 artikuluan](#) ezarritakoaren arabera, eta txosten honen ondorioetarako, Euskal Herriko poliziatzat jotzen dira Ertzaintza Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren mendeko Euskal Autonomia Erkidegoko polizia-kidegoa, eta Udaltzaingoa Euskal Autonomia Erkidegoko toki-erakundearen mendeko toki-poliziaren kidegoak eta zerbitzuak.



riz erabili behar dira, izan ere, beren eginkizunetan erabat bete behar dituzte Konstituzioa eta gainontzeko legeria, Espainiako Konstituzioaren [9.1](#) artikuluan eta Segurtasuneko Indar eta Kidegoen gaineko martxoaren 13ko 2/1986 Lege Organikoaren [5.1.a](#)) artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Ararteko erakundea herritarren eskubideak bermatzearekin sentsibilizatuta dago, administrazioarekiko harremanen esparruan datu pertsonalak eta intimitatea babesteari dagokionez, bereziki intrusiboak izan daitezkeen teknologien bidez datuak hartzen direnean. Horrela, kamera moten (finkoak edo mugikorrak) eta horien erabilera-eremuaren arabera haztatu behar da administrazioek berezko dituzten eskumenak gauzatzeko asmoz, herritarren irudiak eta soinuak grabatzeko teknologiak erabiltzea, batik bat herritarren segurtasunaren arloan. Jokoan dauden interesak haztatzeko orduan, jarduera hori legitimatzen duen oinarri juridikoa aurkitu beharko da, eta, gainera, behar bezala ebaluatu beharko da ea teknologikoki aurreratuak diren tresna horiek erabiltzeko orduan, betetzen ote den proportzionaltasun printzipioa bere bi bertsioetan (egokitasuna eta gutxieneko esku-hartzea) helburu hau lortu nahi denean: arau-hauste penalak prebenitzea, antzematea, ikertzea eta epaitzea edo lehendik ezarritako zigorrak betearaztea.

Esparru horretan kokatzen da azterlan hau egitea. Horren emaitza gisa, zehaztuta geratu dira hobetu daitezkeen zenbait alderdi, eta horiek oinarritzat balio dezakete modu egokian bateragarri egiteko herritarren segurtasuna babestea eta herritarren oinarrizko eskubideak errespetatzea.

Aurkezpen hau bukatu baino lehen, Arartekoak benetan eskerrak eman nahi dizkie Eusko Jaurlaritzaren edo Euskadiko udalen ordezkari gisa azterlan hau egiten lankidetzan aritu diren pertsona guztiei (xehetasun gehiago izateko, ikusi metodologiaren gaineko atala), izan ere, azterlana burutzeko datuak eman dizkigute eta eskaintako informazioak balio handiagoa eman dio oinarrizko eskubideen ikuspegitik idatzitako txosten honi. Milesker denei, Arartekoarekin lankidetzan aritzeko erakutsi duten jarreragatik, beren denbora, ardura eta ahalegina eskainiz azterlan hau argitaratu ahal izateko.

Azterlanak 9 ondorio eta 16 gomendio biltzen ditu; ateratako ondorioekin bat datozen izenburuen bidez antolatuta daude gomendioak.

Manuel Lezertua
Arartekoa



III. Azterlanaren helburua, metodologia eta arau-esparrua

III.1. Helburua

Herritarren segurtasunaren defentsaren bidez pertsonen ondasunak eta askatasunak babestea goragoko ondasun juridiko kolektibo bat izan daiteke, eta, horregatik, araubide berezi bat izan dezake, non bideozaintza-sistemen bidez datu pertsonalak biltzea egokitu daitekeen; hala ere, gaitzen duten arauak datu pertsonalen tratamendua proportzionala, egokia, minimoa eta nahikoa izatea bermatzera bideratutako printzipioak eta arauak ezartzen dituzte, lortu nahi diren helburuak betetzeko.

Toki publikoetan, herritarren segurtasuna babesteko bideozaintza-funtzioak egiteko eskumena polizia dagokie; beraz, toki publikoetan poliziek bideokamerak erabiltzeko araudiak ezartzen duen berme- eta baimen-araubidera egokitu behar da teknologiaren erabilera.

Hala ere, bideozaintzaren izaera dela-eta, neurri hori bereziki kaltegarria eta intrusiboa izan daiteke pertsonentzat, batez ere eremu publikoetan. Horregatik, egokia dirudi alde aurretik gogoeta egitea lortu nahi den norainokoari eta helburuari buruz, irudiak hartzea eta soinuak grabatzea legitimatzeko eta araudiak babesten dituen oinarrizko eskubideekin zentzuzko bizikidetzat lortzeko.

Zehazki, bideozaintzako sistema finkoetan, polizia-uniformeetan instalatutako sistema mugikorretan, telefono mugikorretan, droneetan, makulu eramangarrietan eta pistola elektrikoetan ezarritako irudiak eta soinua jasotzeko aparatuek, batzuetan mugarik gabe denboran zehar grabatzea ahalbidetzen dutenak, kalitate handiko formatuetan, irudia zabaltzekoetan eta aurpegiak ezagutzeko formatuetan, besteak beste, erronka handia dakarkie organo judizialei eta erakunde independenteei, hala nola datuak babesteko agintariei, legediak nekez erantzuten baitie garapen teknologiko berri horiei.

Herritarren segurtasuna helburu duten toki publikoetan bideozaintzaren arloko Europako araurik ez dagoenez, epailearen erabaki urriak daudenez, eta, hala badagokio, bideozaintzako gailu **mugikorren** erregulazioaren gabeziak daudenez, azterlana egin behar da. Azterlan honen helburu nagusia da hainbat ondasun juridiko babesten laguntzea, hala nola interes publikoa eta eskubide eta askatasunen erabilera askea babesteko eta, EKren [104.1 artikuluan](#) arabera, herritarren segurtasuna



bermatzeko eginkizuna, eta, beste alde batetik, intimitaterako eta datuen babeserako eskubidea (EKren [18.1 eta 18.4 artikulua](#), hurrenez hurren). Era berean, herritarren eskubideak bermatzeari buruzko ezagutza eta hobetu daitezkeen alderdiak administrazioen artean aberasten eta zabaltzen lagundu nahi du, eta, gainera, euskal gizarteak bideozaintzaren testuinguruan eskubide eta askatasun publiko horiek erabiltzeko modua ezagutu dezala.

Arartekoak beharrezkotzat jo du herritarren segurtasunaren arloan eskumena duten Euskadiko administrazio publikoei zuzendutako azterlan bat egitea, **toki publikoetan** bideozaintza-sistemen erabilera eta araudian ezarritako berme-sistemaren betetze-maila aztertzeko.

Azterlanaren ardatza da bideozaintza-sistemak ezartzeko erabakiak hartzearekin lotutako elementuak eta horien erabilera gaitzen eta arautzen duten arauak aztertzea.

Zehazki, bideozaintzako kamerak erabiltzearen helburuak eta horiek herritarren eskubideetan duten eragina aztertzen dira, bai eta kamerak instalazio **finko** eta **mugikorren** bidez erabiltzearen eta hedatzearen esparru juridikoa ere, herritarren segurtasunerako, instalazioak, ondasunak eta pertsonak babesteko, trafikoaren diziplinarako eta beste esparru batzuetarako.

Gainera, instalazio **finko** eta **mugikorrak** baimentzeko araubidea, herritarren eskubideei arreta emateko protokoloak, grabazioen segurtasun- eta kontserbazio-neurriak eta datuen babesaren arloko beste arau-alderdi batzuk kontrastatzen dira.

III.2. Azterlanaren metodologia eta egitura

Azterketa egiteko, Arartekoak inkesta bat egin die poliziak dituzten administrazioei; hau da, Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailari eta tamaina eta kokapen desberdineko 14 udali, besteak beste, lurralde historikoetako hiriburuei. [VII. atalean](#), eranskin gisa, parte hartzen duten administrazioei planteatutako gai zehatzak agertzen dira.

Inkesta honako administrazio publiko hauei bidali zitzaion:

1. *Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Saila*
2. *Gasteizko Udala*



3. *Bilboko Udala*
4. *Donostiako Udala*
5. *Barakaldoko Udala*
6. *Portugaleteko Udala*
7. *Getxoko Udala*
8. *Basauriko Udala*
9. *Errenteriako Udala*
10. *Tolosako Udala*
11. *Irungo Udala*
12. *Zumarragako Udala*
13. *Ermuko Udala*
14. *Eibarko Udala*
15. *Laudioko Udala*

Administrazio guztiek osatutako inkesta jaso da.

Hasieran, inkestan datu kuantitatiboak eta kualitatiboak bildu dira, gutxi gorabehera zenbat kamera dauden, motak (**finkoak edo mugikorrak**), non dauden, zer helburu lortu nahi diren eta zergatik erabili diren jakiteko.

Gainera, Arartekoak galderak egin ditu bideozaintzarako eta baimenen araubide orokorra betetzeko gaitasun-eskumenei eta -arauei buruz, sistema herritarren segurtasunerako erabiltzen denean.

Irudien grabazioei dagokienez, zaintzarako barne-protokoloak, kontserbatzeko eta suntsitzeko gutxieneko eta gehieneko epeak egoterekin lotutako gaiak planteatu ditu erakundeak.

Informazioaren eta gardentasunaren arloan, Arartekoak hedabideei buruzko galderak egin ditu, herritarrei bideozaintza-sistemen erabilerari buruzko informazioa emateko. Herritarrek eskubideak baliatzearen aurrean, jakin behar izan da zein barne-unitate arduratzen diren erantzuteaz eta zein irizpiderekin.

Bestalde, datu pertsonalak babestearekin eta informazioaren tratamenduari aplikatu dakizkiokeen segurtasun-neurriekin lotutako alderdiak galdetu dizkie administrazio laguntzaileei, konfidentziasuna bermatzeko.

Azkenik, erakundeak trafikoaren diziplinaren araberako kameraren erabilerari buruzko kontsulta egin du. Zehazki, bideozaintza baimentzeko ebazpenei eta Bideozaintza



eta Askatasunen Batzordeari jakinarazteari buruzko galderak egin dizkio Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailari.

Txostenaren egiturari dagokionez, lehenik eta behin, bildutako datuak aurkezten dira, administrazio laguntzaileei bidalitako galdetegiaren eta lortutako informazioaren hasierako balorazioaren bidez, bederatzi kontrol-elementuz egituratuta.

Berrikusitako puntuak honako hauek aztertzeko eta kontrastatzeko oinarri gisa egituratzen dira: (1) bideozaintzaren arloko araudia betetzeari buruzko alderdi orokorrak, (2) bideozaintza-sistemak ezartzeko erabakiak gaitzen dituzten helburu eta arauak, (3) bideozaintzaren erabileraren mende jartzen den baimen-araubidearen ezagutza- eta betetze-maila, eta, gainera, (4) bideozaintzaren erabilera nagusi izan behar duen proportzionaltasun-printzipio orokorrak kontrastatzea.

Bestalde, bideozaintzako grabazioen kudeaketarekin eta gordetzeko epeekin (5) lortutako alderdiak aztertzen dira.

Era berean, (6) informazio-printzipioa egokitzat jo da, eragina baitu administrazioaren jardunaren gardentasunean.

Era berean, garrantzitsua da berrikustea nola artatzen diren herritarren eskubideak (7), datu pertsonalak agertzen diren grabazioekin lotuta.

Azkenik, irudiak jasotzeak eta, batzuetan, herritarrek hitz egiteak, datuen babesa-ren arloko oinarriko betebeharrak (8) berrikusteko beharra dakar, bai eta legitimazioa duten interesdunen datuen kontserbazio osoa eta irisgarria zaintzeko hartzen diren (9) segurtasun-neurriak berrikusteko ere.

Horren ondorioz, azterketa-puntu edo -elementu bakoitzak egindako ebaluazioen ondorioak eta administrazio eskudunei zuzendutako gomendio orokorrak ematen dira, bideozaintzaren arloan sektore publikoaren jarduna hobetzeko oinarri izan daitezkeenak, eta, bereziki, herritarren segurtasunerako erabiltzeko.

III.3. Esparru juridikoa

Segurtasun publikoaren arloan poliziek egiten duten prebentzio-jarduerak aukera ematen du bideozaintza-sistemak erabili eta instalatzeko, ikerketa penalerako bitarteko gisa, eta, oro har, [LOVFC](#)sak arautzen du.



[596/1999 Errege Dekretuak](#) bide eta eremu publikoak modu baketsuan erabiltzea eta segurtasun publikoarekin lotutako delitu, falta eta arau-hausteak prebenitzea lortu nahi duen erregelamendu baten bidez garatzen du LOVFC Sak, besteak beste, irudiak eta soinua jasoz, erreproduzitzen eta tratatuz, LOHParen [2.2 artikuluan](#) aurreikusitako herritarren norberaren irudirako eskubidea legez kontra ez sartzeko, *“No se apreciará la existencia de intromisión ilegítima en el ámbito protegido cuando estuviere expresamente autorizada por Ley (...)”*.

Euskadin, [168/1998 Dekretuaren](#) eta orduko Herrizaingoko sailburuaren [2011ko apirilaren 15eko Aginduaren](#) bidez garatu zen LOVFC S. Agindu horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziak bideokamera finkoak instalatzeko eta erabiltzeko informazio-kartelen edukia eta diseinua ezarri ziren.

Gainera, maiatzaren 26ko [7/2021 Lege Organikoak](#), Arau-hauste penalak prebenitzeko, antzemateko, ikertzeko eta epaitzeko eta zigor penalak betearazteko tratatutako datu pertsonalak babesteari buruzkoak, bideozaintzaren arloan bete beharreko berme-araubideari buruzko alderdi aipagarriak sartu ditu, bai eta datu pertsonalen tratamenduari buruzko segurtasun-neurriei eta datuen babesari buruzkoak ere, legearen helburuekin.

Datuen babesari dagokionez, bideozaintzak berekin dakarrenez datuen tratamenduen arduradunek irudi-datuak eta, hala badagokio, ahotsa biltzea eta tratatzea, beharrezkoa da administrazio publiko eskudunei aplikatu dakizkiekeen arau eta xedapenei erantzutea. Zehazki, [DPBEDBLOan](#), [DBEOn](#) eta [DBELan](#)³ aurreikusitakoa.

Azterlanak arauak betetzeari eta aipatutako arauetan aurreikusitako berme-sistemari buruzko alderdiak jorratzen ditu, zehazki:

a) Helburuak eta arau aplikagarriak

Bideozaintzaren bidez lortu nahi diren helburuek kasu bakoitzean aplikatu beharreko arauak zehazten dituzte. Bereizi egin behar dira, batetik, instalazioen, ondasunen eta pertsonen segurtasuna zaintzeko irudiak, datuak babesteko araubide orokorren mende daudenak, eta, bestetik, herritarren segurtasunerako bideozaintzaren helburuak, horien araubide bereziak ezartzen baitu horiek erabiltzea poliziei bakarrik dagokiela.

³ Dokumentu hau argitaratzen den egunean, Legebiltzarrean izapidetzen ari dira Datu Pertsonalak Babesteko Lege berria eta Datuak Babesteko Euskal Agintaritzarena.



b) Baimenen araubidea

Euskadin, [168/98 Dekretuak](#) garatzen du Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziak toki publikoetan bideokamerak baimentzeko eta erabiltzeko araubidea. Dekretu horren arabera, Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Saileko Segurtasun sailburuordearen eskumena da Ertzaintzak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziako udaltzaingoez bideokamerak modu **finkoan** instalatzeko baimena ematea, instalazio **finkoen** baimenen erregistroa eramatea eta hamabostean behin BABari informazioa ematea. Pribatutasuna babesteko kontsulta-organo bat da, Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziak toki publikoetan bideokamerak erabiltzeari dagokionez herritarrek norberaren irudirako, intimitaterako eta duintasunerako duten eskubidearen bermea indartzeko (Informazio gehiago: <https://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritz/-/informazioa/bideozaintza-eta-askatasun-batzordea/>).

Gainera, bideokamera mugikorren erabilerari dagokionez, espezifikotasun bat ezarzen da; izan ere, [168/98 Dekretuaren](#) 2.2 artikulua arabera, herritarren segurtasuna babesteko eta kriminalitatea prebenitzeko ardura duten Segurtasun Saileko zuzendariak eman ahal izango dute baimena, eta hierarkikoki mendekoak diren horien polizia-arduradunei eskuordetu ahal izango dizkiete, eta gutxienez lurralde historiko bati eman ahal izango dizkiete eskumenak.

c) Proporzionaltasun-printzipioa

Herritarren segurtasunerako bideokamera **finko** eta **mugikorrak** instalatzeko baimek hainbat irizpide bete behar dituzte, hala nola eraikin eta instalazio publikoen eta horien sarbideen babesa bermatzea; defentsa nazionalerako erabilgarriak diren instalazioak babestea; herritarren segurtasunaren aurkako arau-hausteak egiaztatzea, eta pertsonen eta ondasunen kalteak eragitea prebenitzea, arrisku zehatzen bat gertatzea, eta, batez ere, LOVFCSaren [6. artikuluko](#) printzipioak, proporzionaltasun-printzipioa arautzen baitu egokitasunaren eta gutxieneko esku-hartzearen bertsio bikoitzean, honako hauek kontuan hartuta:

“- La idoneidad determina que sólo podrá emplearse la videocámara cuando resulte adecuado, en una situación concreta, para el mantenimiento de la seguridad ciudadana, de conformidad con lo dispuesto en esta Ley.

- La intervención mínima exige la ponderación, en cada caso, entre la finalidad pretendida y la posible afectación por la utilización de la videocámara al derecho al honor, a la propia imagen y a la intimidad de las personas”.



Gainera, 4. atalak bideokamerak erabiltzeko **eskakizuna** ezartzen du: *“un razonable riesgo para la seguridad ciudadana, en el caso de las fijas, o de un peligro concreto, en el caso de las móviles”*.

d) Grabazioen kudeaketa eta zaintza eta gordetzeko epeak

Herritarren segurtasunaren eta kudeaketako eta gordetzeko epeen arrazoiengatik egindako grabazioen kudeaketari dagokionez, bai LOVFCS bai 7/21 Lege Organikoak gehieneko gordetzeko epeak ezartzen dituzte, eta grabazioak behar bezala zaintzeko betebeharra ezartzen dute, bai eta irudiak zainduko dituen organo edo agintaritzak ezartzen dituen arauzko xedapenak sortzeko beharra ere.

e) Informazio-printzipioa

LOVFCSak ezartzen du herritarrei informazioa eman behar zaiela *“de manera clara y permanente de la existencia de videocámaras fijas, sin especificar su emplazamiento, y de la autoridad responsable”* ([9. artikulua](#)). Gainera, Euskadiko lurralde-eremuan, 168/98 Dekretuak modu berean arautzen du betebeharr hori ([8. artikulua](#)).

7/2021 Lege Organikoaren [16.5 artikulua](#) ere adierazten du *“Los ciudadanos serán informados de manera clara y permanente de la existencia de estas videocámaras fijas, sin especificar su emplazamiento, así como de la autoridad responsable del tratamiento ante la que poder ejercer sus derechos”*, baina instalazio **finkoei** buruzko xedapenean kokatzen da.

Gainera, Segurtasun Sailaren [2011ko apirilaren 15eko Aginduak](#), Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziak bideokamera **finkoak** instalatzeko eta erabiltzeko informazio-kartelen edukia eta diseinua ezartzen dituenak, arestian aipatutako aginduak garatzen ditu, eta Euskadiko poliziak bide eta eremu publikoetan egindako bideozaintzari buruz ohartarazi behar duten kartelen ezaugarriak arautzen ditu.



f) Eskubideen erabilera eta arreta

LOVFCsak eta 168/98 Dekretuak arautzen dituzte herritarrek bideo-grabazioei, horiek erabiltzeko moduari eta administrazio publikoek bete beharreko arreta-araubideari buruz balia ditzaketen datuak eskuratzeko eta ezerezteko eskubideak. 7/21 Lege Organikoak ere arautzen ditu interesdunen eskubideak baliatzeko baldintza orokorrak.

g) Datuak babesteko oinarritzko betebeharrak (tratamendu-jardueren erregistroa)

Datuak babesteko indarrean dagoen araudiak ([DBEOren 30. artikulua](#) eta [DPBED-BLOaren 31. artikulua](#)) ezartzen du datu pertsonalak tratatzeko jardueren erregistroak sortu behar direla, datu-bilketaren arduradunek egiten dituzten datu pertsonalen tratamenduen egitura, helburuak eta zilegitasuna definitzeko, besteak beste. Sektore publikoaren eremuan, gainera, sortutako tratamendu-jarduerak dagozkien gardentasun-atarietan argitaratu behar dira, GGOLaren [6 bis artikulua](#) arabera.

h) Norberaren datuen tratamenduari aplikatutako segurtasun-neurriak

Irudi- eta ahots-datu pertsonalen tratamenduak segurtasun-neurriak aplikatzeko beharra dakar, datuak babesteko araudian xedatutakoaren arabera. DBEOK erantzukizun proaktiboaren printzipioa sartzten du. Printzipio horrek esparru eta betebeharrak bat ematen dio tratamenduaren arduradunari, neurri egokiak hartzeko, bai teknikoak, bai antolakuntzakoak eta eraginkorrak, tratatutako datuen arriskuari egokitutako segurtasuna bermatzeko.

Zehazki, DBEOren 32. artikuluan honako hau ezartzen da: *“Teniendo en cuenta el estado de la técnica, los costes de aplicación, y la naturaleza, el alcance, el contexto y los fines del tratamiento, así como riesgos de probabilidad y gravedad variables para los derechos y libertades de las personas físicas, el responsable y el encargado del tratamiento aplicarán medidas técnicas y organizativas apropiadas para garantizar un nivel de seguridad adecuado al riesgo”*.

Segurtasun-neurriari dagokienez, datuak babesteko araudiak [SENe](#)an xedatutakora jotzen du administrazio publikoek datu-tratamenduak egiten dituztenean, DPBED-BLOaren [Lehen Xedapen Gehigarrian](#) aurreikusten den bezala.



Hala ere, neurri horiek 7/21 Lege Organikoaren IV. kapituluaren arautzen diren berariazko betebeharrekin bateratu behar dira, batez ere datuen babesari buruzkoak, hala nola tratamendu-jardueren erregistroak sortzeari buruzkoak, eraginaren ebaluazioak, kontrol-agintaritzari aldeztu aurretik egindako kontsultak, segurtasun-arrakalen jakinarazpenak, eta abar.

III.4. Arartekoaren erabakiak gai honetan

Azterlan honek, funtsean, eremu publikoetan bideozaintzako sistema **finko** zein **mugikorrek** instalatu eta erabili aurreko berme-sistema betetzen den aztertea du helburu.

Arartekoak hainbat doktrina eta ebazpen eman ditu bideozaintza-kamerak erabiltzeari buruz, batez ere jardun irregularrak prebenitzeko eta polizia-langileak funtsik gabeko kexa edo salaketen aurrean babesteko. Ildo horretan, gogorarazi behar da Arartekoak, urriaren 28ko 7/2011 Gomendio Orokorren bidez. Polizia-jarduketan eta -jardunen berme-sistemak⁴, 8. epigrafean, atxilotuen grabazioei buruz aintzat hartu beharreko elementuak sartu zituen, atxilotuen osotasunaren eta duintasunaren aurkako jardunbideak prebenitzeko bitarteko gisa, bai eta tresna egoki bat ere, eremu horretan izan daitezkeen jardun irregularrak argitzeko eta polizia-funtzionarioak funtsik gabeko balizko kexa edo salaketetatik babesteko.

Laburbilduz, gomendio orokorrean, aipatutako 8. epigrafean, bideo-grabazioko sistemak hainbat baldintza bete behar zituela esaten zen:

- a) grabazioa atxilotetaren unean bertan hastea;*
- b) poliziaren bulegoko gela, atxiloteta-eremu eta polizia-agenteen eta atxilotuaren arteko elkarrekintzak gertatzen diren leku guztiak barne hartzea, atxilotuak bere intimitatea babesteko aurkako esaten ez badu behintzat;*
- c) irudiak eta soinua gaineratzea;*
- d) defentsaren eta giza eskubideak bermatzeko erakundearen esku egotea; eta*
- e) gomendioan ezarri genituen gutxienezko eskakizunak aintzat hartzea.*

Grabatutako materialaren iraupena bereziki azpimarratu nahi dugu, hainbat bider horren inguruan arreta deitu dugu-eta; izan ere, epe hori egokia izan behar da, grabatutako jardunen ondoriozko erantzukizun administratibo eta penal posibleak preskribatzeko gehienezko epealdia errespetatzeko nahikoa denboraz gordeko

⁴ <https://www.ararteko.eus/eu/arartekoaren-72011-gomendio-orokorra-urriaren-28koa-0>.



delá bermatu behar da eta, orobat, giza eskubideak bermatzeaz arduratzen diren erakundeek (Ararteko erakundeak, besteak beste) esku hartzeko duten epea aintzat hartu behar da. Beharrezkoa da, gainera, aipaturiko eremuetan esku-hartzerik izan bada horiek irauten duten bitartean grabazioak gordeta egongo direla bermatzea.”

Funtsean, aipatutako gomendioa pertsona atxilotuari eta polizia bermeak ematean oinarritzen zen, atxilotuen irudiak behar bezala kudeatuz eta gordez. Gai hori ez da azterlan honen ardatza, baina, edonola ere, gaur egun erabat indarrean dago, dokumentu hau osatzen baitu.

Gomendio hori Arartekoaren aurreko doktrina-irizpideen ondorio zen, eta, laburbilduz, egindako hainbat jarduketaren ondorioz legebiltzarrari aurkeztutako urteko txostenetan islatu ziren.

Zehazki, 2006an⁵ eta 2007an⁶ aurkeztutako urteko txostenak nabarmendu behar dira. Txosten horietan, Ertzaintzaren eta Udaltzaingoaren polizia-etxe eta atxilotu-zentroetara egindako bisiten alderdi garrantzitsuak azaldu ziren, bai eta administrazioek Arartekoak egindako gomendioei erantzuteko egindako ekintzak ere, ziegetako, geletako eta gainerako barne-bulegoetako korridoretan kokatutako bideo-grabazioetan oinarritutako kontrol-sistemei dagokienez.

Aipatutako txosten eta jarduketetan, polizia-bulegoetan kokatutako grabazio-sistema horien gutxieneko elementuak eta eraginkortasun-baldintzak nabarmendu ziren.

Gomendio orokorra eman ondoren, atxilotze-zentroak bisitatzen eta barruko geletan bideo-grabazioko sistemak aztertzen jarraitu da, eta bideo-grabazioko mekanismoak erabiltzean kontuan hartu beharreko oinarritzko eskubideak babesteko irizpide bermatzaileak jaso dira dagozkien txostenetan.

⁵ <https://www.ararteko.eus/eu/eusko-legebiltzarrarentzako-txostena-2006>.

⁶ <https://www.ararteko.eus/eu/eusko-legebiltzarrarentzako-txostena-2007>.



IV. Azterlanaren emaitzak eta ebaluazioa

IV.1. Kamera kopuruari, motari eta kokapenari buruzko estatistikak

IV.1.1. Emaitzak

Azterlanean parte hartu duten administrazio publikoek honako datu hauek eman dituzte, gutxi gorabehera, kamera edo bideozaintza-sistema **finko** eta **mugikorren** kopuruari eta kokapen-lekuei buruz.

Administrazioa	Kamera kopurua, gutxi gorabehera	Kamera finkoak eta mugikorrak	Kameren kokapena
Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Saila ⁷	Ertzaintzak 2.037 instalazio finko kudeatzen ditu eremu publikoetan, eta kamera mugikorren 134 erabileraren berri ematen du, 2022an arriskua edo ekitaldiak direla eta.	Biak	Instalazio komunak, hala nola bulegoak, errepideak, kaleak edo eremu publikoak (delitu-jarduera esanguratsua), segurtasun publikoa babesteko egokia eta proportzionala denean. Ertzaintzaren aldetik herritarren segurtasuna bereziki babestea eskatzen duten bide eta eremu publikoak.
Gasteizko Udala	600	Biak	Instalazio komunak, hala nola bulegoak, kirol-esparruak, kultura-eraikinak, errepideak, hirigunea; beste eremu publiko batzuk, hala nola eskailera mekanikoak, hiri-garraioa; barruko lekuak, hala nola lantokiak, korridoreak, aretoak, bulegoak, liburutegiak, igerilekuak, igogailuak. Halaber, hiriguneetan matrikulak hartzen dituzten trafikoa erregulatzeko kamerak.

⁷ Segurtasun Sailak ez du ematen DBEOrri lotutako barne-bulegoetako trafikoko edo bideozaintza finkoko diziplinari buruzko kamerei buruzko informaziorik.



Administrazioa	Kamera kopurua, gutxi gora-behera	Kamera finkoak eta mugikorak	Kameren kokapena
Bilboko Udala	265	Biak	Instalazio komunak, hala nola bulegoak, eraikin kulturalak eta hiriguneak. Polizia-etxea, eta barruko irudiak, hala nola, lantokiak, korridoreak, aretoak, bulegoak, liburutegiak, igerilekuak, igogailuak, etab., hiri-kaskoetako edo aparkalekuetako trafikoa erregulatzeko matrikulak hartzea.
Donostiako Udala	350 ⁸	Biak	Instalazio komunak, hala nola bulegoak, kirol-esparruak, kultura-eraikinak, errepideak eta hirigunea. Barruko irudiak: lantokiak, korridoreak, aretoak, bulegoak, liburutegiak, igerilekuak, igogailuak, etab.
Barakaldoko Udala	30	Finkoak	Instalazio komunak, hala nola bulegoak, errepideak eta hiriguneak eta beste eremu publiko batzuk, hala nola garajea, korporazioko kideek erabilitakoa. Beste udal-eraikin batzuetan antzeman da, hala nola kultura-instalazioetan (ikus tratamendu-jarduera) eta udal-esparruetan kokatutako kamera batzuetan barne-irudiak jasotzen dira, hala nola lantokiak, korridoreak, aretoak, bulegoak, liburutegiak, igerilekuak, igogailuak, etab.
Portugaleteko Udala	75	Finkoak	Instalazio komunak, hala nola bulegoak, kultur eraikinak, errepideak, parkeak, igogailuak, hiriguneak, Udala/Bake Epaitegia/Udaltzaingoa/Herritarren Arretarako Bulegoa.
Getxoko Udala	265	Finkoak	Instalazio komunak: bulegoak, kirol-esparruak, kultura-eraikinak, errepideak, parkeak, igogailuak, barruko lekuak, aparkalekuak.
Basauriko Udala	127	Biak	Instalazio komunak: bulegoak, kirol-esparruak, kultura-eraikinak, igogailuak, hiriguneak eta arrapala mekanikoak. Komisaria. Baita barruko lekuak ere.
Errenteriako Udala	103	Biak	Instalazio komunak: bulegoak, kirol-esparruak, errepideak, igogailuak, hirigunea, polizia-etxea, hiri-garraioa.
Tolosako Udala	14	Finkoak	Instalazio komunak: bulegoak, kirol-esparruak, kultura-eraikinak (beste atal batean ezetz esaten da) eta hiriguneak.

⁸ Galdera-sortari emandako beste erantzun batean 170 adierazten da.



Administrazioa	Kamera kopurua, gutxi gorabehera	Kamera finkoak eta mugikorak	Kameren kokapena
Irungo Udala	84	Finkoak	Instalazio komunak, hala nola bulegoak, kirol-esparruak, errepideak, kultura-erakundeak, parkeak, hiriguneak, polizia-etxea, musika eskolan, Behobiako adin nagusien zentrua, Zubia zentrua, baita barruko lekuetan ere.
Laudioko Udala	28	Finkoak	Kirol-esparruak, errepideak, igogailuak, hiriguneak, bulego-erakundeak. Udal barrutietan kokatutako kamera batzuek barruko irudiak hartzen dituzte: lantokiak, korridoreak, aretoak, bulegoak, liburutegiak, igerilekuak, igogailuak, etab. Ez dago aparkalekuan edo hiriguneetan.
Zumarragako Udala	71	Finkoak	Kirol-esparruak, kultura-erakundeak (Antio interpretazio zentroa), igogailuak, Zelai Arizti aparkalekua, Intermodaleko aparkalekua, polizia-etxea.
Eibarko Udala	40	Finkoak	Kirol-esparruak, kultura-erakundeak, igogailuak, garbiguneak, udal-erakundeak, polizia-etxea.
Ermuko Udala	138	Biak	Instalazio komunak: bulegoak, kultura-erakundeak, errepideak, igogailuak, aparkalekuak, erakunde publikoak, arrapala mekanikoak, polizia-etxea. Hirigunean matrikulak hartzea.

IV.1.2. Azterketa eta balorazioa

- Kamera kopurua, gutxi gorabehera

Arartekoaren erakundeak pertsonen irudiak hartzeko sistemak instalatzeko erabakia hartzeko arrazoiak hurbildu nahi du, beste neurri edo konponbide batzuen kaltean, eta erabaki hori arautan alde aurretik jasotako irizpide tekniko edo juridikoen arabera den ulertu nahi du. Izan ere, administrazioaren irizpide diskrezionala araudian aurreikusitako eskakizunetara egokitu behar da, beste oinarrizko eskubide batzuetan (intimitatean, esaterako) duen eragina haztatu ondoren.

Azterlanean parte hartu duten erakunde publikoek emandako kamera-kopuruari dagokionez, nabarmendu behar da ez dagoela alde aurreko estandarrik eta haien erabilerari buruzko erabakiak hartzeko duten eskumen-autonomia.



Azterlanaren helburu nagusia kontuan hartuta, herritarren segurtasunerako bideozaintzaren erabilera aztertzea, kameren hedapenarekiko korrelazioaren hipotesi bat gatazka-indizeetan aurki daiteke.

Ertzaintzaren web orrian argitaratutako delituen estatistiken arabera, azken urteetan mota eta udalerrien arabera, badirudi biztanleria gehien duten lurralde historikoetako herri eta hiriburuetan⁹ korrelazio txikia dagoela estatistiketan deskribatutako delitu-jardueraren eta bideozaintzaren erabileraren artean.

Adibidez, Gasteizen, 1.000 biztanleko arau-hausteen tasa 41,09koa da 2022an, eta 600 kamera inguru dituztela adierazi dute, horien artean, polizia-uniformeetako sistema **mugikorrak**, eta, bestalde, Bilbon, 66,80koa da tasa, eta 265 kamera inguru erabiltzen direla adierazi dute. Donostian, tasa 40,71koa da, eta 350 kamera inguru dituela adierazi da. Barakaldon, 30 kamera finko erabili dira erakunde honi emandako datuen arabera, eta biztanle bakoitzeko arau-hauste tasa 53,48koa da 2022an; Getxon, ordea, 265 kamera inguru daude, eta 1.000 biztanleko arau-hauste tasa 34,58koa izan zen 2022an.

Bestalde, 20.000 eta 50.000 biztanle arteko udalerriei dagozkien estatistiken arabera¹⁰, 2022an 1.000 biztanleko arau-hausteen tasa 46,57 da Basaurin, 47,39 Portugaleten, 47,98 Eibarren, 31,43 Ermuan¹¹ eta 36,21 Erreterian. Kamera kopurua eta erabilera motak desberdinak dira udalerririk horien artean; Basaurin 127 kamera dituztela adierazi da, eta, gainera, polizia-uniformeetan jarritako gailu **mugikorrak** erabiltzen direla. Portugaleten 75 kamera finko daude, Erreterian eta Ermuan 103 eta 138 kamera **finko** eta **mugikor**, hurrenez hurren. Eibarren 40 kamera finko baino ez dira erabiltzen.


Hainbat toki-erakundetako poliziek zenbat instalazio eta lekutan erabiltzen dituzten bideozaintza-sistema **finkoak** eta **mugikorrak**, aldeak daude hainbat herriren artean. Erroldatutako biztanle bakoitzeko kameraren ratioari buruzko estatistikak ez dirudi biztanleriaren bolumena lotzen duenik herritarren segurtasuna bermatzeko arrazoizko irizpide gisa, nahiz eta pentsa daitekeen biztanle gutxiago izateak eragin txikiagoa izan dezakeela herritarren segurtasunean.

Grafiko honek aurrez adierazitakoa erakusten du:

⁹ <https://www.ertzaintza.euskadi.eus/lfr/documents/62347/7799527/02+Delitos+por+municipios+1+19+21+22+e.jpg/1e3cc675-2af2-5a53-9cce-8de16a9ed8d2?t=1683014131271>.

¹⁰ <https://www.ertzaintza.euskadi.eus/lfr/documents/62347/7799527/03+Delitos+por+municipios+2+19+21+22+e.jpg/8a355a54-b943-1195-9287-c2cf842af74d?t=1683014133044>.

¹¹ [https://www.ertzaintza.euskadi.eus/lfr/documents/62347/7614212/Euskal Poliziaren 2022ko delikuentzia-memoria.pdf/a3a3f6f9-e6f0-03af-fe37-7fde57a6e18f?t=1679998743297](https://www.ertzaintza.euskadi.eus/lfr/documents/62347/7614212/Euskal%20Poliziaren%202022ko%20delikuentzia-memoria.pdf/a3a3f6f9-e6f0-03af-fe37-7fde57a6e18f?t=1679998743297).



Gasteiz bezalako hiriburuetan Bilbon baino kameren hedapen handiagoa dago. Getxo, Errenteria, Basauri, Zumarraga edo Ermua bezalako udalerrietan bideozaintza-sistemen ezarpenaren ehunekoak nabarmentzen dira, errolatutako biztanleriarekin alderatuta. Hedapena hainbat irizpide objektiboren ondorio izan daiteke, hala nola bideozaintzaren erabilera eta irismena zabaltzeko motibazioaren ondorio; esate baterako, langilerik ezaren, udalrriaren hedapenaren, trafikoaren joan-etorriaren, hiri-gunetik urrun dauden industrialdeen edo enpresen presentziaren ordezko aldi baterako aukera gisa, baina, nolahi ere, aipagarria dirudi zenbait herritan bideozaintzaren erabilera intentsiboa.

Hiri eta herri handien artean kontrastea dago, ez bakarrik kamera kopuruan, baita erabilera motan ere; izan ere, Gasteizen, gainera, bideozaintzara jotzen da polizia-uniformeen bidez, baina ez beste herri batzuetan, itxura batean, herritarren segurtasunean eragin handiagoa baitute. Basauri eta Ermua bezalako udalerrietan ere bideozaintzara jotzen da polizia-uniformeen bidezko kameren bidez, nahiz eta populazioa eta delinkuentzia-tasa horrelako zaintza-sistemak erabiltzen ez diren beste herri batzuetakoaren antzekoa izan.

Hala, erakunde honen ustez, azterlanean parte hartu duten erakunde publikoek erabiltzen duten gutxi gorabeherako kamera-kopurua ez da gatazka-indizeekin soilik lotuta egon behar; aitzitik, horien erabilera eragin duten hainbat judizio- edo haztapen-elementu egon daitezke. Adibidez, tokiagatik eta eremuagatik, administrazioak



dituen giza eta polizia-baliabideengatik, arriskugarritasun-indizeengatik edo aurkeztutako salaketengatik, eta abar, proportzionaltasun-printzipioa aplikatuz.

- Bideozaintza-sistemen kokapena

Galdetegian, erakunde honek ez du bereizketarik egin administrazioek bideozaintza-sistemak erabiltzeko eta ezartzeko lortu nahi dituzten helburuei eta kokapenari dagokionez, baina, geroago ikusiko denez, aukeratutako erabileraren arabera, helburua eta legitimazioa desberdinak izan daitezke aplikatzekoak diren arauen arabera, eta, beraz, irizpide eta berme espezifikoak bete behar dituzte.

Zabaldutako kameraren kokapenari dagokionez, Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailak adierazitakoa nabarmendu behar da. Horren arabera, bideozaintzaren erabilera egokia eta proportzionala da eremu publikoetan, hala nola bulegoetako instalazio komunetan, errepideetan, kaleetan edo delitu-jarduera esanguratsua egiten den bideetan.

Hurrengo ataletan azaltzen den bezala, herritarren segurtasunean oinarritutako edo babestutako udal eraikin eta instalazioetan bideozaintza-sistemak erabiltzeak berme eta betekizun zorrotzen erregimenari erantzun behar dio, herritarrentzako arrazoizko arrisku edo arrisku zehatzari erantzunez eta, gainera, proportzionaltasun-printzipioa betez. Logikoa denez, kamerak hiriguneetan trafikoa kontrolatzeko eta trafiko-olderako erabiltzeak edo matrikulak edo plano orokorrak soilik hartzen dituzten trafikoaren diziiplina- eta segurtasun-arrazoiengatik erabiltzeak ez dakar eragin berezirik herritarren intimitatean edo datu pertsonalen babesean.

Azterlanean parte hartzen duten toki-erakundeek, udalerrien ezaugarriak kontuan hartuta, bideozaintza-sistemak hainbat toki eta instalaziotan kokatzea aipatzen dute, hala nola polizia-etxeetan, bulegoetako udal-eraikinetan, kirol-esparruetan, kultura-eraikinetan eta liburutegietan, igogailuetan, aparkalekuetan, igerilekuetan, hiriguneetan, eskailera mekanikoetan, hiri-garraioan eta barruko lantokietan, hala nola aretoetan, korridoreetan, bulegoetan, etab.

Erakunde honek agerian uzten du irudiak jaso direla arrapala mekanikoetan, udal-liburutegietan, hiri-garraioetan, kirol-esparruetan edo igerilekuetan, eta badirudi toki horietan ez dagoela arrazoizko arriskurik herritarren segurtasunerako.



Kasu horietan, egokia dirudi irudiak hartzeko modua modulatzeko tokiaren eta behaketa-denboraren arabera, eta datuak babesteko araudian babestea, instalazioen, ondasunen eta pertsonen segurtasuna zaintzeko, herritar guztien intimitatea eta datu pertsonalak errespetatuko dituen aukera gisa, eta, bereziki, adingabeena eta desgaitasuna duten pertsonena.

lido horretan, azterlan honek, ondoren, irudiak hartzeko erabakia alde aurretik baloratzeko oinarritzat jotzen diren proportzionaltasun-arauak aipatzen ditu, instalazioak, ondasunak eta pertsonak babesteko orduan intimitaterako hain intrusiboak eta kaltegarriak ez diren bitartekoak erabiltzea posible dela uste baita.

Gainera, udal-eraikinetako eta -instalazioetako barruko lekuetan, irudiak herritarren eta langileen artean hartzen direnean, horrek eragina izan dezake alde aurretik bete beharreko legitimitateari eta proportzionaltasunari buruzko arauak ezartzen dituzten arau eta xedapenetan araututako beste eskubide batzuetan. Hain zuzen ere, DPBEBLOaren [89. artikulua](#), lantokian bideozaintzako eta soinuak grabatzeko gailuak erabiltzearen aurrean intimitaterako eskubideari buruzkoak, honako hau ezartzen du: *“Enplegatzaileek zilegi izango dute kamera-sistemen bidez edo bideo-kameren bidez lortutako irudiak tratatzea, langileak edo enplegatu publikoak kontrolatzeko, Langileen Estatutuaren 20.3 artikuluan eta funtzio publikoaren gaineko legerian, hurrenez hurren, ezarritako eginkizunak betetzen dihardutenean, baldin eginkizun horiek haien lege-esparruaren barruan eta esparru horri dagozkion muga barruan egikaritzen badira. Enplegatzaileek neurri horren jakitun ipini behar dituzte langileak edo enplegatu publikoak eta, hala badagokio, haien ordezkariak ere, alde aurretik, berriaz eta argi eta labur”*. Eta Euskadiko funtzio publikoari buruzko araudiak berak euskal enplegatu publikoen eskubide indibidualtzat hartzen du intimitateari buruzkoa¹².

Hori dela eta, nahiz eta azterlan honen xede nagusia ez izan, azpimarratu behar da langileak egon daitezkeen barruko eremuetan bideozaintzak pertsonen intimitatea errespetatu behar duela, eta lortu nahi den helburua lan-kontrola bada, horretarako arauetara egokitu behar dela.

Beraz, segurtasun-helburuekin barruko leku horietan kokatutako kamerek pertsona fisikoen intimitatea errespetatu behar dute kasu guztietan, baina kontraste-arauek babestu beharreko ondasun juridikoen arabera betekizun espezifikoak ezartzen dituzte.

¹² [Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legearen](#) 161.h) artikulua.



IV.2. Bideozaintzaren helburuak eta gaitzen duten arauak

Atal honetan, administrazio publikoek lortu nahi dituzten helburuen eta bideozaintzarako gaitzen duten arauen emaitzak eta ebaluazioa eskaintzen dira.

IV.2.1. Emaitzak

Administrazioa	Helburuak eta gaitzen duten arauak
Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Saila	<ul style="list-style-type: none"> - Instalazioen, ondasunen eta pertsonen segurtasuna babestea (DPBEDBLO) - Herritarren segurtasuna (LOVFCS-7/21 Lege Organikoa) - Trafikoaren diziplina (LOVFCS-168/98 Dekretua)
Gasteizko Udala	<ul style="list-style-type: none"> - Instalazioen, ondasunen eta pertsonen segurtasuna babestea (DPBEDBLO) - Herritarren segurtasuna (LOVFCS-7/21 Lege Organikoa) - Trafikoaren diziplina eta trafikoaren erregulazioa hiriguneetan (LOVFCS-168/98 Dekretua)
Bilboko Udala	<ul style="list-style-type: none"> - Instalazioen, ondasunen eta pertsonen segurtasuna babestea (DPBEDBLO) - Herritarren segurtasuna (LOVFCS-7/21 Lege Organikoa) - Trafikoaren diziplina eta trafikoaren erregulazioa hiriguneetan (LOVFCS-168/98 Dekretua)
Donostiako Udala	<ul style="list-style-type: none"> - Instalazioen, ondasunen eta pertsonen segurtasuna babestea (DPBEDBLO) - Herritarren segurtasuna (LOVFCS-7/21 Lege Organikoa) - Trafikoaren diziplina eta trafikoaren erregulazioa hiriguneetan (LOVFCS-168/98 Dekretua) - Itsasertzeko linearen monitorizazioa eguraldi txarrean¹³
Barakaldoko Udala	<ul style="list-style-type: none"> - Instalazioen, ondasunen eta pertsonen segurtasuna babestea (DPBEDBLO) - Herritarren segurtasuna (LOVFCS-Ez dute 7/21 Lege Organikoa adierazten) - Trafikoaren diziplina eta trafikoaren erregulazioa hiriguneetan (LOVFCS-168/98 Dekretua)
Portugaleteko Udala	<ul style="list-style-type: none"> - Instalazioen, ondasunen eta pertsonen segurtasuna babestea (DPBEDBLO)

¹³ Donostiako Udalak adierazi du kostaldea monitorizatzeko aukera ematen dien kamera-sistema bat duela, eguraldi txarraren aurrean erabakiak hartzeko. Helburua pertsonen irudiak eta soinuak hartzea ez denean eta pertsona horiek zuzenean edo zeharka identifikatzea ezinezkoa denean, agian ez dira aplikagarriak izango azterlan honetan emandako arauak eta irizpideak, eta, agian, zaintza bat dator beste eskumen batzuekin, hala nola babes zibilarekin, segurtasun publikoaz bestelako interes publikoko misioarekin.



Administrazioa	Helburuak eta gaitzen duten arauak
	<ul style="list-style-type: none"> - Herritarren segurtasuna (LOVFCS-7/21 Lege Organikoa) - Trafikoaren diziplina eta trafikoaren erregulazioa hiriguneetan (LOVFCS-168/98 Dekretua)
Getxoko Udala	<ul style="list-style-type: none"> - Instalazioen, ondasunen eta pertsonen segurtasuna babestea (DPBEDBLO) - Herritarren segurtasuna (LOVFCS-7/21 Lege Organikoa) - Trafikoaren diziplina eta trafikoaren erregulazioa hiriguneetan (LOVFCS-168/98 Dekretua)
Basauriko Udala	<ul style="list-style-type: none"> - Instalazioen, ondasunen eta pertsonen segurtasuna babestea, sarbideen kontrola (DPBEDBLO) - Herritarren segurtasuna (LOVFCS-7/21 Lege Organikoa)
Errenteriako Udala	<ul style="list-style-type: none"> - Instalazioen, ondasunen eta pertsonen segurtasuna babestea (DPBEDBLO) - Ez dute herritarren segurtasuna aipatzen, baina bai aplikatu beharreko arauetan (LOVFCS-7/21 Lege Organikoa) - Trafikoaren diziplina eta trafikoaren erregulazioa hiriguneetan (LOVFCS-168/98 Dekretua)
Tolosako Udala	<ul style="list-style-type: none"> - Instalazioen, ondasunen eta pertsonen segurtasuna babestea (DPBEDBLO) - Ez dute herritarren segurtasuna aipatzen, baina bai aplikatu beharreko arauetan (LOVFCS) - Trafikoaren diziplina eta trafikoaren erregulazioa hiriguneetan (LOVFCS-168/98 Dekretua)
Irungo Udala	<ul style="list-style-type: none"> - Instalazioen, ondasunen eta pertsonen segurtasuna babestea (DPBEDBLO) - Ez dute herritarren segurtasuna aipatzen, baina bai aplikatu beharreko arauetan (LOVFCS-7/21 Lege Organikoa) - Trafikoaren diziplina eta trafikoaren erregulazioa hiriguneetan (LOVFCS-168/98 Dekretua)
Laudioko Udala	<ul style="list-style-type: none"> - Instalazioen, ondasunen eta pertsonen segurtasuna babestea (DPBEDBLO) - Herritarren segurtasuna (LOVFCS-7/21 Lege Organikoa) - Trafikoaren diziplina eta trafikoaren erregulazioa hiriguneetan (LOVFCS-168/98 Dekretua)
Zumarragako Udala	<ul style="list-style-type: none"> - Instalazioen, ondasunen eta pertsonen segurtasuna babestea (DPBEDBLO) - Ez herritarren segurtasunagatik, ezta trafikoaren diziplinagatik ere.
Eibarko Udala	<ul style="list-style-type: none"> - Instalazioen, ondasunen eta pertsonen segurtasuna babestea (DPBEDBLO) - Trafikoaren diziplina eta trafikoaren erregulazioa hiriguneetan (erreferentziatzko araurik gabe).



Administrazioa	Helburuak eta gaitzen duten arauak
Ermuko Udala	<ul style="list-style-type: none"> – Instalazioen, ondasunen eta pertsonen segurtasuna babestea (DPBEDBLO) – Adierazi da ez direla erabiltzen kamerak herritarren segurtasunerako, baina, praktikan, erabiltzen dira kamera mugikorrek helburu horietarako eta, gainera, BABak baimenduta.

IV.2.2. Azterketa eta balorazioa

Bideozaintza erregulatzeko hainbat arau daude, lortu nahi den helburuaren arabera, eta, beraz, irudiak hartzeko sistemen titularrentzako betebeharrak desberdinak daude.

Alde horretatik, bereizi egin behar dira, batetik, **instalazioen, ondasunen eta pertsonen segurtasuna zaintzera** bideratutako kamerak eta bideozaintza-sistemak ([DPBEDBLOaren 22. artikulua](#)), eta, bestetik, argi eta garbi **herritarren bizikidetzan, indarkeria desagerraraztea eta bide eta eremu publikoak modu baketsuan erabiltzea ziurtatzen laguntzen duten kamerak eta sistemak, bai eta toki publiko, ireki edo itxietan segurtasun publikoarekin lotutako delituak, faltak eta arau-hausteak¹⁴ prebenitzen dituztenak ere**, honako irizpide hauen arabera: eraikin eta instalazio publikoen eta horien sarbideen babesa ziurtatzea; defentsa nazionalerako baliagarriak diren instalazioak babestea; herritarren segurtasunaren aurkako arau-hausteak egiztatzea; eta pertsonen eta ondasunen kalteak eragitea prebenitzea.

7/2021 Lege Organikoaren xedea da datuen tratamendua arautzea, eta, beraz, baita irudiena ere, arau-hauste penalak prebenitzeko, detektatzeko, ikertzeko eta epaitzeko eta zigor penalak betearazteko, eta hau ezartzen du 15. artikulua 2. atalean:

“Artículo 15. Sistemas de grabación de imágenes y sonido por las Fuerzas y Cuerpos de Seguridad.

1. [...].

*2. En la instalación de sistemas de grabación de imágenes y sonidos se tendrán en cuenta, conforme al principio de proporcionalidad, los siguientes criterios: asegurar la protección de los edificios e instalaciones propias; asegurar la protección de edificios e instalaciones públicas y de sus accesos que **estén bajo custodia**; salvaguardar y proteger las instalaciones útiles para la seguridad na-*

¹⁴ [LOVFCsaren 1. artikulua](#).



cional y prevenir, detectar o investigar la comisión de infracciones penales y la protección y prevención frente a las amenazas contra la seguridad pública.”

Xedapen horren bidez, handitu egiten da irudiak hartzearen irismena, ez baita eraikin eta instalazio publikoen eta horien sarbideen babesa ziurtatzera mugatzen, LOVFCsak adierazten zuen bezala; aitzitik, badirudi erabil daitezkeela ziurtatzeko *“la protección de los edificios e instalaciones **propias**; asegurar la protección de edificios e instalaciones públicas y de sus accesos que **estén bajo custodia**”*.

Erabilera horiek, printzipioz, arau-hauste penalak prebenitzera, detektatzera, ikeretzera eta epaitzera eta zigor penalak betearaztera mugatu behar dira, baina zaila dirudi ondasun, instalazio eta pertsonen segurtasuna zaintzeko interes legitimoan oinarritutako erabilerarekin (datuen babeserako araudian islatuta dago interes hori) batera egitea.

Araudiak itxuraz harmonizaziorik ez duela alde batera utzita, aldez aurretik baimena emateko arauak bete behar dira, bai eta herritarrei herritarren segurtasunagatik bideoz zaindutako eremu eta tokien berri emateko arauak ere, adibidez, polizia-egoitzak eta polizien zaintzapeko beste instalazio batzuk direnean. Izan ere, egoitza horietan gerta daitezke herritarrak, atxilotuak edo polizia-agentek inplikaturik dauden polizien esku-hartzea eragiten duten gertakariak.

Kontua ez da hutsala¹⁵; izan ere, funtzionario publiko batek polizia-bulego batean sartzean egindako diziiplina-falta batek, agian, ez luke kalifikazio juridiko bera izango diziiplina-eremuan, kamera motaren eta baimen-araubidearen arabera. Alde horretatik, interpreta liteke datuen babesaren esparruan ez dela pertsonen osotasunaren aurkako ekintzarik egin, eta, hala ere, LOVFCsaren araubidean baimendutako kameraren testuinguruan, delitu arintzat (ez du esan nahi agintaritzaren eskudunen esku jarriko denik) edo larritzat (agintaritzaren eskudunen esku jarriko da) jo liteke. Gainera, grabazioak gordetzeko gehienezko epeak desberdinak izango lirateke, eta kalteak eragin ditzakete pertsonen eskubide eta bermeetan. Grabazioak gordetzeko epeei buruzko alderdia aurrerago aztertuko da ([IV.5 atala](#)).

Lehen aurreratu dugun bezala, agerian utzi behar da zein araubide aplikatu dakioken bideozaintzari administrazioaren titulartasuneko beste eraikin eta bulego mota batzuetan, baldin eta datuen tratamenduak ez badu inplikaziorik herritarren segurtasunaren arloan edo arau-hauste penalak prebenitzearen arloan, baizik eta instalazioen, ondasunen eta pertsonen segurtasuna **zaintzearen** arloan.

¹⁵ Ikus 1564/2021 AGE, apirilaren 26koa ([ECLI:ES:TS:2021:1564](#)).



Administrazioaren instalazioetan, hala nola kultura-zentroetan, liburutegietan, kiroldegietan, igerilekuetan, bulego batzuetan eta LOVFCSaren babesean emandako barne-eremuetan bideozaintzarako baimenek proportzionaltasun-printzipioa errespetatu beharko lukete; izan ere, gutxieneko esku-hartzearen dimentsioan ([LOVFCSaren 6.3 artikulua](#)) *“exige la ponderación, en cada caso, entre la finalidad pretendida y la posible afectación por la utilización de la videocámara al derecho al honor, a la propia imagen y a la intimidad de las personas”* eta instalazio horietan, normalean, instalazioak, ondasunak eta pertsonak kontrolatzeko baliabide alternatiboak eta intimitaterako hain kaltegarriak ez direnak daude. Begiratu batean, zaila dirudi horietan herritarren segurtasunerako arrazoizko arrisku bat gertatzea, kamera **finkoak** erabiltzea eragiten duena, edo arrisku jakin bat, kamera **mugikorrek** erabiltzea erabakitzen bada.

Nolanahi ere, ikusten da administrazio batzuek Arartekoari bideozaintzako datuen tratamendua adierazten diotela soilik segurtasuna babesteko, datuak babesteko araudiaren eskakizunen arabera, eta, hala ere, BABak baimendutako sistemak dituzte, eta, beraz, logikoa denez, herritarren segurtasunerako erabiltzen dira. Lortu nahi diren helburuak eta aplikatu behar diren arauak behar bezala definitzeko argitu eta bereizi behar duten funtsezko alderdia da.

IV.3. Bideozaintza baimentzeko araudia

IV.3.1. Emaitzak

Bideozaintzako sistema **finko** eta **mugikorrek** baimentzeko eta erabiltzeko araubideari dagokionez, honako emaitza hauek lortu dira:

Administrazioa	Bideozaintzako sistemak baimentzea
Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Saila	<ul style="list-style-type: none"> – Kamera finkoak: BABak baimenduta. Baimenik gabeko eta DBEOren erregimenpeko beste sistema finko batzuk daude, Ertzaintzak kudeatzen ez dituenak. – Kamera mugikorrek: Aldez aurreko erabilera-baimena eskatzen zaie organo eskudunei. Gaineratu da batera eskatu eta baimentzen direla, eta ez kamera edo polizia-unitate bakoitzeko. Epea: Hilabete bat, beste batez luza daitekeena; praktikan, baimena ematen da ekitaldi zehatzak irauten duen denborarako edo segurtasun publikorako arriskuari dagokionez poliziaren interesekoa den denborarako.



Administrazioa	Bideozaintzako sistemak baimentzea
	<ul style="list-style-type: none"> ○ Uniformeetan: BAI ○ Droneak: BAI ○ Ertzaintzak eremu publikoetan herritarren segurtasuna babesteko erabiltzen dituen bideokamerak edo gailuak, arrisku edo ekitaldi jakin baten aurrean. <p>– Trafikoaren diziiplina: baimena ematen duten ebazpenek bide publikoak edo har daitezkeen tarteak identifikatzen dituzte, bai eta horiek zaintzeaz eta sarbide- eta ezerezte-eskaerak ebazteaz arduratzen den organoa ere, eta BABari jakinarazten zaizkio.</p>
Gasteizko Udala	<p>– Kamera finakoak: SSBak baimendutakoak.</p> <p>– Kamera mugikorak: polizia-uniformeetan eta delituak ikertzeko unitateko ordenagailu eramangarrietan. BABari aldez aurreko baimena eskatzen zaio.</p> <p>– Trafikoaren diziiplina: ebazpenek bide publikoak edo har daitezkeen tarteak identifikatzen dituzte, bai eta horiek zaintzeaz eta sarbide- eta ezerezte-eskaerak ebazteaz arduratzen den organoa ere, eta ez zaizkio BABari jakinarazten.</p>
Bilboko Udala	<p>– Kamera finakoak: SSBak baimentzen ditu.</p> <p>– Kamera mugikorak: ibilgailuetan. Ekitaldi jakin batzuk direla-eta, instalazio mugikorak daude: Aste Nagusia, Santo Tomas, adibidez. Behin ekitaldia amaituta, desagertu egiten dira. Aldez aurreko baimena dago, baina delituak prebenitzeko, antzemateko eta ikertzeko ez diren helburuetarako ere erabiltzen dira, baina ez da zehazten zeinetarako.</p> <p>– Trafikoaren diziiplina: baimena ematen duten ebazpenek bide publikoak edo har daitezkeen tarteak identifikatzen dituzte, bai eta horiek zaintzeaz eta sarbide- eta ezerezte-eskaerak ebazteaz arduratzen den organoa ere, baina ez zaizkio BABari jakinarazten.</p>
Donostiako Udala	<p>– Kamera finakoak: SSBak baimendutakoak.</p> <p>– Kamera mugikorak: ekitaldiak monitorizatzeko droneak, kultura-, kirol- edo jai-ikusketan, kontzentrazio handiak dituztenak, babes zibileko planen aplikazio-esparruan; makulu eramangarriak edo eraikinen fatxadetan, ekitaldi-</p>



Administrazioa	Bideozaintzako sistemak baimentzea
	<p>ak monitorizatzeko, jende asko biltzen denean (Aste Nagusia, Donostia Eguna, Santo Tomas, Kontxako estropadak, etab.). Kamera mugikorrei dagokienez, aldez aurreko baimena eskatzen da.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Trafikoaren diziplina: horretarako ebazpenak daude, eta BABari jakinarazten zaizkio.
Barakaldoko Udala	<ul style="list-style-type: none"> - Kamera finkoak: SSBak baimendutakoak. - Trafikoaren diziplina: SSBak baimenduta daude, baina ez zaizkio BABari jakinarazi.
Portugaleteko Udala	<ul style="list-style-type: none"> - Kamera finkoak: SSBak baimendutakoak. - Trafikoaren diziplina: horretarako ebazpenak daude, eta BABari jakinarazten zaizkio.
Getxoko Udala	<ul style="list-style-type: none"> - Kamera finkoak: SSBak baimendutakoak. - Ez dute aipatzen kamera mugikorrik dagoenik. - Trafikoaren diziplina: horretarako ebazpenak daude, ez zaizkio BABari jakinarazten.
Basauriko Udala	<ul style="list-style-type: none"> - Kamera finkoak: SSBak baimendutakoak. - Kamera mugikorrek polizia-uniformeetan, aldez aurreko baimena dago.
Errenteriako Udala	<ul style="list-style-type: none"> - Kamera finkoak: SSBak baimendutakoak. - Kamera mugikorrek (Domo) bideetan, gurutzeetan, zirkulazio-kopuru handia duten biribilgune nagusietan. Ez da baimenik eskatzen, delituak prebenitzeko, antzemateko eta ikertzeko ez diren helburuetarako erabiltzen direlako, eta aldez aurretik baimenik behar ez dutelako. - Trafikoaren diziplina: horretarako ebazpenak daude, eta BABari jakinarazten zaizkio. Gordetzeko epea: hilabete 1.
Tolosako Udala	<ul style="list-style-type: none"> - Kamera finkoak: SSBak baimendutakoak. - Trafikoaren diziplina: horretarako ebazpenak daude, eta BABari jakinarazten zaizkio.
Irungo Udala	<ul style="list-style-type: none"> - Kamera finkoak: SSBak baimendutakoak. - Trafikoaren diziplina: horretarako ebazpenak daude, eta BABari jakinarazten zaizkio.
Laudioko Udala	<ul style="list-style-type: none"> - Kamera finkoak: SSBak baimendutakoak. - Trafikoaren diziplina: horretarako ebazpenak daude, eta ez zaizkio BABari jakinarazten.



Administrazioa	Bideozaintzako sistemak baimentzea
Zumarragako Udala	<ul style="list-style-type: none"> – Kamera finkoak: SSBaren baimenik gabe, herritarren segurtasunerako erabiltzen ez direlako.
Eibarko Udala	<ul style="list-style-type: none"> – Kamera finkoak: SSBak baimenduta (adierazten da ez direla herritarren segurtasunerako leku publikoetan kokatutako kamerak). – Trafikoaren diziplina: horretarako ebazpenak daude, eta ez zaizkio BABari jakinarazten.
Ermuko Udala	<ul style="list-style-type: none"> – Kamera finkoak: SSBak baimendutakoak. – Kamera mugikorrek polizia-uniformeetan, aldez aurreko baimena dago. – Trafikoaren diziplina: horretarako ebazpenak daude, eta ez zaizkio BABari jakinarazten.

IV.3.2. Azterketa eta balorazioa

Toki publikoetan bideokamerak instalatzea, **finkoak** zein **mugikorrek**, polizien eskumen eksklusiboa da, eta irudi horien tratamendua LOVFCSan jasotako legeria espezifikaren eta hura garatzeko araudiaren arabera arautzen da. Hala ere, hala badagokio, datuak babesteko araudian bereziki aurreikusitakoa aplikatu ahal izango da, hala nola arriskuaren analisia egitearen ondoriozko segurtasun-neurriak hartzea eta tratamendu-jarduerak erregistratzea. Alderdi horiek geroago aztertuko dira.

Toki publikoetan erabiltzeak segurtasun-helburua du, herritarren bizikidetzaren, indarkeria desagerraraztearen eta bide eta eremu publikoak modu baketsuan erabiltzearen mesedetan, bai eta segurtasun publikoarekin lotutako delituak, faltak eta arau-haustek prebenitzearen alde ere.

Horrelako gailuak instalatzeko baldintza oso zorrotzak bete behar dira; izan ere, bideokamera **finkoak** instalatzeko eta kamera **mugikorrek** erabiltzeko baimena Gobernuaren Ordezkaritzak ematen du, dagokion autonomia-erkidegoko Bideozaintza Bermatzeko Batzordeak nahitaezko txosten loteslea egin ondoren. Baimen horrek urtebeteko indarraldia izango du gehienez, eta hura amaitutakoan berritu beharko da. Bideozaintzako batzordeek baimendutako instalazioen erregistro bat izango dute. Instalazioa baimentzeko, proportzionaltasun-printzipioaren arabera, gutxieneko esku-hartzearen eta egokitasunaren irizpideak hartzen dira kontuan. Horrela:



- Bideokamera egoera jakin batean herritarren segurtasuna mantentzeko egokia denean bakarrik erabili ahal izango da, Legean xedatutakoaren arabera.
- Kasu bakoitzean, haztatu egin beharko da lortu nahi den helburua eta bideokameraren erabilerak pertsonen ohorerako, norberaren irudirako eta intimitaterako eskubidean izan dezakeen eragina.
- Horiek erabiltzeko, beharrezkoa izango da herritarren segurtasunerako arrazoizko arrisku bat egotea, **finkoen** kasuan, edo arrisku jakin bat, **mugikorren** kasuan.
- Ezin izango dira erabili etxebizitzan barruko eta atarrietako irudiak edo soinuak hartzeko, titularrak edo epailearen baimena izan ezean, ezta leku publiko, ireki edo itxietan ere, pertsonen intimitateari zuzenean eta larriki eragiten zaionean, ezta izaera pribatuko elkarrizketak grabatzeko ere.

[Esparru juridikoari](#) buruzko atalean azaldu den bezala, Euskal Autonomia Erkidegoako Poliziak toki publikoetan bideokamerak erabiltzeko baimenen araubidea [168/98 Dekretuan](#) garatzen da.

Dekretu horren arabera, polizia-zerbitzu eta -unitateetako arduradunek bideokamera mugikorrek irudiak eta soinuak erabili eta lortu ahal izango dituzte *“presa handiko kasuetan edo baimena sasoiz lortzerik ez dagoenean”*.

Oro har, polizia-zerbitzu eta -unitateetako arduradunek bideokamera **mugikorrek** erabiltzeko baimena eska diezaiekete organo eskudunei, erabilera horren beharra eta egokitasuna justifikatzeko eskaera arrazoitua eginez. Hala eta guztiz ere, aldez aurreko baimen hori ez da beharrezkoa bideokamera **finkoak** instalatzeko baimena eman den bide edo leku publikoak direnean, edo salbuespenezko kasuak direnean, hau da, gehieneko presako kasuak direnean edo aurrez aipatutako baimena garaiz lortzea ezinezkoa denean. Nolanahi ere, aipatutako [168/98 Dekretuak](#) ezartzen du kasu horietan, txosten arrazoitu bidez, baimena emateko eskumena duen organoari eta BABari jakinaraziko zaiela, gehienez ere hirurogeita hamabi orduko epean, eta baimena emateko eskumena duen organoak, era berean, txosten horren berri eman beharko diola Segurtasuneko sailburuordeari.

Azkenik, nabarmendu behar da 7/21 Lege Organikoak ezartzen duela gailu **mugikorren** kasu horietan *“las autorizaciones no se podrán conceder en ningún caso con carácter indefinido o permanente, siendo otorgadas por el plazo adecuado a la naturaleza y las circunstancias derivadas del peligro o evento concreto, por un periodo máximo de un mes prorrogable por otro”*.



Atal honetan lortutako emaitzetatik ondoriozta daitekeenez, **inkestaturako administrazio publiko eskudun guztiek adierazi dute herritarren segurtasunerako kamera finko eta mugikorrek erabiltzeko aurretiazko baimena biltzen eta lortzen dutela.** Kasu batzuetan, agian, ez litzateke beharrezkoa izango baimen hori, lortu nahi den helburua instalazioen segurtasuna babestea denean, datuak babesteko araudian xedatutakoaren arabera, eta Defentsa Erakunde honi jakinarazi zaio kameraren bidez bakarrik zaintzen direla udal-esparru eta -eraikinetan, eta ez eremu publikoetan (Eibar).

Trafiko-segurtasunari dagokionez, administrazio guztiek adierazi dute alde zuzeneko baimena eskatu eta lortzen dutela horretarako kamerak erabiltzeko, [168/98 Dekretuaren Hirugarren Xedapen Gehigarrian](#) aurreikusitako araubidearekin bat etorritik, nahiz eta **erakunde batzuek ez dizkioten ebazpenak jakinarazten BABari.**

Zehazki, bideozaintzako gailuak instalatzea eta erabiltzea agintzeko agintaritzak eskudunak dira Eusko Jaurlaritzako Trafikoko eta Ibilgailuen zuzendaria Euskal Autonomia Erkidegoko bide publikoetan, baldin eta horien trafikoaren erregulazioa udalerriei esleitu ez bazaie, eta udalerriko agintaritzak eskuduna, trafikoa arautzea dagokien bideetan.

Printzipioz, aipatutako agintariek instalazioa antolatzeko ebazpenak sortu eta onartzen dituzte, baina, zenbait kasutan, badirudi ez zaizkiola Batzordeari jakinarazten, [168/98 Dekretuaren Hirugarren Xedapen Gehigarriak](#) ezartzen duen bezala (Laudio, Getxo, Gasteiz, Barakaldo eta Bilbo).

Era berean, administrazio batzuek adierazi dute grabazioak denbora mugagabean gordetzen direla (Gasteiz), eta nabarmendu behar da araudiak ezartzen duen gehieneko epea hilabete batekoa dela, Hirugarren Xedapen Gehigarrian aurreikusitako salbuespenak izan ezik.

Bestalde, kamera **finkoak** instalatzeko baimenaren izapidetzea Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoaren bidez has daiteke, Segurtasuna Koordinatzeko Zuzendaritzak kudeatutako baimena lortzeko eta Segurtasun Sailburuordetzak ebazteko, esteka honetan ageri den bezala <https://www.euskadi.eus/baimena/bideozaintza/web01-tramite/eu/>. Itxuraz, **ez dirudi kamera mugikorrek erabiltzeko baimenak eskatzeko aukera aurreikusten denik.**

Inkestaren emaitzei dagokienez, bereziki, Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailak adierazi du kamera **mugikorrek** erabiltzeko baimenak batera eskatzen direla, eta ez



kamera edo polizia-unitate bakoitzeko. Horrek zailtasun bat ekar lezake arrisku jakin bat dagoela eta proportzionaltasun-printzipioa betetzen dela alde aurretik ikusteko, gailu **mugikorren** erabilerari buruzko [7/21 Lege Organikoaren 17. artikulua](#) ezartzen duen bezala.

Gainera, [168/98 Dekretuaren](#) 9. artikulua 3. atalak aurretiazko baimenik behar ez izateko ematen duen aukerak *“grabazioa lehendik ere bideokamera finkoak instalatzea baimendutako bide edo toki publikoetan egin behar denean, ez da behar aurretiazko baimenik, ez eta kasua apartekoa denean ere, dela presa handiagatik, dela baimena garaiz lortzeko denborarik ezagatik”* nolabaiteko segurtasun juridikorik eza sor dezake, kamera **finkoak** erabiltzeko gaitzen duten kasuak agian ez direlako herritarren segurtasunerako eta gailu **mugikorrak** erabiltzeko arriskua justifikatzen duen arrazoi berberarekin bat etorriko. Are gehiago, gaur egun gailu mugikorretan txertatzen den kalitate, irismen, gaitasun eta abarreko teknologiak aukera eman lezake elementuak gehiegi hartzeko eta, beraz, proportzionaltasun-judizioa ez gainditzeko.

Adibidez, poliziaren uniformeetan edo droneen bidez erabiltzen diren kamera **mugikorrak** sistema finkoak dauden hirigune batean, besteak beste, baliteke kontrol zorrotzagoa eta sakonagoa egin behar izatea, herritarren segurtasunerako arrisku zehatz eta ebaluagarriko kasuetan sartzeko, eta, gainera, kasuan kasuko beharra eta egokitasuna neurtzeko.

Bestalde, toki-erakunde batzuek BABak baimendutako kamera **mugikorrak** erabiltzen dituzte makulu eramangarri eta drone gisa, jende asko biltzen den ekitaldien aurrean. Ziurrenik, horiek alde aurretik baloratzeko eta haztatze elementu gehiago gehitu beharko lituzkete, horiek erabiltzeko beharra eta egokitasuna egiaztatzeko.

Gailu horien garapen teknologikoa etengabea da, eta zentzuzkoa dirudi haien erabileraren proportzionaltasunari buruzko aurretiazko eta barneko balorazio-elementuen mende jartzea. Elementu horiek tresna juridikoetan zehaztu litezke. Hau da, barne-protokoloen edo -jarraibideen bidez, gailu **mugikorrak** erabiltzea eragin dezaketen gertaera eta kasu espezifikoak zehaztu daitezke, hala nola ekitaldi masiboak egitea, eta, gainera, zaindu beharreko denbora- eta eremu-irizpideak ezarri.

Polizia-uniformeen bidez erabiltzen diren kamera **mugikorrei** dagokienez, garrantzitsua da herritarren segurtasunerako arrisku zehatzaren kasua eta horien erabileraren proportzionaltasuna ebaluatzea ahalbidetuko duen alde aurretikako zehaztape-



nik eza. Oro har, irudiak eta, hala badagokio, soinuak eremu publikoetan hartzeko kasu bat dirudi, eta horiek haztatzeak, intimitatea bezalako beste oinarrizko eskubide batzuekiko balizko gatazka baten aurrean, herritarrei ez ezik, administrazioko langileei ere eragin diezaike. Egia esan, defentsa-erakunde honek ez dauka elementurik hura erabiltzeko ekimena edo une jakin batean aktibatzen erabakia positiboki eragiten duten egitatezko kasuak eta denbora- eta eremu-irismena baloratzen, baina bai pertsonen oinarrizko eskubideetan eragina izan dezaketen haren erabilerari buruzko alderdiak.

Udaltzaingoei dagokienez, gomendagarria dirudi [168/98 Dekretuaren](#) Lehen Xedapen Gehigarria kontuan hartzea. Xedapen horrek berariazko baldintzak ezartzen ditu kamera **mugikorrek** aldez aurreko baimenik gabe erabiltzeari dagokionez; kasu horretan *“polizia arduradunek horren berri eman beharko diote Eusko Jaurlaritzako Herritarren Segurtasuneko Zuzendariari txosten arrazoituaren bidez, eta hark hirurogeita hamabi ordu igaro baino lehen jakinarazi beharko die Segurtasun sailburuordeari eta Zaintza eta Askatasunen Batzordeari”*. Nolanahi ere, komenigarria dirudi udaltzaingoei, aipatutako Lehen Xedapen Gehigarriaren 2. atalaren arabera, BABaren kamera **mugikorren** bidez lortzen diren edo lortu nahi diren irudien eta soinuen erregistroen egokitasunari buruzko txostenak eskatzea eta interesatzea toki publikoetan herritarren irudiei buruzko datuak hartzean nagusi izan behar duten berme juridikoak indartzeko.

Herritarren segurtasunerako bideozaintza-kamerak erabiltzeko baimendutako epeei dagokienez, bada Arartekoaren arreta erakartzen duen alderdi bat; izan ere, araudiak ezartzen du kamera **finkoei** dagokienez, gehienez ere urtebeterako baimenduko direla, eta epea amaitzen denean berritu ahal izango direla epe baliokide baterako. Hala ere, ez LOVFCSk ez 168/98 Dekretuak ez dute denbora-mugarik ezartzen kamera **mugikorrek** erabiltzeko.

7/21 Lege Organikoak, [17.2 artikuluan](#), baimenetan kontuan hartu beharreko irizpideak eta denbora-mugak ezartzen ditu. Ildo horretan, aipatutako atalak ezartzen du *“las autorizaciones no se podrán conceder en ningún caso con carácter indefinido o permanente, siendo otorgadas por el plazo adecuado a la naturaleza y las circunstancias derivadas del peligro o evento concreto, por un periodo máximo de un mes prorrogable por otro”*.

Arestian azaldu den bezala, kamera **finko** eta **mugikorrek** erabiltzeko eskaera batzuk batera aurkezten dira, eta hori, Arartekoaren ustez, herritarren segurtasunerako arrazoizko arrisku edo arrisku zehatz bat dakarren eta, gainera, dagokion pro-



portzionaltasun-judizioa gainditzen duen egitatezko kasu zehatz batean sar daiteke. Hala ere, disfuntzioak eta nahi ez diren erabilerak sor daitezke, edo aldez aurretik baimendu ez direnak, sistema **mugikorren** bidez irudiak atzemanaz gero, baldin eta baimena emateko ebazpenetan aplikatu beharreko kasuak, erabilerak eta epeak zehazten ez badira.

Azkenik, egokia dirudi egiaztatzea instalazioa proportzionala dela instalazio **finkoen** baimenak berritzeko epeak igarotzen direnean; izan ere, baliogabetu egin daitezke egokitasun-irizpideei eta gutxieneko esku-hartzeari jarraiki, eta herritarren segurtasunerako arrazoizko arriskua eta arrisku zehatza izateko eskakizunaren arabera, **mugikorren** kasuan.

[168/98 Dekretuaren](#) 7. artikulua instalazio **finkoen baimenen erregistroa** sortzea arautzen du. Ezerk ez du adierazten kamera **mugikorrei** buruzko baimenei eta horiek erregistro horretan inskribatzeari buruz. Hutsune hori bete egin daiteke administrazioaren jarduna gardena izan dadin, batez ere kamera **mugikorren** hainbat sistema ugaritzen ari direlako, hala nola droneak, uniformeetako kamerak, makulu eraman-garriak eta antzeko teknologiak.

7. artikulua horren 3. atalak honako hau ezartzen du: *“Erregistroko datuen atzipena Herri Administrazioen Jaurbideari eta Guztientzako Administrazio Ihardunbideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legean xedatu denarekin bat etorritik egingo da”*.

Erakunde horren iritziz, sarbide hori indargabetutako 30/92 Legean azaldutakoaren arabera igortzea bat dator Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen [13. artikuluan](#) jasotako informazio publikoa, artxiboak eta erregistroak eskuratzeko eskubidearekin, eta, beraz, herritarrek erregistroan sartzeko aurkeztutako edozein eskaera [GGOLaren](#) arauen arabera izapidetu beharko litzatekeela uste da.

Gardentasunaren alderdi pasiboa betetzearen kaltetan izan gabe, administrazio publikoaren jardunaren publizitatearen eta gardentasunaren mesedetan, agian neurri aktibo gisa argitaratu beharko lirateke instalazio **finko** eta **mugikorrak** baimentzeko ebazpenak, eta, geroago arrazoituko den bezala, informazioa emateko betebeharra osatzeko edo irudiak hartzeari buruzko publizitate-arauak indartzeko; izan ere, zaila dirudi informazio-kartelak jartzea edo herritarrek ohartaraztea agenteen drone, makulu edo uniformeetan kokatutako kamera **mugikorren** presentziari buruz, beste bitarteko edo informazio-elementu batzuetara joan gabe.



IV.4. Proporzionaltasun-printzipioa

Arartekoak, erakunde publikoei egindako inkestaren esparruan, ez du proporzionaltasun-printzipioari buruzko gai espezifikorik planteatu; izan ere, emaitzek ez lukete irizpen-elementurik emango printzipio hori betetzeak izan behar duen gutxieneko egokitasunaren eta esku-hartzearen bertsio bikoitza baloratzeko.

Aurrekoari kalterik egin gabe, inkestak Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailari planteatutako gai bereziak biltzen ditu. Zehazki, galdetu zen ea kamera **finkoak** nahiz **mugikorrak** instalatzeko eta erabiltzeko baimenek barne hartzen zuten polizia-zerbitzu eta -unitateetako arduradunek planteatutako eskaeren beharraren eta egokitasunaren balorazioa, eta baiezko erantzuna eman zitzaien.

Abiapuntu gisa, komeni da proporzionaltasun-printzipioarekin lotutako funtsezko elementuak aipatzea; izan ere, Konstituzio Auzitegiaren arabera, Konstituzioaren interpretatzaile gorena eta oinarrizko askatasun eta eskubideen bermatzailea baita, eskakizun komun eta etengabea da oinarrizko eskubideak murrizten dituen edozein neurriren konstituzionaltasunerako, bereziki intimitaterako eskubideari eragiten diotenean.

Konstituzio Auzitegiak 1996ko maiatzaren 21eko 56/1996 ([ECLI:ES:TC:1996:56](#)) eta 1997ko urtarrilaren 22ko 207/1996 ([ECLI:ES:TC:1996:207](#)), epaien bidez ezarritako doktrinaren arabera, besteak beste, oinarrizko eskubide baten neurri murriztaile batek proporzionaltasun-judizioa gainditzen duen egiaztatzeko, honako hiru betekizun edo baldintza hauek betetzen dituen egiaztatu behar da: "*si tal medida es susceptible de conseguir el objetivo propuesto (juicio de idoneidad); si, además, es necesaria, en el sentido de que no exista otra medida más moderada para la consecución de tal propósito con igual eficacia (juicio de necesidad); y, finalmente, si la misma es ponderada o equilibrada, por derivarse de ella más beneficios o ventajas para el interés general que perjuicios sobre otros bienes o valores en conflicto (juicio de proporcionalidad en sentido estricto)*".

Bideokamerak herritarren segurtasunerako erabiltzeari dagokionez, proporzionaltasun-printzipioak erabilera-kasu oro izan behar du nagusi, LOVFCsaren hitzaurrean bertan aurreikusten den bezala:

"Las garantías que introduce la presente Ley en el uso de sistemas de grabación de imágenes y sonidos por parte de las Fuerzas y Cuerpos de Seguridad parten del establecimiento de un régimen de autorización previa para la instalación de



videocámaras inspirado en el principio de proporcionalidad, en su doble versión de idoneidad e intervención mínima”.

Herritarren segurtasunerako bideozaintzari buruzko legerian (LOVFCs) aurreikusita-koarekin bat etorritik, bideokamera **finko** eta **mugikorrak** instalatzeko baimenek hainbat irizpide bete behar dituzte, hala nola eraikin eta instalazio publikoen eta horien sarbideen babesa bermatzea; defentsa nazionalerako erabilgarriak diren instalazioak babestea; herritarren segurtasunaren aurkako arau-haustea egiaztatzea, eta pertsonen eta ondasunen kalteak eragitea prebenitzea, arrisku zehatzen bat gertatzea, **eta, batez ere, LOVFCsaren 6. artikulua, proportzionaltasun-printzipioa arautzen duena egokitasunaren eta gutxieneko esku-hartzearen bertsio bikoitzean**, honako hauek kontuan hartuta:

- “- La idoneidad determina que sólo podrá emplearse la videocámara cuando resulte adecuado, en una situación concreta, para el mantenimiento de la seguridad ciudadana, de conformidad con lo dispuesto en esta Ley.*
- La intervención mínima exige la ponderación, en cada caso, entre la finalidad pretendida y la posible afectación por la utilización de la videocámara al derecho al honor, a la propia imagen y a la intimidad de las personas”.*

Gainera, 6. artikuluko horren 4. atalak bideokamerak erabiltzeko **eskakizuna** ezartzen du: *“un razonable riesgo para la seguridad ciudadana, en el caso de las fijas, o de un peligro concreto, en el caso de las móviles”.*

7/21 Lege Organikoak ere ezartzen du *“la instalación de sistemas de grabación de imágenes y sonidos se tendrán en cuenta, conforme al principio de proporcionalidad, los siguientes criterios: asegurar la protección de los edificios e instalaciones propias; asegurar la protección de edificios e instalaciones públicas y de sus accesos que estén bajo custodia; salvaguardar y proteger las instalaciones útiles para la seguridad nacional y prevenir, detectar o investigar la comisión de infracciones penales y la protección y prevención frente a las amenazas contra la seguridad pública” (15.2 artikulua).*

Proportzionaltasun-printzipioa, beraz, judizioaren eta haztapenaren berme konstituzionala da, eta Konstituzioak babestutako ondasun kolektibo gisa herritarren segurtasuna babesteko betekizunak eta mugak ezartzen ditu, bai eta oinarrizko beste eskubide batzuekiko (intimitatea, esaterako) oreka ere. Intimitaterako eskubidea erabatekoa ez bada ere, bideozaintzari buruzko legea zorrotz bete behar da, esku-



bidearen edozein muga beharrezkoa, proportzionatua eta oinarrizko eskubidearen funtsezko edukiarekiko errespetuzkoa izan dadin.

Bideozaintza-kameren kokapenari buruz administrazioek emandako erantzunak kontuan hartuta, adierazi behar da arau aplikagarriak bereizi beharko liratekeela lortu nahi den helburuaren arabera. Horrela, lehen adierazi den bezala, Arartekoak uste du ez dela beti beharrezkoa herritarren segurtasunari buruzko xedapenak aplikatzea; izan ere, kasu batzuetan, ziurrenik nahikoa izango da DPBEBLOaren [22. artikuluan](#) xedatutakora jotzea titulartasun publikoko pertsonen, ondasunen eta instalazioen segurtasuna zaintzeko irudiak hartzea legitimatzeko. Legitimazio-oinarri bat da, eta barnealdeak, korridoreak, administrazioako langileak soilik sar daitezkeen bulegoak, kirol-esparruak, liburutegiak, kultura-eraikinak, musika-eskolak, arrapala mekanikoak, adinekoen egoitzak, igerilekuak edo antzeko lekuak aplika litezke, datuak babesteko araudiak ezartzen dituen proportzionaltasun-, informazio- eta gainerrako eskubide-baldintzak eta herritarrentzako bermeak bete ondoren.

Zehazki, Ararteko honek arreta jarri nahi du intimitatean eragina izan dezaketen irudiak har daitezkeen lekuetan egiten den bideozaintzan, bai herritarrentzat, bai langileentzat; izan ere, proportzionaltasun-printzipioak eskubideak justifikatu eta haztatzea eskatzen du, zein gailentzen diren ebaluatzeko, eta intimitaterako hain kaltegarriak edo intrusiboak ez diren elementuak edo bitartekoak badaude, bideozaintzak eskaintzen dituen aukerak alde batera utzita erabili behar dira.

Azken urteotan, hainbat erakundek kontsultak egin dizkiote DBEBari, udal-instalazioetan irudiak jasotzeari buruz. Izan ere, horiek berrikustek eta kontsultak proportzionaltasun-printzipioari buruzko judizio- eta haztapen-elementuak eskaini ditzake, kamerak erabili aurretik, instalazioen, ondasunen eta pertsonen segurtasuna zaintzeko, datuak babesteko araudia kontuan hartuta. Besteak beste, [D17-002](#) eta [D10-015](#) irizpenek datu pertsonalen babesaren esparruan proportzionaltasun-printzipioari buruzko alderdi aipagarriak jorratzen dituzte, baita herritarren segurtasunari buruzko araudiari buruzkoak ere, babesgarriak eta eskumenekoak diren eremuak mugatze aldera.

Era berean, AEPDk *Guía sobre el uso de videocámaras para seguridad y otras finalidades*¹⁶ gida argitaratu zuen. Gida horrek bideozaintza-sistemak ezarri aurreko judizio- eta balorazio-elementuak ematen ditu, eta horietan, instalazioen, ondasunen eta pertsonen segurtasuna zaintzeko interes legitimoa da administrazioaren segurtasunaren kontrolari aplika dakioken oinarri juridikoa.

¹⁶ <https://www.aepd.es/es/documento/guia-videovigilancia.pdf>.



Bestalde, adierazi den bezala, poliziek instalazio **finko edo mugikorren** bidez egin dezakete bideozaintza, berariazko baldintzak eta proportzionaltasun-printzipioa betez, lortu nahi den helburua segurtasun publikora egokitzen denean. Baimen-eskaerek, oro har, instalazioaren justifikazioa jaso behar dute, eta, nolana ere, baimen-ebazpenak arrazoitu egin behar dira. Alde horretatik, Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailak dio kamera **finkoak** eta **mugikorrak** instalatzeko eta erabiltzeko baimenek barne hartzen dutela polizia-zerbitzu eta -unitateetako arduradunek planteatutako eskaeren behararen eta egokitasunaren balorazioa.

Arartekoarentzat kezagarria da herritarren segurtasunerako helburua duten leku eta instalazio publikoetan kamera **finkoak** baimentzea, agian herritarren segurtasunerako arrazoizko arriskurik ez dagoen eremuetan, hala nola kiroldegietako barnealdeetan, kultura-geletan eta antzeko instalazioetan, eta horien sarbideak ez dituzte poliziek zaintzen.

Kamera **mugikorrak** erabiltzeari dagokionez, beharrezkoa da arrisku jakin bat egotea, horiek erabiltzeko baimena emateko. Hori nekez egokitzen da behar den proportzionaltasunarekin, baldin eta egunero edo modu masiboan erabiltzen badira, polizia-uniformeetan bezala, drone edo makulu eramangarrien bidez, aldez aurretik kasuz kasu haztapenik egin gabe, gutxieneko esku-hartzearen alderdiak eskatzen duen bezala, pertsonen ohorerako, norberaren irudirako eta intimitaterako eskubideari kontrajarrita.

Erakunde honek badaki larrialdiko egoerak egon daitezkeela balizko arrisku jakin baten aurrean datuak hartzea eta jasotzea eskatzen duten gertaerei erantzuteko, baina beste kasu batzuetan kamera **mugikorrak** erabiltzen dira aldian behin egiten diren ekitaldi masiboetan. Beraz, *a priori*, drone edo makulu eramangarri gisa, eta bereziki polizia-uniformeetan dauden kamerak, baliabideak erabiltzeko erregimena agian berme gehiagorekin haztatu beharko litzateke, baimen-araubide orokorra betetzeari kalterik egin gabe, geroago jorratuko den bezala. Zehazki, erakunde honek uste du kamera **mugikorren** erabilera, proportzionaltasun-printzipioaren arabera eta erabileraren irismenari eta kasu zehatzei buruzko berariazko erregulaziorik ez dagoenez, administrazioaren aldez aurreko barne-kontrol baten mende jarri beharko litzatekeela, eta kontrol horretan berariaz oinarritu eta arrazoitu beharko litzatekeela horiek erabiltzeko beharra, eta, hala badagokio, herritarren intimitatea babesteko aplikatu beharreko mugak ezagutzea ahalbidetuko duten protokolo, jarraibide edo neurriak artikulatu beharko liratekeela; izan ere, soil-soilik, aipatutako bitarteko elektronikoen gaitasuna dute eremu pertsonaleko elementuak atzemateko, hala



nola etxebizitzak, barruko lokalak edo beste oinarrizko eskubide batzuei lehentasuna eman diezaieketen testuinguruak, bereziki adingabeenak.

Laburbilduz, Arartekoak nabarmendu nahi du bideozaintzako instalazio **finko** eta **mugikorrak** eskatu eta baimendu aurretik proportzionaltasun-printzipioa behar bezala bete behar dela, egokitasunaren eta gutxieneko esku-hartzearen bi alderditan; izan ere, instalazio **finkoei** buruzko kasu batzuetan, agian ez da beharrezkoa bideozaintza legitimatzea segurtasun publikoko eskumenetan, baizik eta instalazioen, ondasunen eta pertsonen segurtasuna babesteko interes legitimoan, datuak babesteko araudiaren arauen arabera. Edo, hala badagokio, intimitaterako hain kaltegarriak edo intrusiboak ez diren bitartekoak egon daitezke irudia kontrolatzeko edo modulatzeko, batez ere adingabeen edo desgaitasuna duten pertsonena, seguru asko herritarren segurtasunerako arrazoizko arriskurik ez dagoen lekuetan.

Bestalde, bideozaintzako sistema **mugikorren** erabilerari buruz hausnartu eta kasuz kasu haztatzea komeni da, herritarren oinarrizko eskubideak urratzeko aukerak areagotu egiten baitira, irismena, iraupena, eremua eta horien erabilera eragiten duten egitatezko kasu zehatzak mugatzen dituen parametririk ez dagoelako.

Horregatik, egokia dirudi administrazio publiko eskudunek jarraibide eta protokoloen bidez arautzea kamerak erabiltzeko beharra eragiten duten kasuak, eta, praktikan, kontrol bikoitza gertatzea, administrazioaren beraren barnekoa eta kanpokoak, agintari eskudunei instalatzeko eta erabiltzeko baimenak eskatzen zaizkienean. Horrek erraztu egingo luke, ziurrenik, BABA gainbegiratzea, pribatutasuna babesteko kontsulta-organo gisa, Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziak toki publikoetan bideokamerak erabiltzeari dagokionez herritarrek norberaren irudirako, intimitaterako eta duintasunerako duten eskubidearen bermea indartzeko.

Horrek proportzionaltasun-printzipioa hobeto betetzea ekarriko luke, eta, gainera, herritarren beste oinarrizko eskubide batzuekin uztartzea¹⁷.

¹⁷ 11/2010 Epaia, 2010eko urtarrilaren 14koa ([ECLI:ES:TSJGAL:2010:185](#)).

"TERCERO.- Los motivos justificativos de la solicitud -"aumentar la seguridad (...) asegurar la protección del citado edificio y sus accesos"- y aun de los recursos contra la denegación de la solicitud -"prevenir la causación de daños a sus bienes, no infrecuentes (...) razonable riesgo para la seguridad ciudadana de un edificio público que frecuentemente sufre daños en sus instalaciones sin que existe otra posibilidad razonable para preservar su seguridad (...) posible prevención en el caso de rotura de cristales, pintadas e incluso intentos de acceder al edificio. / No puede obviarse que en el interior del edificio se encuentran bases de datos de carácter personal, ordenadores, maquinaria, etc. (...)"-, tales motivos, decimos, y así se resolvió y bien se contesta ahora, no son bastantes para entender que la utilización de las videocámaras en la situación concreta es ade-



cuada para el mantenimiento de la seguridad ciudadana y para la ponderación en el caso concreto entre la finalidad pretendida y la posible afectación a los derechos.

Por su vaguedad o falta de precisión, reducida ésta en la solicitud inicial a la mera referencia a la finalidad legal de garantía de la seguridad ciudadana y en los sucesivos escritos completada con la referencia a unos daños que tampoco se circunstancian. El Ayuntamiento no explica la adecuación de la utilización de videocámaras en el edificio de la solicitud conectándola con la utilización de otros medios de garantía de la seguridad ciudadana ni con el mantenimiento de la seguridad ciudadana en otros edificios. Tampoco explica el Ayuntamiento la relación entre la existencia de videocámaras en el exterior del edificio para prevenir rotura de cristales y pintadas e intentos de entrada y la protección de documentos de relevancia custodiados en su interior.

Y porque, en todo caso, en ningún momento se aportó un principio de prueba sobre el hecho alegado de que el edificio "frecuentemente sufre daños en sus instalaciones".



IV.5. Bideozaintzako grabazioen kudeaketa eta gordetzeko epeak

IV.5.1. Emaizak

Administrazioa	Grabazioen kudeaketa eta epeak
Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Saila	<ul style="list-style-type: none"> - Barne-protokoloa, grabazioak zein barne-unitate edo -organoren esku eta zaintzapean geratzen diren ezartzen duena: Protokolo bat dago, eta baimenek zehazten dute zein den grabazioen zaintza materialaz arduratzen den polizia- edo administrazio-unitatea. - Epeak: Ez da gutxienera eperik ezartzen, eta gehieneko epeak ezartzen badira esparru arautzailearen arabera (hilabete 1 datuak babesteagatik; 3 hilabete 7/21 Lege Organikoaren arabera; trafikoa hilabete 1; hilabete 1 bide publikoetan herritarren segurtasunagatik instalazio finkoa jartzeko, Bideozaintza eta Askatasun Batzordeak erabakitako irizpidearen arabera. - Trafikoaren diziplina: hilabete bateko epea gordetzeko. - Herritarren segurtasunerako kamera mugikorak: Legean aurreikusitako gehieneko epea hilabete 1 da, eta beste batez luza daiteke. Praktikan, baimena ekitaldi zehatzak irauten duen edo segurtasun publikorako arriskuari dagokionez poliziaren interesekoa den epera murrizten da, legean ezarritako epea gainditu gabe. - Grabazioak gordetzeko gehieneko epeak alde batera utzi gabe, mantentze hori modulatuta dago eremu jakin batzuetan, herritarren eskubideak gehiago bermatzeko; esate baterako, BABak erabakitako irizpidearen arabera, bide publikoen bideozaintzari buruzko irudiak gordetzeko gehieneko epea hilabete batera mugatuko da. Gehieneko epeez harago (segurtasun publikoaren arloko arau-hauste penal edo administratibo larri edo oso larriekin zerikusia dutenak izan ezik, abian den polizia-ikerketaren baten mende daudenak edo prozedura judicial edo administratibo ireki bat dutenak), irudiak mantentzea gailu teknikoaren biltegitarte-gaitasunak baldintzatzen du.
Gasteizko Udala	<ul style="list-style-type: none"> - Barne-protokoloa, grabazioak zein barne-unitate edo -organoren esku eta zaintzapean geratzen diren ezartzen duena: kudeaketa-protokoloa dago, eta kudeaketa-unitatea edo -organoa herritarren segurtasuneko saila da.



Administrazioa	Grabazioen kudeaketa eta epeak
	<ul style="list-style-type: none"> - Gutxieneko gordetzeko epea: ez. - Gehieneko epea: Hilabete 1, oro har. Trafikoaren diziplina, mugagabe gordetzea.
Bilboko Udala	<ul style="list-style-type: none"> - Barne-protokoloa, grabazioak zein barne-unitate edo -organoren esku eta zaintzapean geratzen diren ezartzen duena: protokoloa dago, eta Udaltzaingoaren ikus-entzunezkoen laborategia da barneko kudeaketa-unitatea edo -organoa. - Gordetzeko gutxieneko epea ezartzen da. - Gehieneko epeak: Eraikinetan instalatutako kamerak, epea hilabete batekoa da; trafiko-kameren eta ibilgailuak Alde Zaharrera sartzeko kontrol-kameren kasuan, 15 egun, Mugikortasun eta Jasangarritasun Arloan gordeta, epe hori igarotakoan, grabazio berriak aurrekoen gainean egiten dira. Herritarren Segurtasunak erabilitako kamerek egindako grabazioen kasuan, instalazio bakoitzerako emandako baimen bakoitzean ezarritakoa aplikatuko da. Baimen horien mende ez dauden kamerak instalazio bakoitzean jasotako kamerek ezarritako epera egokitzen dira. - Trafikoaren diziplina: hilabete batetik beherako epea.
Donostiako Udala	<ul style="list-style-type: none"> - Barne-protokoloa, grabazioak zein barne-unitate edo -organoren esku eta zaintzapean geratzen diren ezartzen duena: kudeaketa-protokoloa eta kudeaketa-organoa, udaltzaingo edo udal-burutza. - Gordetzeko gutxieneko epea ezartzen da. - Gehieneko epea: Hilabete 1. Trafikoaren diziplinaren arloan, grabazioak hilabete bat baino gutxiagoko epean gordetzen dira.
Barakaldoko Udala	<ul style="list-style-type: none"> - Barne-protokoloa, grabazioak zein barne-unitate edo -organoren esku eta zaintzapean geratzen diren ezartzen duena: protokoloa dago, eta kudeaketa-organoa udaltzaingoaren burutza da. - Gordetzeko gutxieneko epea ezartzen da. - Gehieneko epea: oro har, hilabete batekoa izango da. Trafikoaren diziplinaren arabera, hilabete 1.



Administrazioa	Grabazioen kudeaketa eta epeak
Portugaleteko Udala	<ul style="list-style-type: none"> - Barne-protokoloa, grabazioak zein barne-unitate edo organoren esku eta zaintzapean geratzen diren ezartzen duena: protokoloa dago, eta organo kudeatzailea, Eusko Jaurlaritzaren ebazpenetan agertzen den bezala, alkatea, udaltzainburua eta horien ordezkioak dira, absentzia-aldian. - Gordetzeko gutxieneko epea ezartzen da. - Gordetzeko gehieneko epea: Hilabete 1. Trafikoaren diziplinaren arloan, grabazioak hilabete bat baino gutxiagoko epean gordetzen dira.
Getxoko Udala	<ul style="list-style-type: none"> - Barne-protokoloa, grabazioak zein barne-unitate edo organoren esku eta zaintzapean geratzen diren ezartzen duena: protokoloa dago, eta udaltzaingoaren burutza da organo kudeatzailea. - Gordetzeko gutxieneko epea ezartzen da. - Gordetzeko gehieneko epea: Hilabete 1, oro har, trafikoa-ren diziplina barne.
Basauriko Udala	<ul style="list-style-type: none"> - Barne-protokoloa, grabazioak zein barne-unitate edo organoren esku eta zaintzapean geratzen diren ezartzen duena: protokoloa dago, eta organo kudeatzailea udaltzaingoaren burutza da. - Gordetzeko gutxieneko epea ezartzen da. - Gordetzeko gehieneko epea: Hilabete 1.
Errenteriako Udala	<ul style="list-style-type: none"> - Barne-protokoloa, grabazioak zein barne-unitate edo organoren esku eta zaintzapean geratzen diren ezartzen duena: protokoloa dago, eta organo kudeatzailea udaltzaingoaren burutza da. - Gordetzeko gutxieneko epea ezartzen da. - Gordetzeko gehieneko epea: Hilabete 1, oro har, trafikoa-ren diziplina barne.
Tolosako Udala	<ul style="list-style-type: none"> - Barne-protokoloa, grabazioak zein barne-unitate edo organoren esku eta zaintzapean geratzen diren ezartzen duena: Protokoloa dago, eta udaltzaingoa da organo kudeatzailea, unitatea zehaztu gabe. - Gordetzeko gutxieneko epea ezartzen da. - Gordetzeko gehieneko epea: 8 egun, disko gogorraren ahalmenaren arabera. Hilabete 1 baino gutxiagoko epea trafikoaren diziplinagatik.



Administrazioa	Grabazioen kudeaketa eta epeak
Irungo Udala	<ul style="list-style-type: none"> - Barne-protokoloa, grabazioak zein barne-unitate edo organoren esku eta zaintzapean geratzen diren ezartzen duena: protokoloa dago eta organo kudeatzailea udaltzaingoaren burutza da. - Gordetzeko gutxieneko epea ezartzen da. - Gehieneko gordetzeko epea: 7 egun. Hilabete 1 baino gutxiagoko epea trafikoaren diziplinagatik.
Laudioko Udala	<ul style="list-style-type: none"> - Barne-protokoloa, grabazioak zein barne-unitate edo organoren esku eta zaintzapean geratzen diren ezartzen duena: ez dago grabazioak zein barne-unitate edo organoren esku eta haren zaintzapean geratzen diren ezartzen duen protokolorik. - Gordetzeko gutxieneko epea ezartzen da. - Gordetzeko gehieneko epea: Hilabete 1. Hilabete 1 baino gutxiagoko epea trafikoaren diziplinagatik.
Zumarragako Udala	<ul style="list-style-type: none"> - Ez dago barne-protokolorik. - Ez dago gordetzeko gutxieneko eperik. - Gehieneko epea sistema informatikoaren edukierak zehazten du, 10 egun inguru.
Eibarko Udala	<ul style="list-style-type: none"> - Barne-protokoloa, grabazioak zein unitate edo barne-organoren esku eta zaintzapean geratzen diren ezartzen duena: Udaltzaingoaren burutza. - Gordetzeko gutxieneko epea dago. - Gordetzeko gehieneko epea: Hilabete 1, oro har, trafikoaren diziplina barne.
Ermuko Udala	<ul style="list-style-type: none"> - Barne-protokoloa dagoela adierazten da, baina ez da unitatearen edo organoaren berri ematen, kudeaketa-sistema informatikoa deskribatzen da. - Gordetzeko gutxieneko epea ezartzen da - Gordetzeko gehieneko epea: Hilabete 1. Hilabete 1 baino gutxiagoko epea trafikoaren diziplinagatik.



IV.5.2. Azterketa eta balorazioa

Herritarren segurtasuna eta kudeaketarako eta gordetzeko epeak direla-eta egindako grabazioen kudeaketari dagokionez, LOVFCsaren 8. artikulua honako hau ezartzen du:

- “1. Las grabaciones serán destruidas en el plazo máximo de un mes desde su captación, salvo que estén relacionadas con infracciones penales o administrativas graves o muy graves en materia de seguridad pública, con una investigación policial en curso o con un procedimiento judicial o administrativo abierto.*
- 2. Cualquier persona que por razón del ejercicio de sus funciones tenga acceso a las grabaciones deberá observar la debida reserva, confidencialidad y sigilo en relación con las mismas, siéndole de aplicación, en caso contrario, lo dispuesto en el artículo 10 de la presente Ley.*
- 3. Se prohíbe la cesión o copia de las imágenes y sonidos obtenidos de conformidad con esta Ley, salvo en los supuestos previstos en el apartado 1 de este artículo.*
- 4. Reglamentariamente la Administración competente determinará el órgano o autoridad gubernativa que tendrá a su cargo la custodia de las imágenes obtenidas y la responsabilidad sobre su ulterior destino, incluida su inutilización o destrucción. Dicho órgano será el competente para resolver sobre las peticiones de acceso o cancelación promovidas por los interesados”.*

Gainera, 7/21 Lege Organikoaren 18.3 artikulua honako hau xedatzen du:

- “(...) 3. Las grabaciones serán destruidas en el plazo máximo de tres meses desde su captación, salvo que estén relacionadas con infracciones penales o administrativas graves o muy graves en materia de seguridad pública, sujetas a una investigación policial en curso o con un procedimiento judicial o administrativo abierto”.*

Aipatutako xedapenetan ikus daiteke gordetzeko epeak desberdinak direla, nahiz eta atzipenaren xedeak helburu bera izan: segurtasun publikoarekin lotutako delituek, faltak eta arau-haustek prebenitzea.

Alderdi horrek segurtasun juridikorik eza sortzen du, eta azterlanean parte hartu duten administrazio publikoek emandako erantzunetan islatzen da.

Adibidez, Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailak gordetzeko epe desberdinak aipatzen ditu, aplikatu beharreko arauen arabera, 3 hilabete, 7/21 Lege Organikoaren



arabera, eta, hala ere, gehienez ere hilabete bateko gordetzeko epea adierazten da bide publikoetan herritarren segurtasunagatik instalazio **finkoa** jartzeko, BABak adostutako irizpidearen arabera.

Toki-erakunde guztiek diote herritarren segurtasunarekin lotutako irudiak gordetzeko gehienez hilabete bateko epea aplikatzen dutela, edo are laburragoa, datuak grabatu eta gordetzeko gailuen ezaugarri teknikoen arabera.

Nolanahi ere, komeni da araudiaren ikuspegitik gordetzeko epe horiek argitzea eta zehaztea, baina horrek ez du eragozten poliziek ere kontserbazio-irizpide zehatzak ezartzea, protokolo espezifikoen bidez.

Ilido horretan, LOVFCSaren [8. artikuluan](#) 4. atalak ezartzen du zehaztu egin behar dela zein organo edo agintarik izango duen bere gain lortutako irudiak zaintzeko ardura, eta zein izango den irudi horien geroko destinoaren gaineko erantzukizuna, horiek erabilezin bihurtzea edo suntsitzea barne. Galdetegiari emandako erantzunetatik ondorioztatzen da kontsultatutako administrazio publiko ia guztiek dituztela grabazioak kudeatzeko protokoloak. Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailaren kasuan, azaldu da bere instalazio-baimenek zehazten dutela zein den grabazioen zaintza materialaz arduratzen den polizia- edo administrazio-unitatea.

Hala ere, toki-erakunde kasuan, gehienetan esaten da ez dagoela grabazioen kudeaketaz arduratzen den administrazio-organoa edo -unitate espezifikorik, eta erantzuten da herritarren segurtasunerako arloa edo saila edo udaltzaingoaren burua dela. Bilbo nabarmentzen da; izan ere, udalak zehazten du kudeaketa-unitatea edo -organoa udaltzaingoaren ikus-entzunezkoen laborategia dela, eta horrek jardunbide egokia dirudi independentziari eusteko, zaintza eta trazabilitatearen berme gisa, legitimatutako hirugarrenen esku jartzen diren kasuen aurrean. Beste kasu batzuetan, Bilboko polizia-kidegoaren antzeko egiturarik ez dagoenez, gomendagarria dirudi grabazioak zaintzeko eta gordetzeko protokolo espezifikoak ezartzea, polizia-jarduketan independentzia bermatzeko, batez ere zaintzaren trazabilitatearena, hirugarren legitimatuek egindako sarbide-eskaeren aurrean, baimenik gabe galtzea edo suntsitzea saihesteko.

Horrela, berme gehiago eman ahal izango dira herritarren eskubideak babesteko, eskubideak baliatzeari eragiten dioten kasuetan (gutxieneko eta gehieneko gordetzeko epeak ezarriz), eta eskubide horiek organo judizialen edo beste polizia batzuen edo, are gehiago, erakunde horren esku jartzeko.



Azkenik, azpimarratu behar da **araudiak ez duela gutxieneko eperik ezartzen irudiak gordetzeko**, eta, horren ondorioz, gordetzeko erabakiak eta, hala badagokio, hirugarrenen esku jartzeko erabakiak teknologiaren mende geratzen dira, sistemak ez duelako uzten nahi baino denbora gehiago grabatzen gehienezko epeetara iritsi arte, edo barne-langileen erabaki diskrezionalak, zaintza- eta trazabilitate-protokolorik ezean, edozein unetan irudiak suntsitzeko aukera emango luketenak.

Hala, pentsa daiteke bideozaintza-sistema batek irudiak 48 orduz soilik grabatzeko aukera ematen duela; izan ere, ordu horiek igarota, grabatutako historiala ezabatu egiten da hartutako irudiekin, hurrenez hurren. Beraz, grabazioak modu automatizatuan suntsitzen dira, haiek gordetzea eta eskura jartzea eragiten duen salaketa-rik edo arau-hausterik egon ezean. Alde horretatik, erakunde honek uste du grabazioak kudeatzeko eta gordetzeko protokoloek eta jarraibideek arau argiak ezarri behar ko lituzketela irudiak behar bezala baimendutako langileek zaintzeko eta trazabilizatearentzako, bideoen osotasunari buruzko edozein zalantza argitzeko eta, gainera, eskumena duten edo legitimazioa duten barneko edo kanpoko beste organo batzuen esku jartzeko.

Gainera, bideozaintzako datu pertsonaletarako sarbideak, agian, tratamendurako baimena duten langileei buruzko irizpide argiak bete behar ko ditu, datuak babesteko araudian eta SENEan aurreikusitakoaren arabera, ondorengo ataletan ikusiko den bezala, informazioaren segurtasuna eta konfidentzialtasuna bermatzeko, bai eta administrazioaren jardueraren gardentasuna, osotasuna eta legez kotasuna bermatzeko ere.

Egia esan, irudiak behar ez bezala erabiltzeak ondorio juridikoak ekar diezazkieke barneko langileei, LOVFCSaren [Zazpigarren xedapen gehigarrian](#) aurreikusten den bezala:

“1. Se considerarán faltas muy graves en el régimen disciplinario de las Fuerzas y Cuerpos de Seguridad del Estado, las siguientes infracciones:

a) Alterar o manipular los registros de imágenes y sonidos siempre que no constituya delito.

b) Permitir el acceso de personas no autorizadas a las imágenes y sonidos grabados o utilizar éstos para fines distintos de los previstos legalmente”.

Xedapen horrek berariazko aurreikuspena du EAEPLaren [139. artikuluan](#), eta, beraz, badirudi gomendagarria dela bideozaintzako irudiak kudeatu, gorde eta trazabilitaterako protokoloak zehatz-mehatz zehaztea, gutxieneko epe batez, soilik baimendutako langileek barne-erabilerarako edo legitimatutako hirugarrenen eskura



jartzeko, 168/98 Dekretuaren [12. artikuluan](#) (irudiak zaindu eta gordetzeari buruzkoa) aurreikusitakoarekin bat etorritz.

IV.6. Informazio-printzipioa

IV.6.1. Emitzak

Administrazioa	Informazio-printzipioa (bitartekoak eta kanalak)
Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Saila	Datuak babesteko eta herritarren segurtasunerako kartelak erabiltzen dira kamera finkoei buruzko informazioa emateko, eta kartelak ere erabiltzen dira kamera mugikorrei buruz ohartarazteko, bai eta uniformeetan, ibilgailuetan edo gailuaren kokalekuan ikus daitezkeen bereizgarrien bidez ere, baina ez web orrien, sare sozialen eta antzeko kanalen bidez.
Gasteizko Udala	Bi kartel-mota horien bidez ematen da kamera finkoen berri, eta ageriko bereizgarriak erabiltzen dira uniformeetan, ibilgailuetan edo kamera mugikorretarako gailuaren kokalekuan, baina ez web-orrien, sare sozialen eta antzeko kanalen bidez. Hirigunerako sarbidea erregulatzeko kameraren berri ere ematen da, baina ez dute grabatzen.
Bilboko Udala	Atzealde urdineko kartelak erabiltzen dira kamera finko eta mugikorretarako. Bestelako bideozaintzarako informazio-kartelak daude.
Donostiako Udala	Datuak babesteko kartelak erabiltzen dira, eta atzealde urdinekoak herritarren segurtasunerako. Kamera mugikorrei buruz (droneak, makuluak) kartel urdinekin informatzen da.
Barakaldoko Udala	Atzealde urdineko kartelak herritarren segurtasunerako
Portugaleteko Udala	Bi motetako kartelak, datuen babesagatik eta herritarren segurtasunagatik.
Getxoko Udala	Datuak babesteko eta herritarren segurtasunerako informazio-kartelak.



Administrazioa	Informazio-printzipioa (bitartekoak eta kanalak)
Basauriko Udala	<p>Datuak babesteko eta herritarren segurtasunerako informazio-kartelak.</p> <p>Ageriko bereizgarriak erabiltzen dira uniformeetako kameren bidez grabatzeari buruz informatzeko.</p>
Errenteriako Udala	<p>Bi kartel motak, lortu nahi diren helburuen arabera: datuen babeserako eta atzealde urdinekoak, herritarren segurtasunerako.</p>
Tolosako Udala	<p>Atzealde urdineko kartelak herritarren segurtasunerako, eta horretarako kartelak jartzen dira udal-instalazio eta -esparruetan.</p>
Irungo Udala	<p>Atzealde urdineko kartelak herritarren segurtasunerako.</p>
Laudioko Udala	<p>Bi kartel motak, lortu nahi diren helburuen arabera: datuen babeserako eta atzealde urdinekoak, herritarren segurtasunerako.</p>
Zumarragako Udala	<p>Bi kartel motak, lortu nahi diren helburuen arabera: datuen babeserako eta atzealde urdinekoak, herritarren segurtasunerako.</p>
Eibarko Udala	<p>Bi kartel motak, lortu nahi diren helburuen arabera: datuen babeserako eta atzealde urdinekoak, herritarren segurtasunerako.</p>
Ermuko Udala	<p>Kamera finkoak: Atzealde horiko edo antzeko informazio-kartelak, datuen babeserako.</p> <p>Kamera mugikorrak: Uniformeetan, ibilgailuetan edo gailuaren kokalekuan ikusteko moduko bereizgarrien bidez ematen da informazioa, eta web orrien, sare sozialen eta antzeko kanalen bidez.</p>



IV.6.2. Azterketa eta balorazioa

Bideozaintza-sistemak egoteari dagokionez herritarrei eman behar zaizkien publizitate- eta informazio-modalitate arautuek ez dute beti behar bezala ezartzen horren irismena eta testuingurua.

Herritarren segurtasunerako bideozaintzari dagokionez, LOVFCSak ezartzen du herritarrei informazioa eman behar zaiela *“de manera clara y permanente de la existencia de videocámaras fijas, sin especificar su emplazamiento, y de la autoridad responsable”* ([9. artikulua](#)), eta, gainera, 168/98 Dekretuak modu berean arautzen du betebehar hori ([8. artikulua](#)), nahiz eta 2. atalean *“eskumena daukan organoak aintzat hartzen dituen herri intereseko arrazoiak tarteko direnean, baimena emateko erabakia labur bildurik Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu ahal izango da. Laburpenean zehaztasun hauek azalduko dira: baimenaren data, indaraldia, kamerez zainduta egongo diren tokien kokaera orokorra, kamerak non dauden zehaztu gabe, eta kamerak zaintzeaz eta grabazioak eskuratzeko edo baliogabetzeko eskaerak ebazteaz arduratuko diren organoa eta agintaritza”* gehitu. Formula horrek, zenbait kasutan eta aipatutako interes publiko horren mesedetan, berariazko arauketarik eza osa lezake, nahiz eta Arartekoak ez duen horri buruzko argitalpenik hauteman aldizkari ofizialetan.

7/2021 Lege Organikoaren [16.5 artikulua](#) ere adierazten du *“Los ciudadanos serán informados de manera clara y permanente de la existencia de estas videocámaras fijas, sin especificar su emplazamiento, así como de la autoridad responsable del tratamiento ante la que poder ejercer sus derechos”*, baina instalazio finkoei buruzko arauan kokatzen da.

Gainera, Eusko Jaurlaritzako Herrizaingoko sailburuaren [2011ko apirilaren 15eko Aginduak](#), Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziak instalazio **finkoak** instalatzeko eta erabiltzeko informazio-kartelen edukia eta diseinua ezartzen dituenak, arestian aipatutako aginduak garatzen ditu, eta Euskadiko poliziak bide eta eremu publikoetan egindako bideozaintzari buruz ohartarazi behar duten kartelen ezaugarriak arautzen ditu.

Aipagarria da agindu horrek informazioa emateko moduari egiten diola erreferentzia, bideozaintza instalazio **finkoen** bidez egiten denean. Adierazi behar da arauaren oinarria BABak hartutako irizpideetan oinarritzen dela. Irizpide horiek, 2009ko urriaren 7ko bilkuran, ezarri zuten *“jendaurreko informazio hori informazio-kartelak jarritz jakinaraziko zela, eta kartel horiek argiak, ikusten errazak eta iraunkorra izan*



behar zirela, horrela jendeak jakingo baitzuen bideokameraz zaindutako eremu batean sartzen zela. Kartelak jendeak ikusteko behar beste izan behar dira, nonahitik sartzen delarik ere, horrela uneoro jakingo baitu bideokameraz zaindutako eremu batean dagoela”.

Oro har, azterlanean parte hartu duten administrazioek emandako erantzunen arabera, badirudi bete egiten dela bideozaintzako instalazio **finkoak** daudela jakinarazteko betebeharra, Eusko Jaurlaritzako Herrizaingoko sailburuaren [2011ko apirilaren 15eko Aginduan](#) ezarritako ezaugarriak dituzten atzealde urdineko kartelak daudela onartzen baita. Zumarragako Udalaren kasuan, herritarren segurtasunerako atzealde urdineko kartelak daudela aipatzen da, baina lehenago jakinarazi du ez direla horretarako erabiltzen eta ez dutela horretarako baimenik.

Aipatutako aginduak, azaldu den bezala, instalazio **finkoei** buruzko informazioa emateko betebeharrari baino ez dio erreferentzia egiten, eta horrek aplikazio-eremutik kanpo uzten ditu gailu **mugikorrak**, eta, beraz, komenigarria dirudi xedapena berrikustea eta eguneratzea.

Nolanahi ere, gomendagarria dirudi euskal administrazioek aldian-aldian erabili eta jarritako kartelak berrikustea, instalazioaz arduratzen den agintaritzaren berri eman behar baitute, herritarrek beren eskubideak balia ditzaten.

Zaila dirudi araudian ezarritako informatzeko betebeharra betetzea, BABak adierazitako irizpidearen arabera, azterlanean parte hartzen duten administrazioek jakinarazitako gailu **mugikorrak** erabiltzen direnean. Jakina, bada lege-hutsune bat, ez da herritarrei informazioa emateko modua ezartzen herritarren segurtasun-arrazoiengatik erabiltzen diren kamera **mugikorren** bidez irudiak hartu eta erabiltze-ari buruz. Horrek segurtasun juridikorik eza dakar, izan ere, kidego bakoitzak informatzeko modua eta modua aukeratzen duelako, edo, kasu askotan, ez delako informatzen.

Zalantzarik gabe, beharrezkoa da herritarrei gailu **mugikorren** erabilerari buruzko informazioa emateko betebeharrari buruzko berariazko erregulazio bat izatea, hala nola, administrazioek polizia-uniformeetan, drone edo makulu eramangarrien bidez, besteak beste, erabiltzen dituztenean ematen dituztenak.

Nolanahi ere, araudirik ez dagoenez, komeni da gai hori konpontzea, herritarrek beren datu pertsonalen tratamenduari eta atzipenari buruz alde aurretik informazioa jasotzeko duten eskubidea bermatze aldera. Alde horretatik, Arartekoaren iritziz,



informazioaren printzipioa garatu eta bermatu beharreko alderdi saihestezintzat hartzen duten barne-protokoloak edo -jarraibideak garatzea neurri egingarria da, herritarren irudiak gailu **mugikorren** bidez hartu eta tratatzeari buruz informatzeko betebeharra betetzeko, praktikan, pertsonen ohorerako, norberaren irudirako eta intimitaterako eskubidean eragin handiagoa izan dezaketen sistemak baitira.

Badaude urgentziazko kasu batzuk, agian aldeztatik aurreikusi ezin direnak; hala ere, ekitaldi masiboen aurrean emandako erabileren kasu gehienetan, onargarria dirudi herritarrei aldeztatik edo, halakorik ezean, informazioa emateko bitartekoak artikulatzea, herritarrei kaptazioaren arduraduna eta testuingurua edo izaera ezagutzeko aukera emango dieten barne-xedapenak sortzeko, eta, bereziki, arrisku edo gertaera jakin baten aurrean dauden arrazoiak, LOVFCsaren [6.4 artikuluan](#) eta [7/2021 Lege Organikoaren 17.1 artikuluan](#) xedatutakoaren arabera.

Bestalde, bideozaintza-arrazoiengatik datu pertsonalak tratatzeko jarduerak argitaratzea betebeharra da, baina baita herritarrei lortu nahi den xedeari, helburuei eta legitimazioari buruzko informazioa emateko modu egokia ere. Datuen babesaren arloko betebeharrei buruzko alderdiak azterlan honetako "[Datuen babeserako oinarriko betebeharrak](#)" atalean aztertzen dira.

Azkenik, adierazi behar da interesdunari 7/21 Lege Organikoan xedatutakoaren arabera bere datu pertsonalen tratamenduaren berri emateko betebeharra ez bete-tzeak arau-hauste oso larria ekar dezakeela ([58.f artikulua](#)), eta, jakina, irudiak hartzea datu pertsonalen tratamendua dela.



IV.7. Herritarren eskubideen erabilera eta arreta

IV.7.1. Emaitzak

Administrazioa	Eskubideen erabilera eta arreta
Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Saila	<p>Grabazioekin loturiko eskubideak (hala nola sarbidea lortzeko edo ezabatzeko) baliatzea zaintzeaz arduratzen den barne-unitatea edo -organoa honako hau da:</p> <p>SSBa, polizia-kudeaketako bideozaintzarako; baita dagokion organo arduraduna ere (Zuzendaritza), bideozaintzako tratamendu-jarduera bat duenean.</p> <p>Bideozaintzako tratamendu-jarduera bakoitzaren organo arduraduna:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Segurtasun Sailburuordetza, Ertzaintzaren eta haren instalazioen kudeaketaren bideozaintzarako; - Trafiko Zuzendaritza bere eremuan. <p>Grabazioekin lotutako eskubideei erantzuteko protokolo edo prozedura bat dago.</p>
Gasteizko Udala	<p>Eskubideak baliatzeko ardura duen barne-unitatea edo -organoa: Udaltzaingoaren burutza. Protokoloa dute.</p>
Bilboko Udala	<p>Eskubideak baliatzeko ardura duen barne-unitatea edo -organoa: Datuen tratamenduaz arduratzen diren unitateetako zuzendaritzak: Aurrekontu Zuzendaritza (eraikinetako kamerak), Udaltzaingoaren Zuzendaritza (Herritarren Segurtasunerako kamerak) eta Mugikortasun eta Jasangarritasun Zuzendaritza (trafiko-kamerak).</p> <p>Grabazioekin lotutako eskubideei erantzuteko protokolo edo prozedura bat dago.</p>
Donostiako Udala	<p>Eskubideak baliatzeko ardura duen barne-unitatea edo -organoa: udaltzaingoaren burutza.</p> <p>Eskubideei erantzuteko protokoloa dago.</p>
Barakaldoko Udala	<p>Eskubideak baliatzeko ardura duen barne-unitatea edo -organoa: udaltzaingoaren burutza.</p> <p>Eskubideei erantzuteko protokoloa dago.</p>



Administrazioa	Eskubideen erabilera eta arreta
Portugaleteko Udala	<p>Grabazioekin lotutako eskubideak (hala nola sarbidea lortzeko edo ezabatzeko) baliatzea zaintzeaz arduratzen den barne-unitatea edo -organoa Alkatetza da - eskuratzeko eta ezerezteko eskubideetarako.</p> <p>Eskubideei erantzuteko protokoloa dago.</p>
Getxoko Udala	<p>Eskubideak baliatzeko ardura duen barne-unitatea edo -organoa: Udalaren datuen babeserako ordezkaria.</p> <p>Eskubideei erantzuteko protokoloa dago.</p>
Basauriko Udala	<p>Eskubideak baliatzeko ardura duen barne-unitatea edo -organoa: Grabazio-baliabideak dituen arloko burutza, zuzendaritza edo arduraduna arduratzen da, eta bere ardura da horiek instalatzea.</p> <p>Eskubideei erantzuteko protokoloa dago.</p>
Errenteriako Udala	<p>Eskubideak baliatzeko ardura duen barne-unitatea edo -organoa: udaltzaingoaren burutza.</p> <p>Eskubideei erantzuteko protokoloa dago.</p>
Tolosako Udala	<p>Eskubideak baliatzeko ardura duen barne-unitatea edo -organoa: udaltzaingoaren burutza.</p> <p>Eskubideei erantzuteko protokoloa dago.</p>
Irungo Udala	<p>Eskubideak baliatzeko ardura duen barne-unitatea edo -organoa: udaltzaingoaren burutza.</p> <p>Eskubideei erantzuteko protokoloa dago.</p>
Laudioko Udala	<p>Eskubideak baliatzeko ardura duen barne-unitatea edo -organoa: udaltzaingoaren burutza.</p> <p>Eskubideei erantzuteko protokoloa dago.</p>
Zumarragako Udala	<p>Eskubideak baliatzeko ardura duen barne-unitatea edo -organoa: udaltzaingoaren burutza.</p> <p>Eskubideei erantzuteko protokoloa dago.</p>



Administrazioa	Eskubideen erabilera eta arreta
Eibarko Udala	Eskubideak baliatzeko ardura duen barne-unitatea edo organoa: udaltzaingoaren burutza. Eskubideei erantzuteko protokoloa dago.
Ermuko Udala	Eskubideak baliatzeko ardura duen barne-unitatea edo organoa: udaltzaingoaren burutza. Eskubideei erantzuteko protokoloa dago.

IV.7.2. Azterketa eta balorazioa

Bideozaintzaren arloko xedapenek herritarren segurtasun-arrazoiengatik egindako bideozaintzako irudiak eskuratzeko eta, hala badagokio, ezeztatzeko herritarrek dituzten eskubideak arautzen dituzte. Era berean, legeriak ezartzen du administrazioek nola eta zer irizpideri jarraitu behar dieten eskubide horiek baliatzeko orduan.

Hala, LOVFCsaren 9.2 artikulua honako hau ezartzen du:

“Toda persona interesada podrá ejercer los derechos de acceso y cancelación de las grabaciones en que razonablemente considere que figura. No obstante, el ejercicio de estos derechos podrá ser denegado por quien custodie las imágenes y sonidos, en función de los peligros que pudieran derivarse para la defensa del Estado, la seguridad pública, la protección de los derechos y libertades de terceros o las necesidades de las investigaciones que se estén realizando”.

168/98 Dekretuaren [15. artikulua](#) sarbide- eta ezerezte-eskubideak eskatzeko baldintzak eta horien arreta-irizpideak zabalitzen ditu. Azpimarratu behar da ukatzeko arrazoiak eta arreta-epea (hilabete 1) arautzen direla, eta honen bidez, *“Herri-zaindako sailburuaren Agindua, eskuratzeko eta deuseztatzeko eskubideak gauzatzeko prozedura eta modalitateak garatuko dituena”*, xedapen hori ez da onartu gaur arte.

Era berean, 7/21 Lege Organikoaren [20. artikulua](#) pertsona interesdunen eskubideak baliatzeko baldintza orokorrak arautzen ditu, eta, beraz, bideozaintzako grabazioen gaineko eskubideak baliatzeko aukera ere jasotzen du. Azpimarratzekoa da arau horrek xehetasun handiagoz arautzen dituela datuak eskuratzeko eskubidea-



ren modua eta arreta, bai eta datuak zuzendu, mugatu eta ezabatzeko eskubideak ere; beraz, ezerezteko eskubidea desagertu egiten da.

Parte hartzen duten administrazio publikoek emandako erantzunei dagokienez, nabarmendu behar da, lehenik eta behin, parte hartzen duten administrazio publiko ia guztiek adierazi dutela herritarren eskubideei arreta emateko protokoloak edo prozedurak dituztela bideozaintzarekin lotutako datuen tratamenduei dagokienez. Alderdi hori positibotzat jotzen da, nahiz eta ez dakigun protokolo horien barne-hedapenaren maila eta bideozaintzaren kasuekin duten koherentzia. Alde horretatik, bereizi egin behar dira tratatu beharreko datu pertsonalak biltzen dituzten datuak eskuratzeko eta ezabatzeko eskubideak, instalazioen, ondasunen eta pertsonen segurtasuna zaintzeko helburuarekin, eta herritarren segurtasuna helburu duten tratamenduak, herritarren segurtasunerako bideozaintzari buruzko arauak berezitasunak baitituzte.

Ohartarazi behar da datuak babesteko egungo arauak eta 7/2021 Lege Organikoak herritarrek erabil ditzaketen eskubide berriak arautzen dituztela, 1997ko eta 1998ko xedapenetan jasotzen ez direnak. Zehazki, gaur egun, herritarrek, herritarren segurtasunerako bideozaintzari dagokionez, sarbide-eskubidea balia dezakete, baina baita zuzentzeko, mugatzeko edo ezabatzeko eskubidea ere, aurreko xedapenetan aurreikusten ez direnak. Kontuan hartu beharreko funtsezko arau-alderdia, herri-administrazioek garatutako protokoloek herritarren eskubideen errealitate juridikoari erantzun diezaioten.

Bestalde, nabarmendu behar da administrazioek barne-organoei esleitzen dietela herritarren eskubideen kudeaketa eta arreta, bideozaintza-sistema motaren eta kontrolaren edo babesaren xedearen arabera. Kasu batzuetan, udal-arlo edo zuzendaritza desberdinek dute eskubideen arretaren ardura, kontuan hartuta udal-instalazioetako, herritarren segurtasuneko edo errepideko kamerak diren (Bilboko Udala). Beste batzuetan, datuak babesteko ordezkaria da zuzenean eskubideak baliatzeko ardura izango lukeena.

Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailaren kasuan, zehaztutako tratamendu-jardueren arabera bereizitako organo bakoitzak erantzuten du, bai Segurtasun Sailburuordetzak Ertzaintzaren eta haren instalazioen polizia-kudeaketaren edo bideozaintzaren arloan, bai Trafiko Zuzendaritzak bere kontrol- eta eskumen-eremuan.



lido horretan, geroago adierazten den bezala, Eusko Jaurlaritzaren jardueren erre-gistroan¹⁸ ez dago herritarren segurtasunerako bideozaintzaren arloko datu pertso-nalak tratatzeko jarduerarik, Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Sailaren titulartasun-pean. Beraz, ez dakigu zein organoren aurrean erabili behar diren horretarako eskubideak.

Hala ere, [Ertzaintza.euskadi.eus](https://www.ertzaintza.euskadi.eus)¹⁹ Interneteko domeinuan dagoen web-orrian, bide-ozaintza izeneko tratamendu-jarduera bat definitzen da, zeinaren erantzukizuna SSBari esleitzen baitzaio, eta eskubideak baliatzeko leku gisa aipatzen du Erandio-ko Euskadiko Poliziaren Datuak Lantzeko Zentroa (CEDPE), eta helbide elektronikoko bat eskaintzen da eskubideak baliatzeko: dpd-dbo@ertzaintza.eus.

Bideozaintzaren arloko eskubideen arretari buruzko irizpideak bateratzea komeni dela dirudi, herritarrek jakin dezaten EAEko datuak babesteko ordezkararen aurrean planteatu behar diren, Jaurlaritzaren erregistroan agertzen diren SSBaren titularta-suneko gainerako tratamendu-jardueretarako aurreikusten den bezala, edo Ertzain-tzaren datuak babesteko ordezkarirengana jo behar den.

Modu proaktiboan eta positiboan, datuak babesteko ordezkararen webguneak²⁰, Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saileko Araubide Juridikoaren Sailburuorde-tzari organikoki atxikitako unitateak, bideozaintzari eta eskubideak baliatzeko bitar-tekoei buruzko berriazko informazioa eskaintzen du²¹, eta, zehazki, Ertzaintzak egindako tratamenduei aplikatu dakizkiekeen alderdi bereziei buruzkoa²², baina, praktikan, ez da behar bezala bereizten zein organoren aurrean erabili behar diren eskubideak bideozaintzaren esparruan eta administrazioak lortu nahi dituen helbu-ruen arabera.

Arartekoaren iritziz, funtsezkoa da eskubideak baliatzeko eta arreta emateko kasu bakoitzean aplikatzekoak diren arauak eta xedapenak ezagutzea eta bereiztea, gor-detzeko epeak desberdinak izan baitaitezke, eta sartzeko eta ezabatzeko mugak ere desberdinak, tratamenduaren xedearen arabera. Hala, herritarren segurtasuna-ren arloan, bideozaintzari buruzko eskubideei arreta emateko araubide berezi bat dago, datuak babesteko araudian ezarritako araubidetik desberdina dena.

¹⁸ <https://www.euskadi.eus/web01-aprat/eu/ac34aRatWebWar/control/arboll?locale=eu>.

¹⁹ <https://www.ertzaintza.euskadi.eus/lfr/eu/web/ertzaintza/proteccion-de-datos-de-caracter-personal>.

²⁰ <https://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritza/datuak-babesteko-ordezkaria/hasiera/>.

²¹ <https://www.euskadi.eus/bideozaintza-kameren-datuaren-tratamendua/web01-a2datuba/eu/>.

²² <https://www.euskadi.eus/ertzaintzaren-aurrean-eskubideak-baliatzea/web01-a2datuba/eu/>.



IV.8. Datuen babeserako oinarrizko betebeharrak

IV.8.1. Emaitzak

Administrazioa	Eskubideen erabilera eta arreta
Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Saila	<ul style="list-style-type: none"> - Tratamendua legitimatzeko sortutako eta gardentasun-atarian argitaratutako tratamendu-jarduerak daude. - Zilegitasuna: herritarren segurtasuna, ondasun eta pertsonen instalazioen segurtasuna zaintzea, interes legitimoaren eta trafikoaren diziplina- ren arabera. - Datuak beste polizia eta organo judizial batzuei lagatzea aurreikusten da.
Gasteizko Udala	<ul style="list-style-type: none"> - Tratamendu-jarduerak daude, baina gardentasun-atarian argitaratu ga- be. - Zilegitasuna: Interes legitimoa, herritarren segurtasuna eta trafiko- diziplina. - Polizieiei eta organo judizialei lagatzea aurreikusten da.
Bilboko Udala	<ul style="list-style-type: none"> - Tratamendua legitimatzeko sortutako eta gardentasun-atarian argitaratutako tratamendu-jarduerak daude. - Zilegitasuna: herritarren segurtasuna, ondasun eta pertsonen instalazioen segurtasuna zaintzea, interes legitimoaren eta trafikoaren diziplina- ren arabera. - Datuak beste polizia eta organo judizial batzuei lagatzea aurreikusten da.
Donostiako Udala	<ul style="list-style-type: none"> - Adierazi dute hainbat sortu direla lortu nahi diren helburuen arabera (herritarren segurtasuna, trafikoaren diziplina, ondasun eta instalazioen babes- a, etab.), eta ez daudela gardentasun-atarian argitaratuta. - Zilegitasuna: Interes legitimoa, herritarren segurtasuna, trafikoaren diziplina. - Organo judizialei eta beste polizia batzuei lagatzea (tratamendu- jardueran ez da aurreikusten).
Barakaldoko Udala	<ul style="list-style-type: none"> - Ez dute sortutako datuen tratamendurako jarduerarik, baina, ondoren, gardentasun-atarian argitaratuta daudela adierazi dute. - Zilegitasuna: herritarren segurtasuna, trafikoaren diziplina. - Polizieiei eta organo judizialei lagatzea aurreikusten da, eta tratamendu- jardueran ere zuzena da.



Administrazioa	Eskubideen erabilera eta arreta
Portugaleteko Udala	<ul style="list-style-type: none"> – Hainbat jarduera sortu dira lortu nahi diren helburuen arabera (herritarren segurtasuna, trafikoaren diziplina, ondasun eta instalazioen babesa, etab.). – Zilegitasuna: Interes legitimoa, herritarren segurtasuna, trafikoaren diziplina. – Organo judizialei eta beste polizia batzuei lagatzea.
Getxoko Udala	<ul style="list-style-type: none"> – Helburuen arabera (herritarren segurtasuna, trafikoaren diziplina, ondasun eta instalazioen babesa, etab.) hainbat jarduera sortzea aipatzen dute, eta gardentasun-atarian argitaratuta daude. – Lagapenak: organo judizialak eta beste polizia batzuk.
Basauriko Udala	<ul style="list-style-type: none"> – Tratamendu-jarduerak daude, baina gardentasun-atarian argitaratu gabe. – Zilegitasuna: Interes legitimoa, herritarren segurtasuna. – Organo judizialei eta beste polizia batzuei lagatzea.
Errenteriako Udala	<ul style="list-style-type: none"> – Ez da datuak tratatzeko jarduerarik sortu, eta ez da gardentasun-atarian argitaratu. – Zilegitasuna: interes legitimoa, herritarren segurtasuna eta trafikoaren diziplina. – Organo judizialei eta beste polizia batzuei lagatzea.
Tolosako Udala	<ul style="list-style-type: none"> – Ez da tratamendu-jarduerarik sortu, eta ez da gardentasun-atarian argitaratu. – Zilegitasuna: interes legitimoa eta trafikoaren diziplina. – Organo judizialei egindako lagapenak.
Irungo Udala	<ul style="list-style-type: none"> – Jarduerak sortu dira eta gardentasun-atarian ageri dira – Zilegitasuna: interes legitimoa, herritarren segurtasuna eta trafikoaren diziplina. – Organo judizialei eta beste polizia batzuei lagatzea.
Laudioko Udala	<ul style="list-style-type: none"> – Esan dute ez dagoela tratamendu-jarduerarik eta ez daudela gardentasun-atarian. – Zilegitasuna: interes legitimoa, herritarren segurtasuna, (trafikoaren diziplina ez). – Epea bereizten da (hilabete 1 datuen babesaren segurtasunaren arloan. 3 hilabete arau-hauste penalak prebenitu, detektatu, ikertu eta epaitze-agatik.) – Organo judizialei eta beste polizia batzuei egindako lagapenak.



Administrazioa	Eskubideen erabilera eta arreta
Zumarragako Udala	<ul style="list-style-type: none"> – Tratamendu-jarduera dago, baina gardentasun-atarian argitaratu gabe. – Datuen babesari dagokionez, adierazi da tratamenduaren oinarri juridikoa herritarren segurtasuna dela, baina, hala ere, ez da kontuan hartzen bideozaintzaren helburuei buruzko galderan. – Organo judizialei lagatzea aurreikusten da.
Eibarko Udala	<ul style="list-style-type: none"> – Tratamendu-jarduera dago, baina gardentasun-atarian argitaratu gabe. – Zilegitasuna: interes legitimoa, trafikoaren diziplina. – Organo judizialei eta beste administrazio eskudun batzuei lagatzea aurreikusten da.
Ermuko Udala	<ul style="list-style-type: none"> – Tratamendu-jarduera dago, baina gardentasun-atarian argitaratu gabe. – Zilegitasuna: interes legitimoa, trafikoaren diziplina. – Organo judizialei eta beste administrazio eskudun batzuei lagatzea aurreikusten da.

IV.8.2. Azterketa eta balorazioa

Datuak babesteko indarrean dagoen araudiak ([DBEOren 30. artikulua](#) eta [DPBED-BLOaren 31. artikulua](#)) ezartzen du datu pertsonalak tratatzeko jardueren erregistroak sortu behar direla, datu-bilketaren arduradunek egiten dituzten datu pertsonalen tratamenduen egitura, helburuak eta zilegitasuna definitzeko, besteak beste.

Sektore publikoaren eremuan, gainera, sortutako tratamendu-jarduerak dagozkien gardentasun-atarietan argitaratu behar dira, [GGOLaren 6 bis artikulua](#) arabera.

Emandako erantzunen arabera, kasu gehienetan ez da sortu instalazioen, ondasunen eta pertsonen segurtasuna zaintzeko tratamendu-jarduerarik. Hau da, ez dago edo ez da adierazten zilegitasunak interes publikoko helbururen bat duela, hala nola herritarren segurtasuna.

Arartekoaren ustez, zenbait kasutan, datuak tratatzeko gaitzen duen oinarri juridikoa izan daiteke instalazio edo ondasun batzuen segurtasuna zaintzeko interes legitimoa, [DPBEDBLOaren 22.1 artikulua](#) arabera, hala nola zerbitzu publikoak emateko soilik erabiltzen diren eraikinak, non nekez gerta baitaiteke herritarren segurtasunerako benetako arrisku eraginkorrik, edo kontrolaren xedea ondasuna bera edo instalazioa baita, hala nola eskailera mekanikoak, kirol-esparru batzuk,



kultura-eraikinak, bulegoak, bizikleta-aparkalekuak edo elementu batzuen barrualdeak.

Alde horretatik, gomendagarria dirudi datu pertsonalak tratatzeko jarduerak sortzea, kontrolaren xedearen eta gaitzen duten arauen arabera, edo datuen babesarren edo herritarren segurtasunaren arabera.

Bideozaintzaren arloko tratamendu-jardueri dagokienez, nabarmentzekoa da Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailak adierazi duela bideozaintza legitimatzen duten tratamendu-jarduerak sortu dituela eta administrazioaren gardentasun-atarian argitaratuta daudela. Hala ere, erakunde honek erregistro horri egindako kontsultatik²³ ezin izan da antzeman herritarren segurtasunerako bideozaintza izeneko tratamendu-jarduerarik. Hala ere, trafikoaren bideozaintzari buruzko tratamendu-jarduera bat sortu eta argitaratu da gardentasun-atarian, saileko Trafiko Zuzendaritzaren mende.

Egia esan, [ertzaintza.euskadi.eus](https://www.ertzaintza.euskadi.eus)²⁴ izeneko beste webgune batean datu pertsonalak tratatzeko jarduerak deskribatuta daude, eta horien artean bideozaintzari buruzko jarduera bat dago, helburu aitortu hau duena: *“Euskadiko Poliziak toki publikoetan bideokamerak erabiltzeko baimenen eta haien erabileraren erregimenarekin zerikusia duten eskaerak, jarduketak eta prozedurak izapidetzea eta kudeatzea, bai eta Segurtasuneko Sailburuordetzaren erantzukizunpean dauden grabazioak (irudia eta soinua) kudeatzea ere”*.

Arartekoaren iritziz, komenigarria litzateke irizpideak bateratzea, herritarrek jakin ahal izan dezaten Segurtasun Sailaren ardurapeko datu-tratamenduak zein jardueraregistro zehatzetan agertuko diren; izan ere, tratamenduaren arduraduna SSBa da kasu guztietan, baita bideozaintzaren kasuan ere.

Bideozaintzaren arloan aitortutako tratamenduaren helburuari dagokionez, ondoriozta daiteke grabazioak kudeatzea baino ez dagokiola arduradunari, eta argi dago administrazioak hartzen duela sistema horiek ezartzeko erabakia. Alde horretatik, Arartekoak uste du zehatzago zehaztu beharko litzatekeela zer datu-tratamendu ematen den instalazioetan, herritarren segurtasunerako espazio publikoetan, zer motatako sistema finko eta mugikorrekin egiten den, eta, azken kasu horretan, zer gailu mota erabiltzen diren. Edo, hala badagokio, agian egokia litzateke datuak bideozaintza bidez tratatzeko jarduera gehiago deskribatzea, erabilitako sistema mo-

²³ <https://www.euskadi.eus/web01-aprat/eu/ac34aRatWebWar/control/arbol?locale=eu>.

²⁴ <https://www.ertzaintza.euskadi.eus/lfr/web/ertzaintza/protecci%C3%B3n-de-datos-de-car%C3%A1cter-personal>.



ten arabera bereizita: finkoak edo mugikorrak, espazio publikoak edo instalazio publikoak, oinarri juridiko bereziak, etab.

Bestalde, Eusko Jaurlaritzaren jardueren erregistroko bideozaintza izeneko atalean adierazten da aplikatu beharreko araubidea interes publikoa eta segurtasun pribatuaren legea direla. Araudi hori, agian, ezin zaio zuzenean aplikatu administrazioari, eta bai, ordea, segurtasun pribatuko enpresa bati, Segurtasun Pribatuari buruzko 4/2014 Legearen [42. artikuluan](#) aurreikusitako lanak egiteko kontratatua, arauhaustek *“prebenitu”* eta pertsoneri edo ondasunei kalterik ez egiteko.

Nolanahi ere, uste da instalazioen, ondasunen eta pertsonen segurtasuna zaintzeko bideozaintza-sistemak ezartze hutsak bere babes juridikoa interes legitimoan izango lukeela, DPBEBLOaren [22. artikuluan](#) arabera, sarbide-kontrola eta horien babesaren ziurtapena POLIZIEK egiten ez dutenean.

Logikoa denez, polizia irudiak hartzeko beste zilegitasun bat izango lukete, lortu nahi den helburua herritarren segurtasunean eta trafikoaren kontrol eta diziplinan oinarritzen denean.

Parte hartu duten gainerako erakunde publikoei dagokienez, bideozaintzaren arloko datuen tratamendua definitzen duen tratamendu-jarduerarik ez duten edo gardentasun-atarian argitaratuta ez dauden kasu batzuk aipatu dituzte. Hala ere, hainbat gardentasun-atariren kontsultatik egiaztatu ahal izan da sortu eta argitaratu direla (Barakaldo²⁵, Donostia²⁶, Tolosa –ez da adierazten herritarren segurtasunari buruzko helburua–²⁷ eta Laudio²⁸).

Donostian bideozaintza-tratamenduko zenbait jarduera hauteman dira, zeinen kudeaketa eta helburua ez baitakigu zein barne-organori dagokion. “Gaueko aterpea” gaueko harrera-zerbitzuan, igogailuetan edo bizikleta-aparkalekuetan irudiak grabatzeko jarduerak dira, eta horien zilegitasuna interes publikoarekin bat dator (DBEOren 6.1.e) artikulua), baina AEPDren 1/2006 Jarraibidea ere aipatzen da, eskubidei erantzuteko oinarri juridiko aplikagarri gisa. Beraz, herritarren segurtasunerako interes publikoa aplikatu behar dela edo ondasun horiek babesteko interes legitimoa aplikatu behar dela ulertzen da, datuak babesteko araudiaren arabera. Izan

²⁵ https://www.barakaldo.eus/portal/c/document_library/get_file?uuid=37844c2f-e6a1-48ef-bc2b-b2aabb9fd95e&groupId=10317.

²⁶ <https://www.donostia.eus/ataria/web/info/pribatutasun-politika#registroTratamiento>.

²⁷ <https://udala.tolosa.eus/sites/default/files/1Pribatasun%20politika%20eta%20tratamendu%20jardueren%20erregistroa.pdf>.

²⁸ https://laudio.eus/doc/gardentasuna/Registro_Actividades_Tratamiento_Laudioko_Udala_v05_2022.pdf.



ere, toki-erakundeak polizia-zaintzako kamerei buruzko jarduera bat du, eta horrek behar bezala ezartzen du tratamenduaren zilegitasuna LOVFCSan.

Beste kasu batzuetan, erakunde honi jakinarazi zaio horretarako jarduerak sortu direla eta gardentasunagatik argitaratuta daudela, baina ezin izan dela egiaztatu (Portugalete²⁹). Basauriko eta Ermuko Udalek adierazi dute bideozaintzaren arloko tratamendu-jarduera dutela, baina ez dagoela gardentasun-atarian argitaratuta. Alderdi hori, administrazio horiek kamera **finko** eta **mugikorren** bidez egiten dituzten datu-tratamenduak kontuan hartuta, hobetu daitekeela dirudi. Era berean, Gasteiz³⁰ adierazi du bideozaintzaren arloko tratamendu-jarduera sortu dela, baina ez dagoela gardentasun-atarian argitaratuta. Hala ere, administrazio horrek badu tratamendu fisikoa izeneko jarduera bat, *"herritarren segurtasuna: polizia"* izeneko, zeinaren bidez bideozaintzarako datuak biltzen baitira, hau da, ez dago tratamendu bereiziko jarduerarik, *"sino que se subsume con carácter general en actuaciones de seguridad ciudadana efectuadas por la policía municipal como otras como por ejemplo, gestión de programas de educación vial o de licencias de taxi"*. Arartekoaren ustez, desiragarria da tratamendua bereiztea, hartu beharreko datu-moten eta eskumen-eremuari aplikatzekoak zaizkion arau espezifikoaren arabera.

Errenteriako Udalak adierazi du ez duela horretarako tratamendu-jarduerarik sortu bideozaintzaren arloan, eta horrek, irudiak hartzen dituen, badirudi hobetu egin daitekeela datu pertsonalen babesaren eta gardentasunaren arloan, alderdi aktiboa.

Bestalde, Bilboko³¹, Getxoko³² eta Irungo³³ udalek adierazi dute bideozaintzaren arloan datuak tratatzeko jarduerak dituztela, hainbat helburu eta legitimazio-oinarriekin, eta horrela egiaztatzen da toki-erakunde horien gardentasun-atarien azterketan.

Zumarragako eta Eibarko kasuetan, datuak bideozaintza bidez tratatzeko jarduera dago, baina ez daude argitaratuta toki-erakunde horien gardentasun-atarietan. Bestalde, erakunde honek berrikusitako jardueretatik laburbil daiteke, oro har, tratamendua gaitzen duten oinarri juridikoak behar bezala definituta daudela DBEOren 6. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, eta herritarren segurtasunaren arloan apli-

²⁹ <https://www.portugalete.org/eu-ES/Erakundeetako/Orriak/informacion-adicional.aspx>

³⁰ <https://www.vitoria-gasteiz.org/docs/wb021/contenidosEstaticos/adjuntos/eu/88/83/88883.pdf>.

³¹ <https://www.bilbao.eus/cs/Satellite/transparencia/eu/ambitos/el-ayuntamiento/proteccion-de-datos>

³² https://www.getxo.eus/DocsPublic/proteccion_datos/euskera/RAT_Udala_EUSKARAZ_02.11.23.pdf.

³³ <https://www.irun.org/eu/dbeok/399-bideo-zaintza-instalazioak?idr=109>
<https://www.irun.org/eu/dbeok/399-bideo-zaintza-bide-publikoa?idr=110>



katu beharreko arauekin bateratu behar dela, lortu nahi den helburua segurtasun publikoa denean. Beste kasu batzuetan, agian hausnartu beharko litzateke ea komeni den tratamendu-jarduerak eta zilegitasunak bereiztea, lortu nahi den helburua instalazioen, ondasunen eta pertsonen segurtasuna zaintzeko interes legitimoa denean, bereziki, bideozaintza polizia-kidegoek egiten ez dutenean, eraikin eta instalazio publikoen eta horien sarbideen babesak ziurtatzeko.

Azkenik, ohartarazi behar da kontsultatutako erakunde publikoen tratamendu-jarduera gehienetan ez dela ahots-datuaren bilketa definitzen, eta, beraz, erabilitako teknologiak agian ez duela soinurik hartuko. Bestela, gomendagarria dirudi ahots-datua gehitzea bideozaintzari buruzko tratamendu-jardueraren egiturari.

IV.9. Segurtasun-neurriak

IV.9.1. Emaitzak

Administrazioa	Segurtasun-neurriak
Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Saila	SENeen aurreikusitakoaren arabera aplikatzen dira.
Gasteizko Udala	Zaintza-sistemetara sartzeko kredentzialetan oinarritutako neurri teknikoak.
Bilboko Udala	SENeen aurreikusitakoaren arabera aplikatzen dira, eta, gainera, sarbide-mailetan oinarritutako sarbide-kontrol fisikoak eta logikoak egiten dira.
Donostiako Udala	SENeen eta datuen babesaren arloan oinarritutako segurtasun-neurriak
Barakaldoko Udala	SENeen aurreikusitakoaren arabera aplikatzen dira.
Portugaleteko Udala	Eusko Jaurlaritzaren ebazpenen arabera aplikatzen dira.
Getxoko Udala	SENeen eta datuen babesaren arloan aurreikusitakoaren arabera aplikatzen dira.
Basauriko Udala	Herritarren segurtasunari buruzko arauak eta 2021eko abuztua-



	ren 6ko ORG004 Zerbitzu Agindua aplikatzen dira.
Errenteriako Udala	Datuen babesean oinarritutako segurtasun-neurriak.
Tolosako Udala	SENeen aurreikusitakoaren arabera aplikatzen dira.
Irungo Udala	SENeen eta datuen babesaren arloan oinarritutako segurtasun-neurriak.
Laudioko Udala	SENeen eta datuen babesaren arloan oinarritutako segurtasun-neurriak.
Zumarragako Udala	Ez da segurtasun-neurri espezifikorik ezarri.
Eibarko Udala	SENeen eta datuen babesaren arloan oinarritutako segurtasun-neurriak.
Ermuko Udala	SENeen oinarritutako segurtasun-neurriak.

IV.9.2. Azterketa eta balorazioa

Lehenik eta behin, bideozaintzak, oro har, irudi-datu pertsonalak eta, hala badagokio, ahots-datuak tratatzea dakar. Agian, trafikoaren diziplinara bideratutako kamekek ez dute soinurik hartzen, baina adierazi behar da matrikulen datuak datu pertsonaltzat hartzen direla, datuak babesteko agintarien interpretazioen arabera.

Nolanahi ere, irudiari eta ahotsari buruzko datu pertsonalen tratamenduak segurtasun-neurriak aplikatzeko beharra dakar, datuak babesteko araudian xedatutakoaren arabera. DBEOk erantzukizun proaktiboaren printzipioa sartzen du. Printzipio horrek esparru eta betebeharrak ematen dio tratamenduaren arduradunari, neurri egokiak, teknikoak, antolakuntzakoak eta eraginkorrak hartzeko, tratatutako datuen arriskuari egokitutako segurtasuna bermatzeko.

Zehazki, DBEOren 32. artikuluan honako hau ezartzen da: *“Teniendo en cuenta el estado de la técnica, los costes de aplicación, y la naturaleza, el alcance, el contexto y los fines del tratamiento, así como riesgos de probabilidad y gravedad variables para los derechos y libertades de las personas físicas, el responsable y el*



encargado del tratamiento aplicarán medidas técnicas y organizativas apropiadas para garantizar un nivel de seguridad adecuado al riesgo”.

Badirudi artikulu horrek diskrezionalitate-tarte bat ematen diela datuen tratamenduen arduradunei, neurri horiek hartu direla eta benetan funtzionatzen dutela frogatzeko gaitasuna izan behar duten neurriak hartzeko.

Adierazi den bezala, segurtasun-neurrien arloan, datuak babesteko araudiak [SENe-an](#) xedatutakora jotzen du, administrazio publikoek datuen tratamenduak egiten dituztenean, DPBEBLOaren [Lehen Xedapen Gehigarrian](#) aurreikusten den bezala.

Puntu horretan, nabarmendu behar da ez LOVFCsak ez 168/98 Dekretuak ez dutela ezartzen aplikatu beharreko segurtasun-neurri zehatzik, baizik eta grabazioak gordetzeari buruzko alderdi orokorreko buruzkoak. 168/98 Dekretuak, besterik gabe, adierazten du baimena ematen duten ebazpenek zehaztuko dutela *“indarreko legez xedapenak ez urratzeko kontuan izan beharreko segurtasun-neurriak eta grabazioen baliagarritasuna, bapestekotasuna eta integrabilitatea bermatzeko neurriak, eta grabazioak zainduko dituzten organoak”*. Baina ez du ezer adierazten erakundearen barneko segurtasun-neurriekin bat etortzeari buruz, eta zer neurri espezifiko aplikatu behar diren, eta, azken batean, nola bermatu behar diren erabilgarritasun eraginkorra eta zuzena, konfidentziasuna, osotasuna, zaintza eta suntsiketa egoia eta horiek gauzatzeko baimena duten langileak.

Horrela, administrazio publikoek, oro har, SENean jasotako segurtasun-neurriak aplikatu behar dituzte, ezartzen duena: *“los principios básicos y requisitos mínimos necesarios para una protección adecuada de la información tratada y los servicios prestados por las entidades de su ámbito de aplicación, con objeto de asegurar el acceso, la confidencialidad, la integridad, la trazabilidad, la autenticidad, la disponibilidad y la conservación de los datos, la información y los servicios utilizados por medios electrónicos que gestionen en el ejercicio de sus competencias”* ([SENe-ko 1. artikulua](#)). Beraz, ulertzen da segurtasun-neurriak aplikatu behar zaizkiela beren eskumenak erabiliz kudeatzen dituzten informazio eta zerbitzu guztiei, eta, beraz, berdin aplikatu behar zaizkie irudiak eta bideoak hartzeko sistema guztiei, lortu nahi den helburua edozein dela ere.

SENean aurreikusitako neurriak 7/21 Lege Organikoaren [IV. kapituluan](#) arautzen diren datuak babesteko betebeharrak espezifikoetara egokitu behar dira, helburua arau-hauste penalak prebenitzea, detektatzea, ikertzea eta epaitzea eta zehapen penalak betearaztea denean. Beraz, bideozaintzari buruzko datu pertsonalen trata-



menduaren arduradunek, aipatutako helburuekin, [37. artikuluan](#) segurtasunari buruz jasotako alderdiak bete behar dituzte, batez ere, tratamendu-jardueren erregistroak sortzeari, eraginaren ebaluazioei, kontrol-agintaritzari alde aurretik egindako kontsultei, segurtasun-arrakalen jakinarazpenei eta abarri buruzko aurreikuspenak alde batera utzi gabe.

Zehazki, IV. kapituluak azterlanean parte hartu duten erakunde publiko gehienek itxuraz betetzen dituzten segurtasun-alderdiak arautzen ditu; izan ere, grabazioen konfidentzialtasuna kudeatzeko eta bermatzeko hartutako neurriak SENean xedatutakoan oinarritzen direla diote, eta 7/21 Lege Organikoaren [37. artikulua](#) tratamenduaren segurtasunari buruz ezartzen duela, besteak beste:

“Artículo 37. Seguridad del tratamiento.

1. El responsable y el encargado del tratamiento, teniendo en cuenta el estado de la técnica y los costes de aplicación, y la naturaleza, el alcance, el contexto y los fines del tratamiento, así como los niveles de riesgo para los derechos y libertades de las personas físicas, aplicarán medidas técnicas y organizativas apropiadas para garantizar un nivel de seguridad adecuado, especialmente en lo relativo al tratamiento de las categorías de datos personales a las que se refiere el artículo 13. En particular, deberán aplicar a los tratamientos de datos personales las medidas incluidas en el Esquema Nacional de Seguridad.

2. (...).”

Nolanahi ere, gomendagarria dirudi arriskuak ebaluatzeko aldizkako praktikak ezartzea, barnean aplikatutako segurtasun-neurriak eguneratuta mantentzeko, grabazioak behar bezala zaindu, trazabilitatea, erabilgarritasuna, osotasuna eta gordetze eta suntsipen egokia bermatzeko.

Azkenik, azpimarratu behar da irudiak hartzeko gailu pribatuak edo pertsonalak erabiltzeak nahi ez duen arriskua ekar diezaiokeela erakundeari, ezin baita segurtasun-neurri egokirik aplikatu barne-xedapenen eremuaren eta irismenaren barruan.

Ildo horretan, AEPDak txosten juridikoak argitaratu ditu³⁴, eta horietan arriskuari egokitutako segurtasun-neurriak aplikatzea gomendatzen du, eta irudiak eta soinuak hartzeko gailu ez-profesionalak erabiltzearen arazoaz ohartarazten du.

³⁴ <https://www.aepd.es/sites/default/files/2019-09/informe-juridico-rgpd-uso-camaras-privadas-por-la-policia.pdf>.



V. Ondorioak

Arartekoaren helburu nagusia da euskal herritarren eskubideak eta askatasunak defendatzea eta legezketasun-printzipioa bermatzea, [Arartekoaren Erakundea sortu eta arautzen duen otsailaren 27ko 3/1985 Legean](#) aurreikusitako eskuduntzen araberak.

EKren [9.3 artikulua](#) *legezketasun-printzipioa* aldarrikatzen du, EKren [9.1 artikuluan](#) ere agertzen dena, hurrengoa xedatuz: *"Hiritar eta botere publikoak Konstituzioaren eta araugintza juridikoaren menpean daude"*.

Legezketasun-printzipioan, botere publikoek, aldi berean, legitimitate-printzipioa aurkitzen dute, haien jarduna demokratikoki onartutako Zuzenbidean oinarritzen baita, bai eta mugatze formalaren edo juridikoaren printzipioan ere, haien jarduerak Zuzenbide horretan baitauka beren jardun legitimoaren muga. Konstituzio Auzitegiak 1986ko uztailaren 29ko 108/1986 Epaian ([ECLI:ES:TC:1986:108](#)) adierazi duen bezala, legezketasun-printzipioa sistema liberal demokratikoaren oinarritzko dogma da.

Eskubide eta askatasunen erabilera askea babesteko eta herritarren segurtasuna bermatzeko eginkizuna poliziarri esleitzen dion konstituzio-agindua ([EKren 104. artikulua](#)) jarduketa hori legitimatzen duten gainerako arau eta printzipioekin bateratu behar da, herritarren oinarritzko eskubideak errespetatzeko, eta, beraz, arauetan ezarritako mugak eta bermeak zorrotz betez.

Testuinguru horretan, bideozaintzaren arloko arauak eta xedapenak betetzea funtsezkoa da, legezketasun-printzipioa betetzeko ez ezik, herritarren artean polizien jardunaren legitimazioan eta proportzionaltasunean eta gardentasun eta konfiantza handiagoa lortzeko ere.

Erakunde honek azterlan honetan egindako datuak aztertuta, Arartekoak erabaki du honako ondorio hauek azaltzea.



V.1. Alderdi orokorrak eta arau-esparruak

Administrazio eskudunek herritarren segurtasuna babesteko ahalegina egiten dute, egungo baliabide teknologikoak erabiliz eta beste oinarrizko eskubide batzuekin bateratuz. Horrela, oro har, azterlanean parte hartzen duten erakundeek adierazi dute bideozaintzako kamerak instalatzeko eta erabiltzeko aldez aurreko baimena eskatu eta lortu behar dutela, herritarren segurtasuna lortu nahi denean. Gainera, herritarren eskubideei arreta emateko prozedurak izaten dituzte, bideozaintzarekin lotutako datu pertsonalen tratamenduei dagokienez.

Hala ere, bideozaintza-sistemen bilakaera teknologikoak eta horien hedapenak eta erabilerak ez dirudi egungo araudian behar bezala egokitzen denik. Hori dela eta, beharrezkoa dirudi lege-hutsune hori betetzen duten xedapenak sortzeko beharrari buruz hausnartzea, Euskadiko administrazio publikoei dagokien arau-esparruan.

Adibidez, indarrean dagoen legeriak ez ditu definitzen gailu **mugikorren** kontzeptua eta erabilera posibleak, hala nola droneak, makuluak edo agenteen uniformeetan dauden kamerak. Beraz, denbora eta eremuko atzipenaren erabilera- eta irismen-kasu zehatzen deskribapenak aurreratu egingo luke proportzionaltasun-printzipioa betetzen duten eskubideak aurrez haztatzea.

Azpimarratu behar da ez dagoela beti korrelazio bat azterlanean parte hartzen duten administrazio publikoek emandako kameraren hedapenaren eta Euskadin gertatzen diren gatazka-indizeen artean. Horrela, kameraren kopurua eta emandako erabilera motak (**finkoak eta mugikorrak**) beste irizpide batzuen ondorio izango dira agian, hala nola kontrolaren xede diren leku publikoak, instalazioak, pertsonen joan-etorria, trafikoa, herri baten ezaugarriak, giza baliabideak, eta abar. Nolanahi ere, beti bete behar da proportzionaltasun-printzipioa, eta arrazoizko arriskua egon behar da herritarren segurtasunerako, instalazio **finkoen** kasuan, edo arrisku jakin bat, kamera **mugikorren** kasuan.

Aurrekoarekin lotuta, azterlan honetan parte hartzen duten administrazioek aipatzen dute kamerak erabiltzen dituztela itxuraz herritarren segurtasunerako arrazoizko arriskurik edo arrisku zehatzik ez duten leku, instalazio eta ondasunetan. Esate baterako, barruko lekuetan, bulegoetan, igerilekuetan, liburutegietan edo kirol-esparruetan, instalazioak, ondasunak edo pertsonak babesteko orduan intimitaterako hain intrusiboak edo kaltegarriak ez diren aukerak aukeratu behar dira. ([Ikus azterketa eta balorazioaren atala](#)).



V.2. Bideozaintzaren helburuak eta gaitzeko arauak

Administrazioak lortu nahi dituen helburuek zehazten dituzte aplikatu beharreko arauak eta irudiak eta, hala badagokio, soinuak hartzeko zilegitasuna.

Azterlanean parte hartu duten administrazio publiko gehienek bideozaintza erabiltzeko erabakia herritarren segurtasunean gaitzen dute, eta, Arartekoak lehen adierazi duen bezala, ez da beti beharrezkoa araubide horretara jotzea pertsonen irudiak hartzea legitimatzeko. Kasu batzuetan, are gehiago, datuen tratamendurako legitimazioa ere aipatzen dute administrazioek, datuak babesteko araudian xedatutakoaren arabera, eta, hala ere, herritarren segurtasunerako bideozaintza-sistemak instalatzeko baimenak eskatzen dituzte, eta horrek adierazten du ez dagoela bereizketarik atzipenaren helburuaren arabera aplikatu daitezkeen legitimazio-inarrien artean.

Helburua herritarren arteko bizikidetzaren indarkeria desagerraraztea eta bide eta eremu publikoak modu baketsuan erabiltzea denean, eta segurtasun publikoarekin lotutako delituak, faltak eta arau-hausteak prebenitzea denean, orduan, segurtasun publikoaren bideozaintzari buruzko araudira jo ahal izango da, irudiak hartzea legitimatzen duen arau gaitzaile gisa. Hala ere, leku itxietan, hala nola instalazioetan eta eraikin publikoetan, legitimazio horrek proportzionaltasun-printzipioa errespetatu behar du, eta, beraz, irizpide gisa, herritarren segurtasunerako arrazoizko arriskua egotea eskatzen du.

Herritarren segurtasunerako arrazoizko arriskurik ez dagoenean, pertsonen intimiteterako hain intrusiboak ez diren bitartekoak erabili daitezke, eta instalazioen, ondaren eta pertsonen gaineko kontrola modulatu administrazioaren interes legitimoagatik, bideozaintzaren erabilera datuak babesteko araudiaren arabera egokituz. ([Ikus azterketa eta balorazioaren atala](#)).

V.3. Herritarren segurtasunerako bideozaintza baimentzeko araubideari buruz

Kamera **finko** eta **mugikorrek** herritarren segurtasunerako erabiltzeak poliziek bideozaintzari buruzko legerian ezarritako baldintza batzuk bete behar ditu.

Azterlanean parte hartu duten administrazio guztiek adierazi dute instalatzeko eta erabiltzeko alde aurreko baimena eskatu eta lortu behar dela, herritarren segurtasuna lortu nahi bada.



Trafikoaren diziplinari dagokionez, administrazio guztiek adierazi dute aldez aurreko baimena eskatu eta lortzen dutela horretarako kamerak erabiltzeko, [168/98 Dekretuaren Hirugarren Xedapen Gehigarrian](#) aurreikusitako araubidearekin bat etorritik, nahiz eta erakunde batzuek adierazi ebazpenak ez zaizkiola BABari jakinarazten ([Ikus azterketa eta balorazioaren atala](#)).

Arartekoak kezka ikusten du **gailu mugikorrek** baimentzeko eta erabiltzeko erregimena, hala nola makuluak, droneak eta kamerak agenteen uniformeetan ([Ikus azterketa eta balorazioaren atala](#)). Zehazki, kamera **finkoak** urtebeteko eperako baimentzen dira, eta epe hori berri egin daiteke. Epe hori amaitzean, instalazioa eragin zuten irizpide berberak betetzen ote diren berrikusiko beharko litzateke. Hala ere, **gailu mugikorrak** kasuan, [7/21 Lege Organikoan](#) bakarrik aurreikusten da gehienez ere hilabete baterako baimendu ahal izango direla, eta beste hilabete batez luzatu ahal izango direla. Antza denez, muga hori ez da egokia polizia-uniformeetan kamerak erabiltzearekin, baldin eta modu jarraituan eta ez arrisku jakin batera mugatuta erabiltzen badira. Azken batean, egokia dirudi baimenek denbora-epe zehatza zehaztea, baimen-eskaera eragin duen kasura egokituta. Kamera **mugikorrek** erabiltzeko baimenak batera eskatzen dira, ez kamerei edo polizia-unitateei mugatuta, eta horrek nolabaiteko zailtasuna ekar lezake arrisku jakin bat dagoen eta proportzionaltasun-printzipioa betetzen den baloratzeko.

Kamera **finkoak** instalatzeko baimenaren tramitazioa Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoaren bidez has daiteke. Dirudienez, ez du aurreikusten kamera mugikorrek erabiltzeko baimenak eskatzeko aukera.

V.4. Proportzionaltasun-printzipioa

Arartekoaren ustez, zorrotz bete behar da bideozaintzari buruzko araudian aurreikusitako proportzionaltasun-printzipioa, herritarren segurtasunerako, egokitasunaren eta gutxieneko esku-hartzearen bertsio bikoitzean, kamerak erabiltzea erabaki aurretik.

Defentsa Erakunde honen ustez, aldez aurretik balioespen- eta haztapen-irizpide eta -elementuak daude, bideozaintza-neurriak intimitaterako eskubidean esku-sartze posiblea ekar dezakeen ebaluatzeko aukera ematen dutenak. Oro har, badirudi hausnarketa hori ez dela egiten herritarren segurtasunagatik edo irudiak hartzeko edozein gailu ezartzeko bideozaintzako baimen-eskaerak bidali aurretik ([Ikus 4.4 atala](#)).



Aurretiazko zenbaketa horrek aukera emango luke egiaztatzeko ea neurria proposatutako helburua lortzeko modukoa den (egokitasun-judizioa); ea, gainera, beharrezkoa den, helburu hori eraginkortasun berarekin lortzeko beste neurri moderatuago bat ez egotearen zentzuan (beharri buruzko judizioa); eta, azkenik, neurria haztatua edo orekatua den, hortik onura edo abantaila gehiago eratortzen direlako interes orokorrerako, gatazkan dauden beste ondasun edo balio batzuetarako kalteak baino (proportzionaltasun-judizioa, zentzu hertsian).

Erakunde horren iritziz, proportzionaltasun-judizioa egiteak berme eta gardentasun elementu gehiago gehituko lizkieke administrazioak hartutako erabakiei.

Horrela, egiaztatu ahal izango litzateke egitate objektibo zehatz eta ebaluagarriak, hala nola eraikin eta instalazio publikoak eta horien sarbideak babesteak, defentsa nazionalerako erabilgarriak diren instalazioak babesteak, herritarren segurtasunaren aurkako arau-hausteak egiaztatzeak eta pertsonen eta ondasunen kalteak eragitea edo arrisku zehatzen bat gertatzea prebenitzeak, aipatutako proportzionaltasun-judizioa gainditzen duten.

V.5. Grabazioen kudeaketa eta gordetzeko epeak

Herritarren segurtasunagatik bideozaintzako grabazioak gordetzeko gehieneko epeak desberdinak dira kontsultatutako administrazio publikoen artean, nahiz eta atzipenaren xedeak helburu bera izan: herritarren segurtasunarekin lotutako delituek, faltak eta arau-hausteak prebenitzea. ([Ikus azterketa eta balorazioaren atala](#)).

Arau-harmonizaziorik eza azterlanean parte hartu duten erakundeek emandako erantzunetan islatzen da, grabazioak gordetzeko gehieneko epe ezberdinak aipatzen baitira.

Komenigarria da gordetzeko gehieneko epe berdinak ezartzea, baina baita gutxieneko epeak ere, izan ere, legezko hutsune bat dago, eta horrek berme eta segurtasun juridikorik eza eragin dezake, eta horrek eragina izan dezake administrazioan eta hirugarren interesdunen eskubideetan. Grabazioak gutxieneko epe egoki batean behar bezala kudeatuz gero, hobeto egiaztatu ahal izango litzateke polizien jarduketan proportzionaltasuna, interesdunen eskubide legitimoen defentsa, eta, gainera, grabazioak organo judizial gisa eta Arartekoaren beraren bidez eskuratzeko legitimazioa duten hirugarrenen lana erraztuko litzateke.



Gordetzeko gutxieneko epeak ez dira barne-erabaki baten edo bideozaintzako sistema informatiko baten mende geratu behar.

V.6. Publizitatea eta gardentasuna administrazioaren jardueraren eremuan

Oro har, azterlanean parte hartu duten administrazioek emandako erantzunen arabera, badirudi betetzen dela herritarren segurtasun-arrazoiengatik bideozaintzako **instalazio finkoen** erabilerari buruzko informazioa emateko betebeharra, Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailaren [2011ko Aginduan](#) aurreikusitakoaren arabera. Hala ere, ez dirudi zuzena herritarren segurtasunerako bideozaintza-kartelak erabiltzea, helburua instalazioen, ondasunen eta pertsonen segurtasuna zaintzea baita. Kasu horretan, datuak babesteko araudian ezarritako informazio-irizpideei jarraitu behar ko litzaieke, emaitzen [azterketa eta balorazioaren atalean](#) azaltzen den bezala.

Nolanahi ere, komenigarria da informazioko eta gardentasuneko beste formula eta baliabide batzuetan aurrera egitea, bereziki herritarren segurtasunagatik bideozaintzako gailu **mugikorak** erabiltzearen esparruan, ez baitago arautze espezifikorik ([lkus azterketa eta balorazioaren atala](#)).

lido horretan, herritarrek bideozaintzaren kasua eta xedea ezagutu ahal izateko birtarteko eta kanal osagarriak daude, Interneteko atarien, sare sozialen, ebazpenak aldizkari ofizialean argitaratzearen, datu pertsonalak tratatzeko jarduerak sortzearen eta gardentasun-atarian sartzearen bidez, eta aurrez aurre ikusteko moduko seinaleen bidez.

V.7. Herritarren eskubideen erabilera eta arreta

Parte hartzen duten administrazio publiko ia guztiek diote herritarren eskubideei arreta emateko protokoloak edo prozedurak dituztela bideozaintzarekin lotutako datuen tratamenduei dagokienez. Alderdi positiboa da; izan ere, herritarren eskubide bat gauzatzen denean, organo arduradunak eskaeraren izapidetzea eta kudeaketa baloratzeko eta bultzatzeko elementuak izango ditu.

Nolanahi ere, ohartarazi behar da datuen babesaren arloan indarrean dauden arauak eta [7/2021 Lege Organikoak](#) indarrean dagoen bideozaintzaren arloko legerian aurreikusi gabeko eskubide berriak arautzen dituztela, hala nola zuzenketarena, tratamendua mugatzearena eta ezabatzeko eskubidearena. Alde horretatik, azterlane-



an parte hartu duten administrazioek emandako erantzunetatik ondoriozta daitekeenez, beharrezkoa da eskubideen arretarako protokoloak berrikustea eta indarreko xedapenetara egokitzea, [azterketa eta balorazioaren atalean](#) azaldu den bezala.

Bestalde, herritarren segurtasunaren arloko bideozaintzari buruzko araudiak ezartzen du **organo eskudunak** erantzun eta ebatzi behar dituela eskubideak baliatzeko eskaerak. Zehaztasun falta horren ondorioz, azterlanean parte hartzen duten erakunde publikoek hainbat organo, unitate, profil eta sail deskribatzen dituzte, hala nola eskubideei erantzuteko ardura dutenak, hala nola alkatetza, datuak babesteko ordezkaria edo toki-erakunde bateko segurtasun-saila. Ildo horretan, komeni da arauak eguneratzea, herritarrek eskubideak baliatzeko eskaerak administrazio publiko bateko zein organoren aurrean egin ditzaketen zehazteko. ([Ikus azterketa eta balorazioaren atala](#)).

Komeni da, beraz, herritarrei argitzea zein den herritarren segurtasunagatik bideozaintzari buruzko datuei eragiten dieten eskubideei erantzuteko organo eskuduna, eta, hala badagokio, izapidetzea koordinatzeko bitartekoak aztertzea, tratamendu horren berezitasunak administrazio publikoaren barruan kudeaketa administratiboaren xede diren beste datu pertsonaletatik bereizten baitira. Adibidez, bideozaintzako datuetarako sarbidea ukatzeko mugak segurtasun publikoan, hirugarrenen eskubide eta askatasunen babesean edo egiten ari diren ikerketen beharretan oinarritu daitezke, eta bideozaintzako legerian berariaz jasotako mugak dira.

Azken batean, herritarren segurtasun-arrazoiengatik irudien tratamenduei buruzko eskubideei erantzuteko prozedurak arautzen dituen xedapen zehatzik ez dagoenez, beharrezkoa dirudi eskubideen arretarako barne-protokoloak gehiago garatzea eta zehaztea.

V.8. Datuen babeserako oinarrizko betebeharrak

Datuen babesaren arloko oinarrizko betebeharrei dagokienez, Arartekoak datuak babesteko araudian eta [7/2021 Lege Organikoan](#) aurreikusitako funtsezko elementuak betetzean zentratzen du bere azterlana. Elementu horiek jasotzen diren datu pertsonalen egitura, helburuak, zilegitasuna eta beste elementu batzuk behar bezala islatzen dituzten tratamendu-jarduerak sortzeko beharra xedatzen dute, administrazioekiko harremanetan herritarrei informazio gardena emateko. Ildo horretan, herri-administrazioek bideozaintzaren arloko tratamendu-jarduerak sortu behar di-



tuzte herritarren irudiak eta ahotsa hartzen dituztenean, eta, gainera, gardentasun-atarietan argitaratu behar dituzte.

Parte hartu duten erakunde publikoek emandako erantzunak aztertuta, zenbait alderdi nabarmen egiaztatu dira, [azterketa eta balorazioaren atalean](#) azaldu den bezala. Hau da, administrazio publiko batzuek ez dute bideozaintzari buruzko tratamendu-jarduerarik sortu eta argitaratu. Batzuetan, ez da zilegitasun aplikagarria bereizten interes legítimoaren eta helburu publikoen eta herritarren segurtasunaren arloko xedapenen artean. Beste kasu batzuetan, badirudi erakunde batzuek ez dakitela gardentasun-atarietan argitaratutako tratamendu-jardueren erregistrorik dagoen eta horretarako sortutako bideozaintza-jarduerarik dagoen.

Oro har, behar bezala informatzen da organo judizialei edo beste polizia batzuei datuak lagatzeko aukerari buruz.

V.9. Segurtasun-neurriak

Administrazio publikoek SENean jasotako segurtasun-neurriak aplikatu behar dituzte, bideozaintza-sistemen bidez tratatzen diren datu pertsonalen irisgarritasuna, konfidentzialtasuna, osotasuna, trazabilitatea, benetakotasuna, erabilgarritasuna eta gordetzea bermatzeko.

Positiboa da azterlanean parte hartu duten erakunde publikoen gehiengoaren erantzuna, informazioaren segurtasuna bermatzeko aplikatutako segurtasun-neurriei dagokienez; izan ere, neurriak aplikatzen dituztela diote, eta kasu askotan SENean xedatutakoaren arabera.

Erakunde honek ez du neurri juridiko eta teknikoaren norainokoaren berri, baina komeni da adieraztea komeni dela neurriak aldizka berrikusteko eta eguneratzeko jardunbideak egitea, teknologiaren eta irudiak hartzeko erabiltzen diren hainbat elementuren bilakaeraren aurrean, emaitzen [azterketa eta balorazioaren atalean](#) adierazi den bezala.

Bestalde, bideozaintzarekin lotutako datu pertsonalak kudeatzeko eta tratatzeko eskumena duten langileen barne-prestakuntza segurtasun-neurri egokia da, herritarren informazioa babesteko erantzukizun proaktiboa frogatzeko eta nahi ez diren segurtasun-arrakalak saihesteko. Barneko langileen profila kontuan hartuta, bideozaintzaren arloko prestakuntzak informazioaren segurtasunaren arloko alderdi juridikoak edo teknikoak osatzera bidera daitezke.



VI. Gomendioak

Atal honetan, Arartekoak herri-administrazioei zuzendutako gomendioak egiten ditu, bidezaintzaren arloko berme-araubidea betetzea errazteko eta euskal herritarren oinarrizko eskubideak babesteko.

GOMENDIOAK:

VI.1. Alderdi orokorrak eta arau-esparrua

Lehena

Bidezaintza-sistema finko edo mugikorren ezarpenari buruzko erabakiak hartzeko beharrezkoak diren kasuak, irizpideak eta haztapen-elementuak argitu, definitu eta ezarriko dituzten helburu komuneko eta harmonizatzaileko arauak onartu beharri buruz hausnartzea, euskal administrazio publikoei dagokien erregulazio- eta garapen-eremuan.

Bigarrena

Arartekoak aldi baterako gomendatzen du, erregulazio espezifiko eta eguneraturik ez dagoenez, barne-tresna juridikoak garatzea eta ezartzea, hala nola protokoloak eta jarraibideak, polizien jardun proportzionalari berme gehiago gehitzeko eta, ondorioz, pertsona guztien oinarrizko eskubideak babesteko. Tresna juridiko horiek bidezaintza-sistema bat ezartzeko erabakia baloratzeko faseak defini ditzakete. Adibidez, lehenik eta behin, bidezaintza-sistema bat erabiltzea eska dezaketen kasuak defini litezke. Bigarrenik, eskatutako instalazioaren (finkoa edo mugikorra) lekuaren eta motaren arabera, protokoloak edo instrukzioak alde aurreko haztapen-sistema bat osa dezake, intimitaterako hain intrusiboak ez diren segurtasun-alternatibak barne hartzen dituen (zaintza pribatua, barruko beste langile batzuk, instalazio propioetarako sarbide mugatuko sistemak, etab.). Azken batean, aurreko balorazioak gainditu ondoren, azken faseak barne hartuko luke herritarren segurtasun-arrazoiengatik bidezaintza eskatzeko eta hura ezartzeko legezko baldintzak egiaztatzeko eta betetzeko premia mugatu eta espezifikoa. ([Ikus 6.4 atala](#)).

Hirugarrena

Barne-tresna juridikoak garatzea, besteak beste, **gailu mugikorren** erregulaziorik eta definiziorik eza eta horien erabileraren irismena islatzeko. Zehazki, droneak, maku-luak edo agenteen uniformeak erabiltzen direnean, gomendagarria da denbora eta eremuan kaptazioaren erabilera- eta irismen-kasuak deskribatzea, agintari eskudu-



nari baimen-eskaera bidali aurretik, proportzionaltasun-printzipioa betetzen duten eta jokoan dauden eskubideak alde aurretik haztatzeko, egokitasunaren eta gutxi-eneko esku-hartzearen alderdi bikoitzean. Gainera, barne-tresna juridiko horiek garatu egin ditzakete herritarren segurtasunerako arrazoizko arriskurik edo arrisku zehatzik ez dagoen leku, instalazio eta ondasunetan kamerak erabiltzeko kasuak, eta, beraz, irudiak hartzeko legitimazioa DPBEBLOan sar liteke.

VI.2. Bideozaintzarekin lortu nahi diren helburuak eta gaitzen duten arauak

Laugarrena

Bideozaintzako kamerak erabili aurretik, lortu nahi den helburuari buruzko gogoeta egitea, irudiak hartzeko gaitzen duten arauak behar bezala bereizteko.

Alde batetik, Euskal Autonomia Erkidegoko poliziek eremu publiko, ireki edo itxietan segurtasun publikoa helburu duten bideozaintzaren legitimazioa LOVFCSan eta gainerako xedapen osagarrietan edo garapeneoetan dago. Beste kasu batzuetan, helburua eremu publiko itxietan instalazioen, ondasunen eta pertsonen segurtasuna zaintzea denean, zilegi da kaptazioa legitimatzea interes legitimoan, datuak babesteko araudiaren arabera, eta bideozaintza denboraz eta tokiz modulatzea.

VI.3. Herritarren segurtasunerako bideozaintzako baimenak

Bosgarrena

Herritarren segurtasunerako kamera **mugikorrak** erabiltzeko baimen-eskaeretan arrisku-egoera zehatzari egokitutako epeak zehaztea.

Seigarrena

Herritarren segurtasunerako bideozaintzako sistema **finkoak** eta **mugikorrak** erabiltzeko Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailburuordetzak emandako baimenak argitaratzea, gardentasun aktiboko neurri gisa.

VI.4. Proportzionaltasun-printzipioa

Zazpigarrena

Eskubideak baloratzeko eta neurtzeko (proportzionaltasun-judizioa) barneko protokolo edo tresna juridikoak ezartzea, bideozaintza-baimena eskatu aurretik ebaluatu ahal izateko ea neurriak intimitaterako eskubidean esku-sartzea ekar dezakeen.



Administrazio eskudunek balorazio- eta haztapen-elementuen matrize bat egin ahal izango lukete, bideozaintza-neurria hartzeko erabakia errazteko edo hain inbaditzai-leak ez diren edo intimitatean esku-hartze txikiagoak eragiten dituzten beste formula batzuei heltzeko. Elementu objektiboak eta irudiak hartzeko aukerari dagozkion xehetasunak definitu beharko lirateke, hala nola:

- o egitatezko kasuak (eremu publikoaren, eraikinaren edo instalazio publikoaren definizioa, sarbide- edo zaintza-kontrolaren mende)
- o behin-behinekotasuna (biltzeko denboran zehaztua)
- o eremu edo leku bat (hartzeko leku gisa eta alboko elementu gisa definitzen da, hala nola bizileku edo lokal pribatu gisa)
- o herritarren segurtasunerako arrazoizko arrisku bat egotea, **finkoen** kasuan, edo arrisku jakin bat, **mugikorren** kasuan (adibidez, gatazka-indizea, salaketak, etab.).

Elementu konkurrente horiek guztiak, behin zehaztu ondoren, dagozkion proportzionaltasun-judizioaren mende jarri beharko lirateke, egokitasunaren (neurria egokia da, proposatutako herritarren segurtasunaren helburua lortzeko modukoa) eta gutxieneko esku-hartzearen (lortu nahi den helburuaren eta ohorerako, norberaren irudirako eta pertsonen intimitaterako eskubidean izan dezakeen eraginaren arteko haztapena) bi alderditan. Balorazioaren emaitzak erabakiak hartzeko oinarria ekarriko luke, eta berme gehiago emango lituzke araudia betetzeko eta beste oinarrizko eskubide batzuk bateragarri egiteko.

VI.5. Grabazioen kudeaketa eta gordetzeko epeak

Zortzigarrena

Grabazioen kontserbazioa, trazabilitatea, osotasuna, baimendutako sarbideak, gordetzeko gutxieneko eta gehieneko epeak eta kudeaketako unitate edo organo independenteak bermatzen dituzten barne tresna juridikoak ezartzea, administrazioaren jardueraren gardentasuna bermatzeko eta, hala badagokio, irudiak ikusteko interesa duten edo legitimazioa duten hirugarrenen eskura jartzea errazteko.

VI.6. Publizitatea eta gardentasuna

Bederatzigarrena

Irudiak erabiltzeko eta kudeatzeko barne-protokoloetan, bideozaintzako kameren berri herritarrei emateko formulak eta kanalak definitzea. Adibidez, protokoloak uler



lezake nola jarri kartelak leku ikusgarrietan, nola informatu gardentasun-atarietan, sare sozialetan, aldizkari ofizialetan eta antzeko beste bitarteko batzuetan, irudiak hartzen direnean, batez ere kamera **mugikorrak** erabiltzen direnean. Hobetzeko alderdi horiei esker, herritarrek jakin ahal izango dute nola hartzen diren herritarren segurtasuna babestearekin lotutako erabakiak.

VI.7. Herritarren eskubideen arreta

Hamargarrena

Herritarren eskubideei arreta emateko barne-protokoloak garatzea edo eguneratzea. Protokolo horiek izapideetarako eskumena duen organoa zehaztuko dute, egungo erregulaziotik eratorritako eskubide berriak definituko dituzte (zuzenketa, mugaketa eta ezabatze gisa), eta herritarren segurtasunerako tratamenduen berezitasunak bereziko dituzte eskubideei erantzuterakoan.

Hamaikagarrena

Eskubideen arretarako organoak izendatzea, hierarkia-maila eta irizpide tekniko eta juridikoak dituztenak, herritarren segurtasun-arrazoiengatik beren irudiaren tratamenduarekin zerikusia duten herritarren eskubideen egikaritzaren behar bezala izapide-tzea ahalbidetuko dutenak.

VI.8. Datu pertsonalen babesa

Hamabigarrena

Bideozaintzarako tratamendu-jarduerak berrikustea eta, hala badagokio, sortzea, aplikatu beharreko zilegitasuna behar bezala islatzen dutenak.

Hamairugarrena

Administrazio bakoitzaren gardentasun-atarietan bideozaintzako datuak tratatzeko jarduerak argitaratzea, herritarrek kontsultatu eta azter ditzaten.

VI.9. Informazioaren segurtasun neurriak

Hamalagarrena

Informazioaren segurtasuna bermatzeko ezarritako segurtasun-neurri juridikoak eta teknikoak berrikustea eta eguneratzea.



Hamabosgarrena

Neurri espezifikoak aplikatzea, grabazioak gordetzen direla ziurtatzeko eta datuak baimenik gabe ez suntsitzeko.

Hamaseigarrena

Bideozaintzarekin lotutako datu pertsonalak kudeatzeko eta tratatzeko eskumenak dituzten barneko langileak segurtasunaren arloan gaitzea.



VII. Eranskina: Galdetegia

Jarraian, azterlanean parte hartu duten administrazio publikoei planteatutako galdetegia azaltzen da:

Administrazio guztiei dagozkien kontuak

- 1) Erakundeetan jarritako kamera-kopurua, guztira, gutxi gorabehera
- 2) Erabilitako kamera motak
 - Finkoak
 - Mugikorak
 - Biak
- 3) Bideozaintzako kameraren erabileraren bidez erdietsi nahi diren helburuak
 - Instalazioen, ondasunen eta pertsonen segurtasuna babestea
 - Herritarren segurtasuna
 - Trafiko-diziplina
 - Trafikoaren erregulazioa hiri-guneetan
 - Beste batzuk (Zer beste helburu?)
- 4) Egindako bideozaintzaren eskumenak eta gaitasuna ematen duen araudia
 - Datu pertsonalen babesa (3/2018 Lege Organikoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa).
 - Herritarren segurtasuna toki publikoetan (4/1997 Lege Organikoa, Segurtasuneko indarrek eta kidegoek toki publikoetan bideokamerak erabiltzea arautzen duena; eta 168/1998 Dekretua, Euskal Herriko Poliziak toki publikoetan bideokamerak erabiltzeko baimenen eta haien erabileraren erregimena garatzen duena).
 - Arau-hauste penalak prebenitu, antzeman, ikertu eta epaitzea edo zigor penalak betearaztea (7/2021 Lege Organikoa, arau-hauste penalak prebenitzeko, detektatzeko, ikertzeko eta epaitzeko eta zehapen penalak betearazteko tratatutako datu pertsonalak babesteari buruzkoa).
 - Beste batzuk (Zer beste eskumen eta/edo araudi?)
- 5) Kamera finkoen kokapena
 - Instalazio komunak, hala nola bulegoak
 - Kirol-esparruak
 - Kultura-eraikinak
 - Errepideak
 - Parkeak
 - Iggogailuak
 - Garbiguneak



- Herriguneak
 - Beste espazio publiko batzuk (Zer beste espazio publiko?)
- 6) Kamera finkorik al dago toki publikoetan herritarren segurtasuna bermatzeko?
- Bai
 - Ez
- 7) Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Sailburuordetzak bideozaintzako kamera finkoak jar-tzea baimentzen al du?
- Bai
 - Ez
- 8) Ba al dago grabazioak zer barne-unitate edo -organoen eskura eta zaintzapean geratzen diren ezartzen duen barne-protokolorik?
- Bai (Adierazi unitatea edo organoa)
 - Ez
- 9) Grabazioen gutxieneko kontserbazio-eperik ezarri al da erakundearen barruan?
- Bai
 - Ez
 - Ez dakit
- 10) Grabazioen gehieneko kontserbazio-epa...
- hilabetekoa da.
 - 3 hilabetekoa da
 - Mugagabea da
 - Beste bat (Protokolo desberdinak badauden testuinguruaren arabera, mesedez, ho-riek zehaztu)
- 11) Grabazioen zaintza, kontserbazioa, baimendutako sarbideen kudeaketa behar bezala gauzatzeko eta, hala badagokio, grabazioak suntsitzeko ezarritako segurtasun-neurriak honako hauetan oinarritzen dira:
- Segurtasun Eskema Nazionala
 - Datuen babeserako segurtasun-neurriak, hala nola arriskuen azterketa, eraginaren ebaluazioak eta antzekoak.
 - Beste batzuk (Zertan oinarritzen dira?)
 - Ez dira ezarri



- 12) Herritarrei kamera finkoen bidez jasotako irudiaren (eta, hala badagokio, soinuen) inguruko datuen bilketa eta tratamenduaren berri emateko bitartekoei dagokienez...
- Hondo urdineko kartelak jarri dira herritarren segurtasuneko arrazoiak direla eta
 - Bereizgarriak jarri dira hondo horiarekin eta beste batzuk instalazioen, ondasunen eta pertsonen segurtasuna zaintzeko.
 - Bi motak erdietsi nahi diren helburuen arabera
 - Ez da horrekin loturiko kartelik edo bereizgarririk jarri.
- 13) Herritarrei kamera mugikorren bidez bideozaintzako irudiak hartzen ari direla jakinarazteko bitartekoei dagokienez...
- Hondo urdineko kartelak jarri dira herritarren segurtasuneko arrazoiak direla eta
 - Ageriko bereizgarrien bidez jakinarazten da uniformeetan, ibilgailuetan edo dispositiboaren kokapenean.
 - Webguneak, sare sozialak eta antzeko kanalak erabiltzen dira
 - Ez da halakorik jakinarazi
- 14) Grabazioekin loturiko eskubideak (hala nola sarbidea lortzeko edo ezabatzeko) baliatzea zaintzeaz arduratzen den barne-unitatea edo -organoa honako hau da:
- Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Sailaren Sailburuordetza kasu guztietan.
 - Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Sailaren Sailburuordetza Ertzaintzak egindako grabazioetarako bakarrik.
 - Eusko Jaurlaritzaren datuen babeserako ordezkaria.
 - Udaltzaingoaren burutza.
 - Berdin da, erakunde publikoko edozein pertsona arduratu daiteke horretaz.
 - Beste bat (Zer beste organo edo unitate?)
- 15) Ba al dago protokolo edo prozedurarik grabazioekin loturiko eskubideei dagokienez?
- Bai
 - Ez

Datuen babesa

- 1) Bideozaintzarako helburuekin datu pertsonalak tratatzeko jarduerak sortu al dira?
- Bai
 - Ez
 - Hainbat sortu dira erdietsi nahi diren helburuen arabera (herritarren segurtasuna, trafiko-diziplina, ondasunen eta instalazioen babesa eta abar).
- 2) Bideozaintzari dagozkion datuak tratatzeko jarduera/k gardentasun-atariko jardueren erregistroan argitaratuta al dago/daude?
- Bai
 - Ez



- 3) Adierazi bideozaintzari dagozkion datuen tratamenduaren oinarri legitimatzaileak
- Interes legitimoa (instalazioen, ondasunen eta pertsonen segurtasuna):
 - Herritarren segurtasuna:
 - Trafiko-diziplina:
 - Beste helburu administratibo batzuk (zer beste helburu?)
- 4) Zer administrazio edo organori lagako zaizkie bideozaintzari dagozkion datuak?
- Organo judizialei
 - Gaian eskumena duten beste administrazio batzuei
 - Beste batzuk (Zer beste organo edo administrazio?)

Trafiko-diziplina eta bide-segurtasuna

- 1) Bideokamerarik edo bestelako baliabiderik al dago bide publikoetan trafikoaren prebentzio, erregulazio, zaintza eta diziplinarako irudiak hartu eta erreproduzitzeko?
- Bai
 - Ez
- a) Bideozaintzako sistemak instalatzeko ebazpenek grabatuak izan daitezkeen bide publikoak edo tarteak zein irudi horiek gordetzeaz eta sarbide- eta deuseztapen-eskaerak ebazteaz arduratzen den organoa identifikatzen al dituzte?
- Bai
 - Ez
- b) Trafiko-diziplinako helburuetarako bideozaintzako sistemen instalazioari buruzko ebazpenak Bideozaintza eta Askatasunen Batzordeari jakinarazten al zaizkio?
- Bai
 - Ez
- c) Trafiko-diziplinaren esparruko irudiak gordetzeko epea honako hau da:
- Hilabete baino gutxiago
 - Hilabete
 - Hilabete, beste hilabete luzatzeko aukerarekin
 - 3 hilabete
 - Mugagabea

Kontu espezifikoak toki-administrazioetarako

- 1) Kamera finakoak daude udal-instalazioetan; esate baterako:
- Bulegoen eraikinetan
 - Kirol-esparruetan
 - Kultura-esparruetan



- Komisarian
 - Garbiguneetan
 - Hiri-garraioan
 - Beste batzuetan (Zer beste instalazio?)
- 2) Udal-esparruetan dauden zenbait kamerek barne-irudiak hartzen al dituzte (hala nola lantokiak, korridoreak, bulegoak, liburutegiak, igerilekuak, igogailuak eta abar?)
- Bai
 - Ez
- 3) Herriguneetan edo aparkalekuetan trafikoaren erregulaziorako matrikulak hartzeko kamerek al daude?
- Bai
 - Ez
- 4) Herritarrei jakinarazten al zaie kartel eta ohartarazpen bidez udal-instalazio eta - esparruetan irudiak hartzen ari direla?
- Bai
 - Ez

Kontu espezifikoak Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Sailerako

- 1) Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Sailaren Segurtasun Sailburuordetzak kamera finkoak jartzeko baimenak bidaltzen al dizkio Bideozaintza eta Askatasunen Batzordeari baimena emateko ebazpenaren aurretik?
- Bai
 - Ez
- 2) Herritarren segurtasunerako helburuekin kamera mugikorrek erabiltzeko baimenaren epea honako hau da:
- Hilabete
 - Hilabete, beste hilabete luzatzeko aukerarekin
 - 3 hilabete
 - Mugagabea
 - Beste bat (Zer epe?)
- 3) Kamera mugikorrek erabiltzeko baimenak honela ematen dira:
- Kamera bakoitzeko
 - Unitate, zerbitzu, burutza eta abar bakoitzeko
 - Denak batera



- 4) Segurtasun Sailburuordetzak kamera mugikorren irismena eta horiek erabiltzeko kasuak (batez ere premia handiko kasuetan) aztertzea ahalbidetzen duten protokolo, jarraibide edo antzeko tresna juridikorik al du?
- Bai
 - Ez
- 5) Kamera finkoak zein mugikorrak jarri eta erabiltzeko baimenetan polizia-zerbitzu eta -unitateetako arduradunek egindako eskaeren premiaren eta egokitasunaren baloraziorik barne hartzen al da?
- Bai
 - Ez

Interesgarritzat jotzen diren bestelako iruzkin edo informazio osagarriak

ararteko

Herriaren Defendatzailea
Defensoría del Pueblo

Arreta zuzeneko bulegoak

Araban

Prado, 9 • 01005 Vitoria - Gasteiz
Tel.: 945 13 51 18 • Fax: 945 13 51 02

Bizkaian

Albia Eraikuntza. San Vicente, 8 – 8. solairua
48001 Bilbao
Tel.: 944 23 44 09

Gipuzkoan

Arrasate 19, 1.a
20005 Donostia/San Sebastián
Tel.: 943 42 08 88

www.ararteko.eus

